

donostia kultura



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura





20

25

05

Donostia Kultura
Balantzea

15

Egitura eta balantze
ekonomikoa

19

Komunikazioa
eta irudia

25

Donostia Kultura
Bazkideak

31

San Telmo Museoa

47

Kultur Etxeak

141

Liburutegiak

157

Programazioa

- 47 Kultur Ekintza
- 61 Aiete
- 69 Casares-Tomasene /
Larratxo
- 83 Egia
- 93 Ernest Lluch
- 101 Intxaurreondo
- 111 Larrotxene
- 117 Loiola
- 125 Lugaritz
- 131 Okendo

- 157 Arte Eszenikoak
- 173 Musika
- 177 Zinema eta
ikus-entzunezkoak

181

Festak

201

Jaialdiak

239

Ekoizpena

- 201 Donostiako Jazzaldia
- 209 Glad is the Day
- 213 Fantasiatzko eta
Beldurrezko Zinemaren
Astea
- 217 Giza Eskubideen Zinemaldia
- 221 Literaktum
- 225 dFeria
- 231 Dkluba
- 235 Poltsiko Antzerkia

Gozatu
Disfruta
Donostia
Kultura
donostiakultura.eus

Donostia Kultura Balantzea

20  25



Donostia Kultura Balantzea

**Parte-hartze daturik onenekin
itxi zuen 2025. urtea
Donostia Kulturak**



“Horren ondo erantzuten dizun hori zaintzea”:
Hau da, **Donostia Kulturaren** eskaintzari horren datu onekin erantzuten dioten tokiko kultura eta herritarrak. Horixe da **Donostia Kulturaren** nahia eta harro sentitzeko arrazoi nagusia, publikoari —batez ere bazkideei— zein sortzaileei —batez ere bertakoei— dagokienez.

2025eko ekitaldia emaitza benetan positiboekin itxi zen, kultura-partaidetzari eta herritarren erantzunari dagokienez. **Donostia Kulturaren** jardunak berretsi egin zuen bere kudeaketa-ereduaren sendotasuna; kudeaketa-eredu horren oinarriak dira tokiko kultura zaintzea eta herritarrei arreta ematea. Herritarrak gero eta hobeto eta modu jarraituagoan erantzun zioten kultura-eskaintzari.

Hain zuzen ere, **13.645.875 euroko inbertsioa** egin zuen 2025ean **Donostia Kulturak sorkuntza bultzatzeko**. Beste lankidetzaz-ildo batzuen artean, diru-laguntzak nabarmendu ziren, 754.980 € guztira, hiriko hainbat programa eta jaialditara bideratu zirenak. Talentu sortzailea bultzatzera eta partaidetzara bideratutako deialdiak sendotzeko lankidetzak ere azpimarratzekoak izan ziren. Besteak beste: **Adarra Saria, Antzerki Saria, DK Sessions, Musikagela, Arte Abian, Museo bikoitza, Oihu!, Fantasiako eta Beldurrezko Film Labur Onenaren saria, tokiko Jazz taldeentzako sariak, Muralhitz, Hamaika Entzuteko**, etab. Herritarrak sektorean barneratzen dituzten zerbitzuak ahaztu gabe, hala nola **Musikagela eta Larrotxene Bideo**. Era horretako gero eta ekimen gehiago egoteak agerian uzten du Donostia Kulturak babesa ematen diola eta konplizitatea duela sektore sortzailearekin.

Parte-hartzea nabarmen igo zen beste esparru bat hiriko **Kultur Etxeen Sareak** emandako ikastaroena izan zen. 10.240 lagunek hartu zuten parte **Donostia Kulturak emandako 1.371 ikastaroetan**. Horrela, **10.000 donostiarrek baino gehiagok “egiten” dute kultura urte osoan zehar**.

Ikuspegi hori honako alderdi hauetan ikusi zen:

- **Bisitari gehiago: milioi bat baino gehiago kultur etxeetan, eta 200.000 baino gehiago San Telmo Museoa eta Urgull batuta.**
- **Bazkide gehiago: 130.000 lagunek baino gehiagok zuten DK Txartela; 3.000 pertsona baino gehiago egin ziren bazkide urtean zehar.**
- **Gero eta babes handiagoa sorkuntzari, batez ere tokiko sortzaileei.**

Kultur Etxeak

Kultur Etxeen Sareak funtsezko eginkizuna betetzen jarraitu zuen Donostiako eta hiriko auzoetako kultura-dinamikan. **1.008.321 bisitari** izan zituen bere topaleku eta sorkuntzako eta kultura-bitartekaritzako espazioetan; zerbitzuen 656.291 erabiltzaile, 315.851 parte-hartzaile antolatutako jardueretan, eta 10.240 ikastaroetan... Kopuru horiekin, kultur etxeek indartu egin zuten **hurbileko kulturaren sustatzaile eta herritarren eta erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetzaz-eragile** gisa duten eginkizuna.

2025. urtean zehar, hiriko kultura-jardueraren ardatz nagusi gisa betetzen duten lekua finkatu zuten kultur etxeek, hurbileko programazio anitz batekin jarraituz eta tokiko sorkuntza indartuz. Urteko datuek argi utzi zuten oso erantzun positiboa eman zuela publikoak.

2025EKO EKITALDI NABARMENAK

Egia Kultur Etxeak koordinatzen duen **Glad is the Day** jaialdia izan zen berriz ere urteko gertakari garrantzitsuenetako bat. **15.000 lagunek baino gehiagok hartu zuen parte** jaialdian, eta musikaz, jardueraz eta giro bereziz bete ziren Egia auzoa eta inguruak; hala, hiriko kultura-egutegiko hitzordurik ezagunenetako gisa egonkortu zen.

Literaktum literatura-jaialdiaren 2025eko leloa izan zen *Niaren oihartzunak: bakardadea eta nortasuna aro globalean*, eta espektatiba guztiak gainditu zituen berriz ere, **8.200 partaiderekin**. Egitarauaren kalitateak eta aniztasunak indartu egin zuten literaturaren eta pentsamendu garaikidearen esparruetan **Donostiako** kultura-erreferente gisa duen lekua.

Poltsiko Antzerkia programak eutsi egin zion ustekabekoa eta hurbilekoa izateko bokazioari, arte eszenikoak tabernetara eta ez-ohiko espazioetara eramanez, eta publikoaren harrera ezin hobea lortuz.

Egia Kultur Etxeak bultzatutako **dantza eta zirko-zirkuituek Gazteszenako** programazioaren ardatzetako bat izaten jarraitu zuten, proposamen berritzaileak eta kalitate artistiko handiko ikuskizunak konbinatuz.

Guzti horiez haratago, sarean garatutako jarduera eta jaialdi guztiek eutsi zioten kalitate-, koherentzia- eta aniztasun-maila handiari, kultur etxeen berezko nortasuna indartuz.

IKASTAROAK ETA ZERBITZUAK

Ikastaroena izan zen berriz ere kultur etxeetan eskari handieneko zerbitzuetako bat. 2025ean, errekorra hautsi zen, **10.240 matrikulazioekin**; aurreko urtean, berriz, 9.698 matrikulazio izan ziren, beraz, **% 9** inguruko igoera gertatu zen. Hazkunde horrek berretsi egin zuen herritarrek kultura-, arte- eta sorkuntza-trebakuntzarekiko interes iraunkorra dutela, eta kultur etxeak ikaskuntza eta garapen pertsonaleko espazio gisa finkatu zituen.



San Telmo Museoa

2025a, urte positiboa San Telmo Museorako.

Museoak publikoaren erantzun sendoa izan zuen bere erakusketa- eta jarduera-proposamenetan, eta **160.000 lagun** baino gehiagokoa izan zen bisitarien guztizko kopurua; horrela, sendotu egin zen azkeneko urteetako igoera jarraitua.

Berriz ere, oso adierazgarria izan zen **museoko bazkideek** erakutsitako etengabeko babesa; ekitaldia itxi zenean, **2.000 bazkide** baino gehiago zituen museoak.

Aldi baterako lau erakusketa handik markatu zuten urteko erakusketa-programazioa. ***Ipuscua 1000 urte. Ipuscuatik Gipuzkoara. 1025-2025*** erakusketak ireki zuen urtea, eta lurraldearen historia oroitzeko ekitaldien ardatz nagusia izen zen; ***Memoriaren basoak*** erakusketak, berriz, memoria historikoari buruzko hausnarketa egin zuen, arte garaikidetik. Udan, bestalde, ***Lorategi bat soinean*** erakusketak XVIII. Mendeko jantziek zituzten naturako motiboetara hurbildu gintuen arreta handiz eta, urtea ixteko, ***Amazoniak. Antzinako etorkizuna*** izan genuen, nazioartean oihartzuna izan duen proposamena, naturarekin eta mundu garaikidearekin erlazionatzeko modu berriak planteatu zituen.

Sorkuntza garaikideak eta maila txikiagoko formatuek ere rol nabarmena izan zuten, **Laborategia aretoko** programazioaren bitartez, hainbat proiektuekin, hala nola ***Landa arrazionalismoa*** eta ***Artea abian*** erakusketak, **Jazzaldiaren** sei hamarkadatarako historiari errepaso bisuala egiten zion erakusketa, eta ***Atzokoak gaur*** egitasmoaren barruan egin zen musika-artisautzako erakusketa. Halaber, aurreko urtean hasi zen **Nabarmendutako obra** programak aukera eman zuen ondare artistikoko pieza bereziak hurbiletik ezagutzeko, tartean, **Joan Miróren** obra bat eta **Novelty kafetegiko** beirate historikoa.

281.580
sarrera saldu ziren,
ikuskizunetarako zein
San Telmo Museorako

Erronkak programazio-ildoak —**400 hitzaldi baino gehiagorekin, online formatuan eskuragarri**— eta sormenarekin, ondarearekin eta argazki-liburuekin lotutako jarduerak hitzaldi, tailer, topaketa eta aurkezpen programazio anitz bat osatu zuten. Aldi berean, museoak lan handia egiten jarraitu zuen **ondarearen** esparruan, **funtsen kontserbazioa eta zaharberritzea** eta **pieza berrien eskuratzea** konbinatuz, erosketen eta dohaintzen bitartez.

Ondarearen esparruan, **2025ean, 273 objektu eta artelan berri** eskuratu ziren; gainera, agiri- eta argazki-dohaintza ugari jaso zituen museoak, eta hainbat bildumatako **117 pieza** zaharberritu ziren. Urteko gertakaririk garrantzitsuenetakoa **STM-GCBC argazki-liburuen bilduma eskuratzea** izan zen; liburutegiak esparru horretan Euskadiko erreferentzia bakar gisa duen eginkizuna indartu zuen horrek.

Azkenik, **2025ean, Fermin Leizaola Aranzadiko kidea eta San Telmo Museoren laguntzaile aparta agurtu genuen**, eta museoak omenaldia egin zion, Etnografia Jardunaldien barruan egindako ekitaldi batean.

Halaber, nabarmentzekoa da Urgulleko **Donostiari begira** erakusketak **68.647 bisitari** izan zituela, eta Santa Klara uharteko **Hondalea** instalazioak, berriz, **15.236**.





Liburutegiak

2025ean, **Donostiako Liburutegien Sareak** erabilera- eta jarduera-maila handia izan zuen; horrela, berretsi egin zen egonkorra dela funtsezko zerbitzu publiko gisa, irakurketa-ohiturak eta kultura-kontsumoa eraldatzen ari diren testuinguru batean. Urtean zehar, **479.917 mailegu** egin ziren, egunean, batez beste, **1.735**, eta **905.718 bisita** erregistratu ziren, 2024an baino **35.521** gehiago (+% 1,4), egunean **3.271 bisitari** batez beste.

Halaber, **1.951 kultura-jarduera** egin ziren, eta **45.127 lagun** joan ziren jarduera horietara; hala, liburutegiak egonkortu egin ziren, elkartzeko, kultura-bitartekaritzarako eta herritarrek parte hartzeko espazio bizi gisa betetzen duten eginkizunean.

Zerbitzuaren erabileraren ikuspegitik, **haurrentzako 179.474 mailegu** egin ziren, aurreko urtean baino **4.957 gehiago**. Horrela, argi gelditu zen haurrekin eta familiarekin egiten den lan etengabeak indartsu jarraitzen duela. **Biztanle bakoitzeko maileguei** erreparatuz gero, **2,57koa**, izan zen, Estatu mailako batez bestekoa eta Europakotik hurbil mantenduz; **biztanleko 3 mailegutakoa** da Europako batez bestekoa.

Kultur etheen araberako banaketari dagokionez, **Liburutegi Nagusiak** egin zuen mailegu gehien, **97.913**, hain zuzen ere, eta ondoren daude **Okendo K.E. (71.538)** eta **Ernest Lluch K.E. (68.251)**. **Aiete Kultur Etxeak (57.020)** eta **Tomasene Kultur Etxeak (34.247)** igoerak izan zituzten; gainerakoek, berriz, jarduera-maila egonkorre eutsi zieten.

Funts bibliografikoetan egindako inbertsio-ahalegina izan zen berriz ere liburutegi-politikaren ardatz nagusia. 2025ean, **343.251,30 €** bideratu ziren liburuak eta beste euskarri batzuk erostera; kopuru horretatik, **148.299 €** bideratu zen literatura-liburuak erostera, eta beste **90.819,75 €** aldizkako argitalpenetara. **430.071 €** eurokoa izan zen guztizko gastua, hau da, **biztanle bakoitzeko 2,3 €koa** eta **bazkide bakoitzeko 3,8 €koa**. **Berritze-tasa**, bestalde, **% 5,04koa** izan zen, bildumen etengabeko eguneratzea bermatuz.

112.575 bazkidetakoa izan zen sarearen oinarri soziala; 4.557 alta izan ziren; bazkide horietatik guztietatik, erabiltzaile aktiboak izan ziren 29.309. **DonostiaTEKA** gordailu digitalaren jarduera gehitu zitzaion horri; **124.363 bisita** izan zituen eta, hala, aurrez aurrekoaren eta digitalaren osagarritasuna berretsi zen. Oro har, datuek baieztatu zuten Liburutegien Sareak **Donostia Kulturaren** eragile nagusienetako bat izaten jarraitu zuela.

Programazioa

ZINEMA

Zinema eta Ikus-entzunezkoen sailak programazio egonkorra eta koherentea izan zuen 2025ean, ziklo egonkortuen inguruan antolatuta, eta formatu ertaineko jaialdiei eta askotariko publikoei zuzendutako ekintzei lagundu zien. **Tabakaleran** egiten den **Nosferatu** asteroko zikloan, *Klasikoak, Modernoak eta Bitxiak* izenburuarekin, hainbat garai eta jatorritako **hogeita hamar emakume zinemagile** baino gehiagoren lanei erreparatu zitzairen, zinemaren historiaren irakurketa kritikoa eta anitza egiten lagunduz.

Diruz lagundutako jaialdien esparruan, **Dock of the Bay** jaialdia desagertu izanak markatu zuen 2025eko ekitaldia; film laburrei eskainitako **Donoskino** jaialdiak eta **49. edizioa** ospatu zuen **CIMASUB** zikloak, ordea, aurrera jarraitu zuten, ibilbide luzeko proposamen espezializatuen jarraitutasuna bermatuz.

Horrekin batera, egonkortu egin ziren publiko leiala duten ekimenak, hala nola **Menditour (Zinema eta Mendia)** zikloa eta **Emakumeen Etxeak** sustatzen dituen saiok; beste espazio batzuek, bestalde, **Antzoki Zaharra** eta **Victoria Eugenia Antzokia**, esaterako, hainbat galaren eta ikus-entzunezkoen, hezkuntzaren eta gizartearen esparruetako topaketen gune izan ziren. Estreinaldi zehatzekin osatu zen programazioa: besteak beste, **Euskararen Egunean** dokumental bat aurkeztu zen; **Euskara Zine Aretoetara** programa garatu zen, ikasleei zuzenduta dagoena eta material didaktikoak ere sortzen dituen; eta **Bang Bang Zinema** jardueraren barruan, **bost programa bikoitz** eskaini zituen urtean zehar.

MUSIKA

2025ean zehar, **Donostia Kulturaren Musika** sailak **52 kontzertu** programatu zituen guztira, **20.000 lagun baino gehiago** bildu zituztenak, bloke eta ziklo egonkorretan egituraturako eskaintza anitz bat egonkortuz. Programazioak bertako euskarazko musika, egungo proposamenak, musika klasikoa eta garaikidea, jazz, zarzuela eta familientzako programazioa konbinatu zituen; horrela, izen handiko artisten eta talentu berrien arteko orekari eutsi zion, baita bertako, Estatuko eta nazioarteko ekoizpenen arteko orekari ere.

Nabarmen indartu zen musika-jarduera **Antzoki Zaharrean**, pixkanaka musika-espazio eszeniko gisa berreskuratuz, eta **Victoria Eugenia Antzokiak** jarraitu zuen izaten formatu handietarako ardatz nagusia. Bertako musikak eta euskarazkoak protagonismo nabarmena izan zuten, hainbat ekitaldi garrantzitsurekin, hala nola **Adarra Saria Antton Valverderi** emateko ekitaldia, eta **Gorka Urbizuren** arrakasta itzela; sarrerak agortu ziren elkarren segidan eman zituen **lau kontzertutan**.

Horrekin batera, **Gure Ahotsak** zikloak, esaterako, emakumeen sorkuntza garaikidea ikusarazi zuen, eta jazz programazioak, nazioarteko proiektzioa duten musikariek, eta musika klasikoak eta lirikoak —**bi zarzuela produkzioa** eta **Batura Zikloaren V. edizioa barne**— eskaintza espezializatu eta kalitatezkoa egonkortu zuten. Balantze globalak berretsi egin zuen sendoa dela bultzatzen den musika-eredua, zeina anitza, jarraitua eta publikoen leialtasuna eta belaunaldien berrikuntza lortzera bideratuta dagoen.



ARTE ESZENIKOAK


Arte Eszenikoen sailak lan handia eta ondo egituratua egin zuen 2025ean; protagonismo nabarmena izan zuen **dFERIA azokaren XXXI. edizioak**; **17.749 lagun erakarri** zituen, **% 85eko batez besteko okupazioarekin**, **54 emankizunekin zortzi espaziotan**, eta **700 profesional akreditatu** baino gehiagorekin; **% 114 egin zuen gora nazioarteko parte-hartzeak**. **40 herrialde** baino gehiagokoak izan ziren parte-hartzaileak.

Urtean zehar, egonkorra eta anitza izan zen udal antzokietako programazioa —**Victoria Eugenia, Antzoki Zaharra, Gazteszena** eta **Imanol Larzabal**—, eta formatu handiak, sorkuntza garaikidea, euskarazko antzerkia, dantza, zirkoa eta familientzako ikuskizunak konbinatu zituen, era horretan, **Donostia Kulturak** ekosistema eszenikoa egituratzeko eragile gisa duen eginkizuna indartuz. Dantza-programazioaren barruan, **25 ikuskizun baino gehiago** eskaini ziren urte osoan zehar, dFERIA azokakoak kontuan izan gabe, eta **Iturritik Jaialdiaren IV. edizioak zazpi euskal konpainia** ekarri zituen, bere ikuspegi identitarioa eta kultura-transmisiokoa sendotuz.

Publikoen eta bitartekaritzaren esparruan, **Donostia Kulturak** funtsezko ildo estrategikoak mantendu eta indartu zituen, hala nola **euskarazko antzerkiaren Euskal Herriko programazio erregular bakarra** izan zuen, okupazio-tasa handiekin, eta gazteak kulturara iristeko politikak, besteak beste **Ordu Gaztea** ekimenarekin; 30 urtez azpiko milaka gazte baliatu ziren ekimen horretaz. **Eskolatik antzokira** programan **6.514 lagunek** hartu zuen parte (6.028 ikaslek eta 486 irakaslek), eskaini ziren **41 emankizunetan**; horrela, publikoak trebatzeko tresna nagusi gisa finkatu zen.



Filtro © Gustavo Castagnello



Halaber, **Victoria Eugenia Antzokiak** indartu egin zuen eragile koproduttore gisa duen eginkizuna, izan ere, tokiko zein nazioarteko **hiru koprodukzioetan** parte hartu zuen, eta **Larrun** egitasmoa martxan jarri zuen, **Biarritzeko Balletarekin** lankidetzan. Balantze globalak berretsi egin zuen bultzatutako eredu eszenikoaren sendotasuna, zeina bikaintasun artistikoaren, sorkuntzarako laguntzaren, publikoen trebakuntzaren eta euskal kultura-sarearekiko konpromiso jarraituaren arteko konbinazioan oinarrituta dagoen.



Aracaladanza Loop © Pedro Arnay

Jaialdiak

LITERAKTUM

Donostia Kulturak antolatzen duen **Literaktum** literatura-jaialdia **azaroaren 10etik 23ra** ospatu zen, **53 jarduerarekin** eta **8.200 bat lagun**en parte-hartzearekin; horrenbestez, literaturaren esparruan erreferentziatzeko hitzordu gisa duen lekua baieztatu zen. *Niaren oihartzunak: bakardadea eta nortasuna aro globalean* leloarekin, 2025eko edizioak testuinguru globalizatuetako identitatearen, bakardadearen eta esperientzia indibidualaren inguruko hausnarketa garaikidea sustatu zuen, hainbat egilerekin egindako topaketen bitartez, hala nola egungo literaturaren esparruan ahots garrantzitsuak diren **Arantxa Urretabizkaia, Belen Gopegi, Eider Rodríguez, Samantha Schweblin** eta **Ignacio Martínez de Pisón**.

Programazioak topaketa jendetsuak —batez ere **Juan Jose Millás, Juan Manuel de Prada** eta **Javier Cercas** protagonista izan zirenak— eta proposamen eszenikoak, errezitaldiak, erakusketak eta jarduera parte-hartzaileak uztartu zituen, jaialdiaren zeharkakotasuna indartuz. **Literaktum Txikia** erakundeen laguntza-sare handiarekin antolatu zen eta, ondoren, formatu digitalean jaso ziren edukiak jarri zituzten eskuragarri; harrera bikaina izan zuen eta, horrela, baieztatu zen jaialdiak pentsamendu kritikoa sortzeko, irakurzaletasuna sustatzeko eta publikoak erakartzeko gaitasuna duela, belaunaldi arteko ikuspegi garaikide batetik.



Samantha Schweblin




Javier Cercas

JAZZALDIA

Jazzaldiak 60. edizioa bete zuen 2025ean, eta argi geratu zen Europako jazz jaialdi garrantzitsuenetakoa dela, **179.180 lagun**en parte-hartzearekin, eguraldia gorabeheratsua izan zen arren. Eskaini ziren **doako 52 kontzertuek 158.700 lagun** erakarri zituzten; ordainpeko emanaldietara, berriz, **20.480 musikazale** joan ziren; horrela, **sarreraren % 99,03 saldu ziren** eta *sold out* txartela zintzilikatu behar izan zen **17 kontzertutan**.

Publikoaren nazioarteko jatorriak, **40 herrialde**tako zaleen presentziarekin, espazio guztietan lortu zen okupazio-maila handiak eta publikoaren jarrera eredugarriak indartu egin zuten jaialdiaren izaera jendetsua, anitza eta belaunaldi artekoa.


**Jazzaldiaren
17 kontzertutan
agortu ziren sarrerak,
eta sarreraren %99,03 saldu zituen.
179.180 zale joan ziren
Jazzaldiko 52 kontzertuetara.**



BELDURREZKO ZINEMAREN ASTEA

Beldurrezko Zinemaren 36. Astea ospatu zen **urriaren 31tik azaroaren 7ra**, eta **11.845 ikus-entzule** izan ziren proiektioetan, **9.452 lagunek** hartu zuen parte jarduera paraleloetan, jendea erakartzeko bere gaitasunari eutsiz eta, are, handituz. **Kursaal jauregian** egin zen **Gaua Paul Urkijo** zuzendariaren hirugarren film luzearen inaugurazioak eta **Gau Beltzarekin** bat eginez ospatu izanak indartu egin zuten jaialdiaren dimentsio sinbolikoa eta urbanoa.

Animedon topaketa eta ildo bereko beste ekimen batzuk egonkortu izanak publiko berriak erakartzeko aukera eman zuen, eta euskal zinemaren, erakusketa tematikoen eta proposamen hibridoen presentziak berretsi egin zuen oso bizirik dagoela espezializazioa, berrikuntza eta sustraitzea uztartzen dituen jaialdi hau.



GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

Giza Eskubideen Zinemaldiaren 22. edizioak 17.006 parte-hartzaile izan zituen, kulturaren eta hezkuntzaren arloetan duen inpaktua indartuz. Zinema-proiektioek **8.648 ikus-entzule** erakarri zituzten; horiei, erakusketetara joandako **7.661 bisitariak** eta jarduera paraleloetan parte hartu zuten **697 lagunak** gehitu behar zaizkie, hala nola mahai-inguruetan, antzezlanetan proposamen parte-hartzaileetan.

Euskal produkzio handia nabarmendu zen, bertako film laburren lehiaketa eta guzti, eta ikastetxeetako ikasleen parte-hartze handia; hala, agerian gelditu zen jaialdia hausnarketarako, sentsibilizatorako eta konpromiso sozialerako espazioa dela.

dFERIA

dFERIA azokaren XXXI. edizioa mugari historikoa izan zen, **17.749 parte-hartzaile** erakarrita; **10.482 lagun** joan ziren eskainitako ikuskizunetara, **% 85eko batez besteko okupazioarekin** eta **7.267 lagunek** hartu zuen parte jarduera profesionaletan. **700** profesional baino gehiago akreditatu ziren, 2024an baino **% 16** gehiago; gainera, **% 114ko igoera izan zen nazioarteko akreditazioetan: atzerriko 152 profesional etorri ziren 40 herrialdeetatik.**

Atelier for Young Festival Managers programa gauzatu izanak —**35 herrialdeetako 47 parte-hartzaileekin**, indartu egin zuen nazioartekotze-estrategia, eta sorkuntza, programazio eta pentsamendu eszeniko garaikiderako Europako erreferentziazko gune gisa egonkortu zuen dFERIA.

En 2025, dFERIAk jautzia egin zuen bere nazioartekotze-bidean; horrela, Suitza, Alemania eta Austria izan zituen herrialde gonbidatu, eta Atelier four Young Festival Managers programaren egoitza izan zen



Jaiak

2025eko San Sebastian Egunean helduen

167 danborradak hartu zuen parte; horietatik **164 mistoak izan ziren** eta **3 ez-mistoak**. **22.736 helduk** hartu zuten parte guztira, **12.096 gizona** eta **10.640 emakume**; era horretan, berretsi egin zen batez ere berdintasunezkoa den eredu bat finkatu dela. Parte-hartze horri gehitu behar dizkiogu **Haurren Danborradan** parte hartu zuten **45 konpainiak**, **4.625 haurren** parte-hartzearekin (2.478 neskatila eta 2.147 mutiko); horrez gain, aurreko egunetan dozenaka danborrada egin ziren ikastetxeetan.

Banderaren Igoera ekitaldiak jendetza batu zuen Konstituzio plazan bertan, eta **2.000 lagunek** inguruk jarraitu zuten igoera **Kamingaintxo** plazan jarritako pantailatik; **ETB1** katearen bitartez ere ikus-entzule askok bizi izan zuten une hori, % **18ko share-arekin** eta **118.000 ikuslerekin**.

2025eko Aste Nagusia abuztuaren 9tik 16ra

ospatu zen, eta **300 ekitaldi baino gehiago** antolatu ziren. Beste urte batez, benetan handia izan zen partaidetza, batez ere **Sagueseko** kontzertuetan eta **Su Artifizialen Nazioarteko 60. Lehiaketan**; kalkulatzen da **585.000 ikusle** batu zituela lehiaketa horrek. Urteko jai-egitaraua osatzeko, aipatzekoak dira **Inauterietako 26 konpartsak**, **San Juan** bezperako **18 suak**, **Euskal Jaiak**, **Santo Tomas Eguneko Azoka**, **163 posturekin**, eta **Kontxako Banderako estropadak**, **31 klubetako 44 trainerurekin**.

Oro har, zenbakiek berretsi zuten herritarren parte-hartzea handia izan zela, eta jai-eredua sendoa dela, zabala, anitza eta iraunkorra izanik.

Bi urteurren entzutetsu:

Su Artifizialen Donostiako Lehiaketak 60. urteurrena ospatu zuen, eta Jazzaldiak, berriz, 60 “uztail” bete zituen



© Sonia Urreizti

Egitura eta balantze ekonomikoa

20  25



Egitura eta balantze ekonomikoa

Administrazio-kontseilua

LEHENDAKARIA:
Eneko Goia Laso
Jon Insausti Maisterrena

LEHENDAKARIORDEA:
Jon Insausti Maisterrena
Ana Lopez Loiarte

Kontseilariak

EAJ/PNV

Kerman Orbegozo Uribe
Nekane Mendarte Azkue

EH BILDU

Garbiñe Alkiza López de Samaniego
Markel Ormazabal Gaztañaga

PSE-EE

Iñigo García Villanueva
Iñaki Gabarain Gaztelumendi

PP

Borja Corominas Fisas

ELKARREKIN DONOSTIA

Arantza González García

Zuzendaritza-taldea

Zuzendari-gerentea:

Jaime Otamendi

Zuzendariaren teknikari laguntzailea:

Imanol Galdos

Administrazioa eta Baliabideak: **Rebeka Gallastegi**

Komunikazioa eta Irudia: **Jaione Askasibar**

Ekonomia eta Finantzak: **Aritz Dominguez**

Liburutegiak: **Arantza Urkia**

Kultura Etxeak: **Jon Aizpurua**

Zinema: **Josemi Beltrán**

Jaiak: **María Jesús Torres**

San Telmo Museoa: **Susana Soto**

Musika: **Miguel Martín**

Antzerkia eta Dantza: **Norka Chiapusso**

Ekoizpena: **José Ignacio Abanda**

2025eko aurrekontua



Gastuak guztira:

34.699.898€



Diru-sarrerak guztira:

6.959.898€



Udalaren diru-ekarpena:

27.740.000€



Inbertsioak:

2.252.700€

Donostia Kulturaren zeharkako planak

Euskara Erabiltzeko Plana:

2025ean, erakundeak berriro lan egin zuen **Euskaraldia** ekimenarekin, eta langile guztiei zuzendutako barne-komunikazioa indartu zen **Donostia Kulturak** onartutako hizkuntza-irizpideei dagokienez, mezuen, informazio-pilulen eta kartelen bitartez.

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Plana:

Bestalde, arreta berezia eskaini zitzaion emakumeen lidergoari; horretarako, lan-saioak egin ziren erreferente diren emakumeekin, hala nola **Uxue Alberdi** eta **Aran Erasunekin**.

Enplegua Donostia Kulturari:

Enplegu-eskaintza Publikoko deialdi arruntekin lanean jarraitu zen, zehazki **15 deialdirekin**.





Nazioartean 2025ean burututako lanaren balantzea

Urtez urte ereindakoa jasotzen jarraitu genuen. **2023an** antolatu eta zuzendu zen **Mundu Mailako Kirol Diplomaziaren Kongresuak** nazioarteko sare indartsu bat sortarazi zuen eta, alde horretatik, munduan barrena ekimen asko sortu ziren Kongresuak zabaldu zuen esparruaren inguruabarrean. Kongresu hartan munduko herrialde ugarietako ikasleak izan ziren. Horren lekuko, esaterako, **Indiako** ikasle batek hiru asteko egonaldia egin zuen **Donostian**, esku artean zuen ikerketa garatzen, **Donostia Kulturaren** gidaritzapean. Indiako ikasle honetaz gain, azkeneko urteetan antolatutako kongresuen inguruko aholkularitza ugari eskaini zitzaizen ikasleei, doktorego, graduondo eta gradu mailetan garatzen ari ziren lanei begira.

Nabarmentzekoa izan zen, urte horretan, **Europako Kultur Hiriburutzen** inguruan burututako lana. Kontuan izanik **2031n Espainiari** zegokiola Hiriburutzaren txanda, estatuko hiri askotatik aholkularitza eskatu zitzaion **Donostia Kulturari**. Hasteko, **Espainiako Kultura Ministerioak** martxoaren 6an **Donostian** antolatu zuen jardunaldiaren aurkezpen eta azalpenak **Donostia Kulturak** prestatu eta eman zituen. Jardunaldiaren ostean, **Jerez, Granada, Oviedo, Las Palmas, Iruñea** eta **Cácerese**ko udaletatik, bai eta hiriburutzaren prestakuntzarako egituretatik ere, gonbita jaso zen eta hainbat egunetako lan-egonaldiak burutu ziren, aurkeztu behar zituzten proposamenetarako aholkularitza eskainiz.

Espainiako Estatutik kanpo, hurrengo urteetan Hiriburutzaren ardura izango duten hiriei (kasuren batean dagoeneko izan zutenei) eman zitzaizen babesa eta elkarlana azpimarratu behar da; hainbat egitasmotarako esperientzia eta ezagutza partekatu zen haiekin. Nabarmentzekoa izan zen **Montenegroko Nikšić, Zipreko Limassol eta Larnaka, Ipar Mazedoniako Skopje, Serbiako Novi Sad** eta **Belgikako Molenbeek** hiriei eskaini zitzaizen laguntza.

Inguruabar horretan, azpimarratzekoa izan zen urriaren hasiera aldera **Finlandiako Oulu** hiriko eta eskualdeko hogeita bost alkatek **Donostiara** egindako bidaia. **2016ko Europako Kultur Hiriburutzak Donostian** utzitako legatua eta hiriaren egoera bertatik bertara ezagutzeko asmoz; Donostia Kultura arduratu zen bi eguneko lan-egonaldia antolatzeaz.

Urtez urte, indartzen ari gara **Donostia Kulturak** nazioartean duen esku-hartzea. **2025ean, Poloniako Bielsko-Biala** hirian **Culture Next** sareak antolatutako **Batzarrean** modu aktiboan parte hartu zen, bai eta **ECOC** sareak irailean **Finlandiako Oulu** hirian antolatutako hiru eguneko **Kongresuan** ere. Urte horretan, **Finlandiako Oulu** eta **Eslovakiako Trenčín** hirien esku egon zen **Europako Kultur Hiriburutzaren** ardura. **ECOC** sarean **Donostia Kulturak** urteetako ibilbidea egin du eta, alde horretatik, kide berrientzako erreferentzia bilakatu da. Azkenik, **UNESCO**ren antolakuntzapean bi urtez behin egiten den **MONDIACULT** kongresuan ere parte hartu zuen, **Bartzelonan** egin zen edizioan.

Komunikazioa eta irudia

20  25





Komunikazioa eta irudia

2025ean, Donostia Kulturaren webgune berria sendotu zen. Webgune horrek bateratu egiten du Erakundearen logotipoaren azpian (aterkipean) dauden ia 30 marken komunikazio-estrategia. 2025ean **Dkluba** musika-programari eskainitako web atal propioa sortu zen.


2025ean, **807.000 erabiltzaile sartu zen webgunean**, hau da, % 11 gehiago. 1.627.439 web-saio ireki ziren, eta **6,3 milioi orri kontsultatu zen**; datu horiek erakusten dute **% 11ko eta % 4,5eko igoera** gertatu dela, hurrenez hurren. Kontsulta gehien jaso zuten edukiei dagokienez, Agenda eta Sarrerak atalak izan ziren, ikastaro-eskaintzak eta Donostiako liburutegiaz gain.

Halaber, 2025ean, museoaren webgune berria sortzeko lehiaketa egin zen, **Adimedia** enpresari esleitu zitzaion, eta 2026. urtean zehar garatuko du.

Arreta berezia eskaini zitzaien Donostia Kulturaren komunikazio-tresna nagusiari, hau da, *newsletter* edo informazio-buletinei, batez ere bazkideei zuzenduta daudenei; DK txartelari buruzko atalean jasotzen den bezala, **130.000 kide baino gehiago ditu Donostia Kulturaren Kultura Klubak. 57.090 lagunek eskatu zuen hilabeteko agenda** jasotzea, eta 27.613 lagunek, berriz, informazio hori astero jasotzea, hau da, aurreko urtean baino % 15 gehiagok.

Sare sozialetako presentziari dagokionez, 2025. urte amaieran 201.054 jarraitzaile zituzten Donostia Kulturak kanal ezberdinetan dituen ia 30 kontuek: X (lehen Twitter) sare sozialak 77.773, Facebookek 60.239, Instagramek 59.483, eta Linkedinek 3.575. Kopuru horiek erakusten dute **6.397 jarraitzaile gehiago** dutela plataforma guztien artean, nahiz eta ziurgabetasunak horietako batzuen etorkizunari eragiten jarraitu.

Azkenik, Donostia Kulturaren **YouTubeko kanala 2.532 harpidetza** izatera iritsi zen, % 6,3ko igoera lortuta. **DK ON!** ekimenak 2025ean eskaini zituen *online* edukien barruan, San Telmo Museoaren **Erronkak** programako hitzaldiak eta debateak eta **DK Sessions** programa nabarmendu ziren.





DK OFFLINE

Gainerako komunikazio-bide, promozio eta marketin-ekintzei dagokienez, **110 prentsaurreko egin zituen Donostia Kulturak 2025an**, 245 prentsa-ohar bidali ziren, eta 100 literatura-aurrezpen egin ziren liburutegietan. Hona hemen balantze hau osatzeko beste datu batzuk: 318 iragarki txertatu ziren prentsa idatzian, 202 dossier tematiko ireki ziren, 177 *newsletter* bidali ziren, eta 140 eskuorri edo programa sortu ziren. Azkeneko datua: 2.560 inpaktu bildu ziren, tokiko idatzizko komunikabideetan soilik.



DONOSTIA KULTURA IRRATIA

Donostia Kultura Irratia erakundearen irratia **Casares Kultur Etxearen** arima da. **Casares-Tomasene Kultur Etxetik** emititzen du, **FM 107.4** sintonian eta *streaming* bidez. Berritasun nagusia izan zen **DK Session** martxan jarri izana. Formatu horretan, musikari bati argitaragabeko abesti bat grabatzeko aukera eskaini zitzaion, sorkuntza-prozesu osoa barne hartzen zuen programa multimedia baten barruan, grabazioa eta *podcast* baten eta *bideo* baten edizioa barne. **Maite Larburu, Amorante, Sua Enparantza** eta **Kiliki** izan ziren 2025ean hautatutako artistak.



LARROTXENE BIDEO

Urte ikaragarri batean, **Lekeitioko Euskal Zine Bilera Jaialdiak** bost lan hautatu zituen bere **48. ediziorako**: **Berandu** (Lorea Azpeitia), **Kamarada** (Jon Hidalgo), **Maritxu, nora zoaz?** (Alex Altuna), **Olentzerori eskatu nion** koprodukzioa (Amaia San Sebastian) eta **Planetagatik** (Eneko Muruzabal). Azkeneko lan hori **Oihua!** proiektuaren harira ekoiztu zen, eta mundu osoko **50 bat jaialditan** parte hartu zuen urtean zehar.

Halaber, **Asier Errasti jaialdiak** bere programaziorako hautatu zituen **Berandu, Maritxu, nora zoaz?** eta **Olentzerori eskatu nion, Larrotxene Bideon** ekoiztuak. Azkeneko ekoizpen horrek, gainera, **euskal film labur onenaren saria** eskuratu zuen **Donostiako Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astean**.

Larrotxene Bideok eta **Zinema eta Ikus-entzunezkoen Kataluniako Goi-mailako Eskolak (ESCAC)** hitzarmena sinatu zuten aurreko urtean, enplegarritasun handiko ikastaroak martxan jartzeko. **2025ean, Larrotxene Bideok** sare sozialetako ikustaldien errekorra lortu zuen: **YouTube-en, Hibernazioa** ekoizpenak **milioi eta erdi ikustaldi baino gehiago** izan zituen.



Argitalpenei dagokienez, **San Telmo Museoak** bi argitalpen editatu ditu 2025ean. Batetik, **Memoriaren basoak** erakusketaren katalogoa, **Mabel Tapia, Maialen Lujanbio, Jaqueline Urla** eta **Santi Erasoren** testuekin. Bestetik, **Natalia Suárez Ortiz de Zárate**ren **Eszena iluna. Bera esna** erakusketaren katalogoa, **Nadia Barkateren** testuekin.



Donostia Kulturaren zinema sailak *Dena egiteke dago*, *zinema tirokatu* argitalpena eta *Billy Wilder-i* eskainitakoa editatu zituen **2025ean**.

Donostiako Liburutegien sarea ere nabarmendu zen liburuen edizioagatik: hala nola **Catalina de Erausori** buruzko obra, Álvaro Bermejok idatzitakoa eta **Joseba Urretabizkaiaren** argazkiak dituen, eta **Donostia San Sebastián postalez postal 1902-1930**, Gráficas Michelenarena.

Azkenik, aurreko urteetan bezala, **Donostia Kulturak**, **Balea Zuria** argitaletxearekin batera, **VIII. Poesía Saria** editatu du; **Sara Uribe Etxeberriari** eman zioten 2025eko saria, **Kuntzak eta Kerak** liburuagatik.

DK TXARTELA

Komunikazio-aktibo garrantzitsua da. Komunikazio eta Marketin sailak kudeatzen du Donostia Kulturako bazkideen kluba, eta 2025ean dagoeneko **131.594 lagunek zuten DK txartela**, aurreko urtean baino 4.082 gehiagok. Kolektibo horren leialtasuna eta erabiltzaileen gogobetetasuna, oro har, funtsezko alderdiak dira erakunderako; horrenbestez, **Donostia Kulturak** berak kudeatzen du sarreren aurrez aurreko salmentarako hiriko gunee iraunkor bakarra; **Victoria Eugenia antzokiko** leihatila, hain zuzen ere. Hain zuzen ere, **81.000** lagunek jasotzen dituzte **Donostia Kulturaren** informazio-buletinak: astekoak, hilabetekoak, hiruhilekoak edo diziplinaren araberakoak.



2025ean, gainera, areagotu egin ziren txartelaren abantailak, beste eragile batzuen hiriko kultura-eskaintzan ere deskontuak aplikatuz: **Zinemaldia**, **Aquariuma**, **BCC Basque Culinary Center**, **EHUren Udako Ikastaroak**, etab.

DK Bazkideak

2025





© Gorka Bravo

DK Bazkideak

2025. urte amaieran, **129.332** bazkide zituen **Donostia Kulturak**, aurreko urtean baino **3.064** txartel gehiagorekin. Bazkide horietatik ia **% 60** emakumeak dira, eta **% 76 Donostiako** biztanleak. **45 eta 64 urte** artekoen adin-tartea izan zen nagusi, eta **30 eta 44 urte** artekoen multzoa ondoren. Auzoen arabera, **Amarak** jarraitu zuen izaten kultura-zerbitzuen erabiltzaile gehien zuen barrutia (**% 19**); Amararen ondoren dago **Gros** (**% 13**), eta oso gertu **Antiguo-Ibaeta** (**% 12**), **Intxaurren** (**% 11**) eta **Altza** (**% 10**) ere.

Kolektibo horrek osatzen du **Gipuzkoako kultura-zaleen klub handiena** eta, **DK txartelaren** inguruan, **Donostia Kulturak** herritar guztiei kulturara iristeko modua errazteko bokazioa bateratzen du. Horren adierazgarri agerikoena izan zen **udal liburutegien sarean** izan zuen erabilera orokortua —liburuak maileguan hartzeko identifikazio-sistema gisa— eta, programazio artistikoaren kasuan, zaleen fidelizazioa, zozketen, prezio murriztuen eta bestelako promozioen bitartez. Zentzu horretan, **San Telmo Museoa**, **Victoria Eugenia Antzokiak**, **Antzoki Zaharrak**, **Imanol Larzabal Aretoa**, **Intxaurren Kultur Etxeak**, **Larratxo Kultur Etxeak** eta **Gazteszenak DK txartelaren** bitartez kudeatu zituzten beraien publiko ezberdinenganako hurbileko estrategiak.

Bazkideentzako online atalean egon ziren eskuragai abantaila guztiak; **2024an** , **57.000** lagun zeuden atal horretan erregistratuta. Kolektibo hori, gainera, erakundeak bultzatutako ekimenak ezagutarazteko eta zabaltzeko funtsezko eragilea izan zen.

Ikuskizunetara sartzeko aukeraz harago, bazkideek **% 10eko gutxieneko deskontua** izan zuten **Donostia Kulturaren** ikastaroetan, argitalpenetan eta beste zerbitzu batzuetan. Halaber, txartelak aukera eman zuen beste kultura- eta prestakuntza-erakunde batzuetan ere abantailak izateko, hala nola **Basque Culinary Center & LABe (Tabakalera)**, **Zinemaldian**, **Chillida Lekun**, **Jazzaldian**, **Aquariumen**, **San Telmo Museoa**, **Dock of the Bay** jaialdian eta **UPV/EHUn Udako Ikastaroetan**.

Bestalde, **San Telmo Museoa** areagotu egin zituen abantaila horiek **STM&DK txartel mistoarekin**; horrela, beste prestazio batzuk gehitu zituen, hala nola **museora doan sartzeko aukera**, inaugurazioetarako gonbidapenak, zozketak eta deskontu espezifikoak. **2025ean**, **2.000** lagunek osatu zuten kolektibo hori.





© Gorka Bravo



Hona hemen **Donostia Kulturako bazkideen 2025eko mapa:**

DK Bazkideak
129.332

Buletinak

Agenda eta buletinak
Asteko agenda (bazkideak)
Asteko agenda (ez bazkideak)

Izena emandakoak

57.090
21.194
3.419

Webgunean erregistratutakoak:
49.443




Donostia Kultura Bazkideak: donostiarrak


Donostiarrak: **97.368 (%75,29)**

Ez donostiarrak: **31.964 (%24,71)**


GUZTIRA: **129.332**



Bazkide donostiarrak auzoka



Bazkideak adin-tartearen arabera




Bazkideak sexuaren arabera



77.447
EMAKUMEAK




51.885
GIZONAK



Bazkideen garapena 2016-2025

Urtero izena emandako bazkide berriak



Bazkide kopuruaren garapena azken hamar urteotan

San Telmo Museoa

20  25





SAN TELMO Museoa

2025ean ere positiboa izan zen **San Telmo Museoa**ren urteko balantzea. Bisita kopuruari eta jardueretako parte-hartzeari dagokienez, aurreko ekitaldietakoen antzekoak izan ziren, **160.000ko** kopurua gaudituz eta azkeneko urteetako hazkundera finkatuz. Bazkide kopuruak hazten jarraitu zuen, poliki, baina etengabe, eta **2025eko** ekitaldia **2.000** bazkide baino gehiagorekin itxi zen.

Gabriela Cendoyaren argazki-liburuen bilduma erostea izan zen, zalantzarik gabe, **2025eko** mugarri nagusienetako bat; bilduma horrek **San Telmo Museoa**ren funtsak aberastu ditu. **2017az** geroztik museoko liburutegian kontsultatu ahal izan da bilduma horri **STM-GCBC Bilduma** izena eman zitzaion. 2025ean, **3.500 ale** dituen bildumak, eta jendearen eskura egoten jarraitzen duen; gainera, eutsi egin zitzaion formatu horretako artista egileekin egin ohi diren jardueri.

Bestalde, nabarmendu behar da berritu egin zela museoak **Gipuzkoako Foru Aldundiarekin Gordailua** ondare bildumen zentroaren inguruan duen hitzarmena; era horretan, indartu egin zen erakunde bien arteko harreman sendoa, eta harreman horri dagozkion hainbat alderdi arautu ziren, batez ere Gipuzkoako ondare higigarrien kontserbazioari dagozkionak, foru erakundeak egiten duen urteko ekarpena eta erakusketak programatzeko lankidetzaz barne.

Aldi baterako erakusketek dagokienez, lau erakusketa handi aurkeztu ziren **San Telmo Museoan**. Urtarrilean, **Ipuscua 1000 urte. Ipuscuatik Gipuzkoara. 1025-2025** inauguratu zen, herrialdearen jatorria eta bilakaera ezagutzeko aukera eman zuen erakusketa; **Memoriaren basoak**, artetik, memoria historikoaren garrantziari balioa ematen dion hausnarketa; **Lortegi bat soinean** erakusketak XVIII. mendeko jantzietan ageri ziren naturako motiboei buruzko ikuspegi interesgarria eman zuen eta, urtea ixteko, **Amazoniak. Antzinako etorkizuna** erakusketa egin zen, mundua ulertzeko eta naturarekin erlazionatzeko beste modu bat proposatu zuena; **2026ko** apirilera arte egongo da erakusketa bisitatzeko aukera.

Laborategi aretoko formaturik txikienak askotariko proposamenak ekarri zituen, hala nola **Landa arrazionalismoa**, **Artea abian** programa, **Natalia Suárezekin**; **Jazzaldiaren** errepasso bat, eta herri musika tresnen artisauen erakusketa bat, **Atzokoak gaur** programaren barruan.

Nabarmendutako obra programak, bestalde, **Miróren** pieza bat eta **Novelty kafetegiko** beirate bat hurbiletik ikusteko aukera eman zuen.

Sormenarekin eta ondarearekin lotutako jarduerak hartzen dituen **Erronkak** programaren barruan dagoeneko online bidezko **400 hitzaldi** baino gehiago egin zen, jendeari irekita-, argazki-liburuaz gain, askotariko hitzaldiak, tailerrak, topaketak eta aurkezpenak batzen zituen programazioa antolatu zuten.

Gainera, museoak ondarearen inguruan lanean jarraitu zuen; alde batetik, objektuen kontserbatu eta zaharberrituta eta, bestetik, erosketen eta dohaintzen bitartez, pieza berriak eskuratuta.

2025ean, gainera, **Fermin Leizola Aranzadiko** kidea eta **San Telmo Museoaren** laguntzaile aparta agurtu genuen, eta museoak omenaldia egin zion, **Etnografia Jardunaldien** bezperan egindako ekitaldi batean.



Amazoniak. Antzinako etorkizuna erakusketa © Iker Azurmendi

ONDAREA

BILDUMAK / DOKUMENTAZIOA

2025ean, euskal kulturarekin eta gizartearekin lotura duten **273 objektu eta artelan** eskuratu ziren guztira, erosketa edo dohaintza bidez; horiei gehitu behar zaie dohaintza bidez iritsi zen postalen eta kartoi fotografikoen bilduma bat, **Joxalberto Andrés Zurutuzarena, 10.000 ale** baino gehiago dituen, eta **Altzerri galeriaren** agiritegiak egindako dohaintza, kartekez eta argazkiz osatutako funts garrantzitsu bat, orain museoaren bildumaren parte dena.

Eskuratu zen materialaren artean, hainbat artistaren lanak zeuden, hala nola **Remigio Mendiburu, Esther Ferrer, Mari Paz Jiménez, Marta Marugán, Iñaki Gracenea** eta **Ixone Sádaba**, eta aipatzekoa da **García Ramos** familiak egindako dohaintza, hainbat egileren lanez osatua: **Alejandro Tapia, Aurelio Arteta, Ricardo Baroja** eta **Julián de Tella**che, besteak beste.

Urtean zehar, bildumako **51 pieza** irten ziren museotik mailegu gisa, hainbat erakundek antolatutako **aldi baterako 11 erakusketetara**. **San Telmo Museoa**k ekoiztutako aldi batera erakusketetan parte hartu zuten piezak gehitu zitzaizkien aurrez aipatutakoei. Museoaren bildumako **12 pieza** jarri ziren ikusgai **Ipuscua. 1000 urte** erakusketan, eta **21 pieza**, berriz, **Lorategi bat soinean** erakusketan.

Gordailua zentroan, ohiko erregistro-lanez, berriki eskuratutako bildumak atontzeko, bildumei argazkiak egiteko, aurrez aurreko kontsultei

erantzuteko eta maileguan lagatuko bildumak edo museoaren erakusketa iraunkorrerako obrak mugitzeko lanez gain, **Gordailua** zentroaren eta **EMSIME** plataformaren datu-baseen artean datuak automatikoki batetik bestera eramateko aukera emango duten web zerbitzuak ezartzeko proiektuarekin jarraitu zen. Gainera, **13.000 erregistro** baino gehiago irauli ziren, batez ere argazki-fondoak, **Gordailuaren** datu-basera. Gordailuetan bildumak berrantolatzekeo proiektu bat ere abiarazi zen, materiala hobeto kontserbatzeko, eta espazioa hobeto aprobetxatzeko.

Bildumen artxiboaren eta dokumentazioaren esparruan, **Altzerri Galeriaren** eta **Tomás Hernández Mendizabal** artistaren funtsak erregistratu ziren. Aurreko urtean bezala, azkeneko urteetan museoan sortutako paperezko dokumentazioa berrikusteko, garbitzeko eta erregistratzeko kanpaina egin zen, **Ereiten Kultur Zerbitzuak** enpresarekin lankidetzan, baita beste kanpaina bat ere, paperezko dokumentazioa berrikusteko eta berregokitzeko.

Bestalde, handitu egin zen museoak **EMSIME** sistemaren webgune publikoan duen bildumen katalogoan herritarrentzako ikusgai dituen bildumen erregistro kopurua; **14.627** daude ikusgai orain.


Kanpo-kontsultako zerbitzuari dagokionez, dokumentazioa sortu zuten **80 kontsultari** baino gehiagori erantzun zitzaion, eta **irudiak erreproduzitzeko 40 eskabideri** baino gehiagori.



Gota de agua. María Cueto, 2016 © Oskar Moreno



Modular. Iñaki Gracenea, 2019 © Iker Azurmendi



Zenbaki lehenen poema #40 (detalle). Esther Ferrer, 202



KONTSERBAZIOA ETA ZAHARBERRITZEA

2025. urtean zehar, museoaren funtsak zaharberritzeko eta kontserbatzeko lanekin jarraitu zen; horretarako, hainbat bildumatako **117 piezatan** esku hartu zen, hainbat materialetakoak: papera, metala, mihisea, etab.

Nabarmentzekoa da, bestalde, aurrera jarraitu zela **arma-bildumen** kontserbazio-lanekin eta, halaber, egokitu egin zirela museoak dohaintzan jasotako **10.000 postalez osatutako bildumaren** kontserbazio-baldintzak.

XVIII. mendeko *Kristoren zigorkatzea*

piezarena izan zen zaharberritze-lanen adibide nabarmen bat. Kobre gaineko olio honek berezitasun ugari zuen, zaharberritze-prozesuari esker berreskuratu ahal izan zirenak. Gainera, obra horri buruzko ikerketa bat jarri zen abian, **Ana Diéguez** arte-historialariarekin lankidetzan.

2025ean, Argazkiak Kontserbatzeko Jardunaldien V. edizioa egin zen, **Kutxa Fundazioarekin** batera antolatu zena; esparru profesionalari zuzendutako proposamen gisa finkatu zen, eta interes handia piztu zuen.



ERAKUSKETAK

ERAKUSKETA IRAUNKORRA

Erakusketa iraunkorra sendotu egin zen, modu egonkorrean egiten den ikerketari eta lanari esker, eta **San Telmo Museoa**ren oinarrietako bat izan zen, baita beste museo batzuetarako erreferentzia argia ere. Urtean zehar, ohikoa den bezala, beste erakunde batzuei laga zitzaizkien erakusketa iraunkorreko piezak, batez ere aldi baterako erakusketetan parte hartzeko. Hala, **15 erakunderi 57 pieza** laga izanari esker, **San Telmo Museoa**ren bildumako piezak hainbat espaziotan erakutsi ziren, hala nola **Kutxan, Artiumen, Reina Sofía museoan, Prado museoan, Sevillako Arte Ederren museoan** eta **MAPFRE** fundazioaren **Madrilgo** eta **Dallaseko** aretoetan, besteak beste.



ALDI BATERAKO ERAKUSKETAK

2025ean, lau erakusketa handi aurkeztu ziren **San Telmo Museoa** . Urtarrilean, ***Ipuscua 1000 urte. Ipuscuatik Gipuzkoara. 1025-2025, Gipuzkoako Foru Aldundiaren*** lankidetzarekin. **Iosu Etxezarraga** izan zen erakusketaren komisarioa, eta hori izan zen lurraldearen izen hori dokumentu batean jasota geratu zenetik igaro diren **1.000 urteak** oroitzeko abiapuntua, eta **25.000 bisita** inguru jaso zituen.

Aurrerago, ***Memoriaren basoak*** erakusketak memoria historikoak duen garrantziaren balioa azpimarratu zuen, arte garaikidetik egindako hurbilketa batekin, **Franco hil zela 50 urte bete ziren urtean**. **Mabel Tapia** eta **Mira Bernabé** izan ziren erakusketaren komisarioak, eta **15.000 bisita baino gehiago** jaso zituen.

Udan, **Museo del Traje-rekin** lankidetzan antolatutako ***Lorategi bat soinean*** erakusketa bikainak **XVIII. Mendeko** jantziek zituzten naturako motiboei buruzko ikuspegi interesgarria eman zuen eta, gainera, erakunde bien piezak batera erakusteko aukera eman zuen. **Gema Batanero** izan zen erakusketaren komisarioa, eta **35.000 bisita** baino gehiago izan zuen.

San Telmo Museoa Bartzelonako **CCCB - Centre de Cultura Contemporània** zentroarekin lankidetzan antolatuta eta proposamen bikain batekin itxi zuen urteko erakusketa-programazioa: ***Amazoniak. Antzinako etorkizuna***; **Claudi Carreras** izan zen komisarioa, eta mundua ulertzeko eta naturarekin erlazionatzeko beste modu bat proposatu zuen erakusketak. ***Amazoniak. Antzinako etorkizuna*** erakusketarekin batera, jorratutako gaietan sakontzeko aukera eman zuten jarduera ugari ere antolatu zen.

Bestalde, ***Laborategia aretoak***, askotariko proposamenez betetako programazioa izan zuen: besteak beste, ***Landa arrazionalismoa*** argazki-erakusketa; sorkuntza garaikide hurbilekoena, ***Artea abian*** programaren barruan, **Natalia Suárezekin**; ***Jazzaldiak*** bere **60 edizioetan** utzitako irudien errepasoa; eta herri musika tresnen artisauen erakusketa, lehen aldiz areto honetara iritsi zen ***Atzokoak gaur*** programaren barruan.



Memoriaren basoak erakusketa © Iker Azurmendi



Eszena iluna. Bera esna erakusketa



Lorategi bat soinean erakusketa © Iker Azurmendi



Amazoniak. Antzinako etorkizuna erakusketa

GURE PROIEKTUAK

2024an sortu zen **Nabarmendutako obra** programari esker, **Joan Miró** artistak **Tête** eskulturarako egindako modelo hurbiletik ikusteko aukera egon zen, bai eta **Novelty kafetegiko, XX. mende hasierako** beirate bat ere, **Mauméjean etxeak** fabrikatua.

Bestalde, **Museo Bikoitza** programaren barruan, **azarora arte** egon zen **Maddi Barber** artistaren **Harria eta poltsa** instalazioaz gozatzeko aukera.



ERRONKAK

Gizarte garaikidea kezkatzen duten gaiak ardatz dituen programazio-ildo horren barruan, besteak beste, **feminismoarekin, giza eskubideekin, Europarekin, gerrekin** eta **faxismoarekin** zerikusia duten gaien inguruan programatzen jarraitu zen, etengabe erreparatuz gaurkotasunezko gaiei. Ikusmin handiena piztu zuten hitzaldietako bat **Mikel Ayestaran** kazetariak **Kayed Hammad-ekin** batera egin zuena izan zen; bete egin zuten **Antzoki Zaharra**.

Ohi bezala, programazio hori garatzeko, hainbat erakunde eta eragilarekin elkarlanean jardun zuen **San Telmo Museoa**, hala nola **EHU - Euskal Herriko Unibertsitatea, Galde, Jakiunde, Globernance, DIPC, Ares** eta **Donostiako Udala** bera izan zituen bidaide.



Harria eta poltsa, Maddi Barber

HAU

2025ean, San Telmo Museoa eta **Bitamine Faktoriak HAU - Euskal Herriko objektu tradizionalen diseinu lehiaketaren zortzigarren edizioa** antolatu zuten, ohiko kolaboratzaileekin (**Mondragon Unibertsitatea, Aranzadi Zientzia Elkarte, EIDE - Euskal Diseinuaren Elkarte**), eta **Lufe** enpresarekin batera.

Alde batetik, tradizioaren inguruko ikerkuntza sustatu zuen deialdiak, erabilerak eta ohiturak ezagutzeko eta berreskuratzeko; bestetik, objektu tradizionalak diseinu garaikidetik egokitzea, berritzea eta berrinterpretatzea bultzatu zuen. Azkeneko edizio horretan, **ontzitegia** izan zen hautatutako pieza, zehatzago esanda, *manka* deritzona, eta **35 proiektu** aurkeztu ziren lehiaketara.



HAU, sari banaketa

ATZOKOAK GAUR

Atzokoak gaur. Lanbide tradizionalak egitasmoaren **2025eko** ardatza izan zen euskal musika tresna tradizionalen artisauak (*txistua*, *txirula*, *alboka*, *dultzaina* eta perkusioa). Musika tresnak egiten dituzten hainbat artisauk hartu zuen parte proiektuan; nabarmentzekoa da **Herri Musikaren Museoren** laguntza eta, bereziki, **Juan Mari Beltránena**.

Azkeneko edizioan, **Laborategia aretoan** egin zen erakusketa bat, ohi baino iraupen luzeagokoa eta, ohiko lekuan, **klaustroan**, **Aste Santuan** garatu zen programazio espezifiko.



© Iker Azurmendi

HEZKUNTZA

Hezkuntzaren arloan, **ikasleei**, **irakasleei**, **aisialdi-taldeei**, **talde sozialei**, **turistei**, **enpresei** eta **erakunde**ei zuzendutako bisita gidatuak egin ziren.

2025ean, **9.900 lagunek** baino gehiagok hartu zuen parte bisita gidatuetan, beraz, jaitsiera txiki bat gertatu zen guztizko kopuruan. **Ikasle-taldeak** (% **80,4**) izan ziren museora joan ziren talde gehienak. Neurri txikiagoan, bisitak egin zituzten **talde sozialek** edo **gizarteratze-kolektiboek**, eta **touperadoreek**, **erakundeek** edo bisita modu autonomoan egin zuten **partikularren taldeek** ere.

Urtean zehar, **hiru kanpaina** egin ziren **hezkuntza-buletinaren** bitartez, **urtarrilean**, **maiatzean** eta **irailean**, hain zuzen ere, hezkuntza-eskaintza, aldi baterako erakusketak, jarduerak eta gazteentzako eskaintza ezagutzera emateko helburuz.

Ipuscua. 1000 urte, **Memoriaren basoak**, **Lorategi bat soinean** eta **Amazoniak. Antzinako etorkizuna** aldi baterako erakusketetan, **bisita gidatuak** eta **tailerdun bisitak** eskaini zituzten, ikasleen parte-hartze aktiboarekin. Gainera, **Ipuscua. 1000 urte** erakusketak **Gipuzkoako Foru Aldundiaren** laguntza jaso zuen, museoa bisitatu zuten **DBHko laugarren mailako** ikasleen garraiorako, nabarmen handituz lurraldeko ikasleen asistentzia.

Halaber, museoren **Hezkuntza** departamentuak, **talde sozialekin** lanean jarraitu zuen, bisita gidatuko eta prestakuntzako espazioak eskainiz **SOS Arrazakeria** eta **Elkarrekin Kooperatiba Txikia** erakundeekin lankidetzan. **Prestatzaileen prestakuntza** ere gauzatu zen **2025ean**, **eragile sozialei** eta **turismoaren sektoreko profesionalei** zuzenduta, talde sozialei museora modu autonomoan joateko bidea errazteko helburuz.

Azkenik, prestakuntza-ekintza bat jarri zen martxan **Gertu Kultura** programarekin eta **Gautena** elkartearekin elkarlanean, **autismoa duten pertsonen familiek** eta autismoa duten pertsonen beraiek museorako sarbide errazagoa izan dezaten lortzera bideratuta.



JARDUERAK

Museoan **2025ean** egindako aldi baterako erakusketek bat egin zuten **San Telmo Museoa** berezko ezaugarri dituen aniztasunarekin eta zeharkakotasunarekin, hainbat gai jorratuz, hala nola artea, gai sozialak, zientzia, pentsamendua eta hiri-garapena. Halaber, jarduera-programa zabal eta askotariko batekin osatu zen erakusketa-eskaintza; horien artean, topaketak, hitzaldiak, bertso-saioak, musika-proposamenak eta zinema-proiektzioak nabarmendu ziren.

Museoaren bildumak ezagutaraztera bideratutako ondarearen inguruko jarduerak izan ziren programazioaren ardatzetako bat. Esparru artistikoan, **2025ean** finkatu zen **Nabarmendutako obra** programaren barruan egindako bisita gidatu eta hitzaldi sorta nabarmendu zen. **Museo Bikoitza** programarekin lotuta ere, bisita gidatuak, topaketak eta proiektzio-saio bat egin ziren. Bestalde, lanbide tradizionalak ezagutaraztea helburu duen **Atzokoak gaur** (*De ayer y de hoy*) ekimenaren barruan, musika-tresnen fabrikazioa ardatz zuen erakusketa-programazio zabala eskaini zen. Aurreko edizioetan bezala, **Aranzadi Zientzia Elkartearen Arkeologia eta Etnografia Jardunaldietan** ere kolaboratu zuen museoak.

Halaber, **Ondarearen Europako Jardunaldietan** hartu zuen parte **San Telmo Museoa**; jardunaldion gai nagusia arkitektura-ondarea izan zen, museoari aukera paregabea eman ziona arlo horretan duen aberastasuna ikusarazteko.

Kolaborazioei dagokienez, **Mugak Arkitekturako Bienalaren 5. Edizioa** nabarmendu zen, arkitektura utopikoak gai nagusi izan zituena. Testuinguru horretan, eta **Oteiza Fundazioarekin** batera, **Jorge Oteizak** esparru horretan garatutako proiektuei buruzko hitzaldiak antolatu ziren, baita familientzako tailerrak ere. Halaber, **Donostiako Arkitektura Goi Eskola Teknikoari** laguntza eta espazioa eskaini zitzaizkion **Chrysalis** izeneko instalazio esperimentalak San Telmoko elizan muntatu eta erakusgai izateko.

Sorkuntza garaikidera eta, garaikidetasunetik, ondarearen berrirakurketa sortzailerara bideratutako proiektuak dagoeneko finkatuta dauden lan-ildoak izan ziren, eta aurrez aipatutako sentsibilizazio- eta zabalkunde-lanaren osagarri izan ziren. Programa horietako batzuek, kontzeptuari eta alde formalari dagokionez, diziplina ezberdinen artean zebiltzan diskurtso berriak planteatu zituzten, begirada berrituak bultzatuko zituzten eta gizartearen askotariko sentsibilitate eta interesetara hurbilduko ziren formatuak sortuz.



Arkeologia eta Etnografia Jardunaldiak, Aranzadi Zientzia Elkartea



Musikagileak



Bai Euskarari Sariak



Fermin Leizaola omenaldia

Ekimen horien artean, nabarmentzekoa da **Bitamine Faktoriarekin** lankidetzan antolatutako **Euskal Objektu Tradizionalen Diseinu Lehiaketan** proposatutako ontzitegi tradizionalaren berrinterpretazioa.

Musikaren esparruan, museoan emanaldiak egin zituzten, besteak beste, **Juan Mari Beltrán** laukoteak, **Iñar Sastrek** eta **Mixel Etxekopar-ek, Donostiako Udal Txistulari Bandak** eta **Kalakan & Berçaits** anaiek. Bereziki garrantzitsua izan zen **Musikagileak Euskal Herriko Musikagileen Elkartearen** eta **San Telmo Museoaren** arteko lankidetzeta. Horri esker, musika garaikideko hiru kontzertu eta **Musi-meet** topaketa egin ziren. Museoa oinarri duen musika-proiektu tematikoen lehiaketa, musika garaikidearen sorkuntza eta museo-edukiak lotzen dituenen, **Francisco Domínguez** konpositoreak irabazi zuen **2025ean, Memoria Sonans** obrarekin; **San Telmo Museoan** egingo da obra horren estreinaldia.

Dantzaren esparruan, eta **Ipuscua 1000 urte** programaren barruan, **Juan Antonio Urbeltzek** 1991n sortutako **Muriska** ikuskizunaren bi emanaldi egin ziren San Telmoko elizan, **Argia Dantza Taldearen** eskutik. Halaber, **Lasala** konpainiak emanaldia egin zuen **Musika Hamabostaldiaren** inaugurazio-ekitaldian, **Scène nationale du Sud-Aquitaine** erakundearekin elkarlanean garatutako **Mitologiak dantzan!** proiektuarekin.

Beste jarduera batzuen artean, **Mari Paz Jiménez** eskainitako sinposioa, **Bai Euskarari Sariak** banatzeko ekitaldia, eta **Teresa del Valle** eta **Fermin Leizaola** omentzeko ekitaldiak egin ziren.



Lorategi ilustratu baten geometria sekretua, Jaime de los Ríos © Iker Azurmendi

Museoak ikaskuntza ez formalerako eta kultura-aisialdirako baliabide gisa dituen aukerak arakatzen jarraitu zuen, batez ere, ikuspegi ludiko batetik, sormena garatzera bideratutako familia-tailerren bitartez; **2025eko** edizioan, gainera, oso aberasgarriak izan ziren.

Berretsi egin zen, gainera, **San Telmo Gaua** egonkortu egin dela hiriko kultura-eskaintzaren barruan erakarpen handiko jarduera gisa. **2025ean**, eta **Lorategi bat soinean** erakusketarekin lotuta, **Jaime de los Ríos** artistak tenore horretarako propio sortutako instalazioa aurkeztu zen Etxeberri kaperan, **Lorategi ilustratu baten geometria sekretua** izenekoa.

Museoak bere inguru hurbileneko proiektuekin duen harremanari dagokionez, eutsi egin zitzaion hiriko jaialdi nagusiekin dituen lankidetz-formulei, hala nola **Musika Hamabostaldiarekin, Jazzaldiarekin Zinemaldiarekin**. Halaber, beste kultura-erakunde batzuekin kolaboratu zuen, besteak beste: **Bagera elkarte, Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskola** eta **Francisco Escudero Kontserbatorioa**. Lurraldeko erakundeekiko harremanei dagokienez, aipatzekoa da museoak **Animadeba** eta **Laburbira** proiektioetan kolaboratzen duela.

Euskararekin lotutako lan-ildoan ere sektoreko eragileekiko lankidetzazabala sustatu zen, eta publiko espezializatuari zein orokorrari zuzendutako programazioa eskaini zuen. Ohiko proiektuez gain —**Galtzagorri elkarte, Bagera elkarte, Euskarabildua, Nortasuna Sarean**— aipamen berezia merezi dute, edukiei eta formatuei dagokienez duten garrantziagatik, **Etxepare Institutuarekin** lankidetzan, nazioarteko irakurleei zuzendutako tailerrak eta **UPV/EHU** antolatutako **Bikaintasuna Euskal Ikasketetan XV: nola kontatzen dugu euskara?** udako ikastaroan izandako parte-hartzeak.



Baptiste Trotignon, Jazzaldia © lolo vasco

LIBURUTEGIA

Irail erdialdeaz geroztik, museoa izan zen **STM-GCBC argazki-liburuen bildumaren** jabea; horrela, bilduma hori **San Telmo Museoko** liburutegian gera zedin bermatu zen, eta argazki-liburuen bilduma bat duen **Euskadiko** lehenengo espazioa bihurtu zen. **3.500 ale** inguruk osatzen du bilduma, eta guztiak egon ziren jendearentzako erabilgarri, sarrera doakoa eta librea izanik.

Askorentzat, **argazki-liburua** izan zen museorako sarbidea, batez ere **gazteentzat eta heldu gazteentzat**, eta hazten joan zen liburutegira bilduma horiek kontsultatzera joan zirenen kopurua. Sendotu egin zen **ikastetxeekiko** harremana; haiek uste dute argazkia ikasleentzako balio handiko baliabidea dela; hala, **2025ean** behin baino gehiagotan egin zituzten bisita bereziak **Mondragon Unibertsitatearen Ikus-entzunezko Komunikazio Fakultateko** ikasleek, **Donostiako Usandizaga institutuan** ematen den **Publizitate Grafikoko Goi Mailako Ziklokoek**, Bartzelonako **L'Observatori-koek** eta **Bilboko Black Kamera** eskolakoek. Halaber, Donostiako **PhotoBook Klub-aren** hainbat saio egin ziren museoan urtean zehar.



Argazki-liburuari ikusgarritasun handiagoa emateko helburuz, bilduma hori **katalogatzen** jarraitu zuen museoak, Interneten kontsultatu ahal izan dadin, eta **urteko programazioa** garatu zen, bildumako artistak gonbidatuz: **Cristobal Hara Argazkilaritza Sari Nazionalaren irabazlea, Miguel Leache, Idoia Unzurrunzaga, Christopher Gregory-Rivera, Clemente Bernad, Pablo López** eta **Jose Manuel Juan Soto**.

2025ean, argazkilariei zuzendutako tailer bat ere antolatu zen, **Valentino Barachini** argazkilaria eta editoreak eman zuena, baita beste hainbat tailer ere, argazki-liburuaren unibertsora publiko berriak erakartzera bideratutakoak, **Nagore Legarretaren** eskutik. Urtea amaitzeko, **Gabriela Cendoyak Amazoniak. Antzinako etorkizuna** erakusketarekin lotutako argazki-liburuen *book-jockey* bat eskaini zuen.

Halaber, bildumako zenbait argazki-liburu jarrai ziren ikusgai **Memoriaren basoak** eta **Landa arrazionalismoa** erakusketetan.



STM-GCBC bilduma eta liburutegiaren beste funts garrantzitsu batzuk jendearen eskura jarri izanari esker, eutsi egin zitzaion aurreko urteko bisitari kopuruari; kontuan izan behar da aurreko urtean % **70** hazi zela kopuru hori.

Bestalde, **2025. urtean, Juan Antonio García Marcos arte-kritikariaren dokumentazio-funtsa** jaso zuen liburutegiak dohaintzan, **1.200** agiriz baino gehiagoz osatua; funts hori lagungarria izango da **euskal arteari** y **Gipuzkoako kultura-jarduerari** buruzko ikerketara-lanerako.

Haien erabilgarritasuna errazteko helburuz, digitalizatu egin ziren **Maya Aguiriano** arte-kritikariaren eta **Mari Paz Jiménez** artistaren dokumentazio-funtsak, bai eta **Donostiako Echeberria Galeriaren** erakusketen katalogoen artxiboa ere. Era berean, liburutegiaren esku geratu zen **Carmen Díez Minteguik, Begoña Gorospek** eta **Miren Garmendiak Donostiako** feminismoari buruzko beraien ikerketan erabilitako dokumentazio digitalizatua; ikerkuntza-lan horren emaitza gisa, **Donostiako mugimendu feministaren lehen urteen kronika (1976-1982)** liburua argitaratu zuten.

Azkenik, **Dokumentazio Zentroak** museoaren bildumei eta bertan egindako erakusketei laguntza **bibliografikoa eta dokumentala** ematen jarraitu zuen. Kasu guztietan lan egin zen **San Telmo Museoko** lantalde teknikoarekin lankidetzan, agiriak eta informazioa bilatzen. Nabarmentzekoa da funtseko pieza garrantzitsu bat, **Manuel Larramendiren *Diccionario trilingüe*** hiztegia, **1745. urtekoa, *Ipuscua. 1000 urte*** erakusketan egon zela ikusgai, zaharberritu ondoren.

Ildo horretan, **Zarauzko Photomuseum** museoarekin ere kolaboratu zuen San Telmok, ***Leoren bila*** erakusketan, eta **Aieteko Kultur Etxeko Liburutegiarekin, Ignacia Zabalo 'Nor Nai'** marrazkilariaren omenez egindako erakusketan.

Azkenik, **funts zaharreko** hainbat ale zaharberritu ziren, besteak beste: ***Nueva recopilación de los Fueros, Privilegios, buenos usos y costumbres, Leyes y Ordenanzas de la muy Noble y muy Leal Provincia de Guipúzcoa*** (Tolosa, Bernardo de Ugarte, 1696-1697) eta ***De primogeniorum hispanorum origine, ac natura, libri quatuor***, **Ludovicus de Molinarena** (Lyon, Anisson & Posuel, 1749).



ARGITALPENAK

Museoak bi argitalpen editatu zituen **2025ean**. Batetik, **Memoriaren basoak** erakusketaren katalogoa, **Mabel Tapia**, **Maialen Lujanbio**, **Jaqueline Urla** eta **Santi Erasoren** testuekin. Bestetik, Natalia Suárez Ortiz de Záratearren **Eszena iluna. Bera esna** erakusketaren katalogoa, **Nadia Barkateren** testuekin.

45

URGULL

Urgull Mendiko monumentu-multzoak **Donostiako ondarea** eta **historia** ezagutzeko gune pribilegiatua izaten jarraitu zuen. Mendiko ondare-elementuak hiriaren iraganaren lekuko dira. Monumentu-multzoa, gainera, leku pribilegiatuan dago, eta egungo hiriaren ikusmira bikaina eskaintzen du. **De la Mota Gazteluko** garai bateko kuarteletan dagoen **Donostiari begira** erakusketak osatu zuen eskaintza, hiriaren historiari egindako errepassoarekin, modu hurbilean eta atseginean kontatuta.

Ohikoa den bezala, **turistak** izan ziren bisitari gehienak, % **90**; horietatik % **14,73** Estatukoak, eta % **26,28** Frantziakoak.

Publikoaren ezaugarriari erreparatuz gero, **oporaldietan**-uztaila, abuztua eta Aste Santua-zentratu zen eskaintza **2025ean, astean sei egunez irekita**, baita **asteburutan ere, maiatzetik urrira**. Ordu-tegi horretatik kanpo, **aurretiaz hitzartutako bisita gidatuak** eskaini ziren, batez ere **ikastetxetako bisitariekin**.

68.647 lagunek bisitatu zuen erakusketa, gehienek **uztailean eta abuztuan**.

KOMUNIKAZIOA

2025. urtean, komunikazio departamentuak publikoarekiko harremanetarako eta, **prentsa-oharren, publizitatearen** eta hainbat **komunikazio-eta promozio-ekintzaren** bitartez, museoaren proiektuak eta jarduerak ezagutzera emateko kanalak irekita mantentzeko lanean jarraitu zuen.

2025ean, museoaren webgune berria sortzeko lehiaketa egin zen, **Adimedia** enpresari esleitu zitzaion, eta 2026. urtean zehar garatuko du.

172.228 ingurukoa izan zen webgunearen erabiltzaile kopurua; horrek erakusten du kopuru horrek beherakada izan duela, webguneen kontsultan **adimen artifizialaren** erabilera handitu izanaren ondorioz.

Museoak **25.800 jarraitzaile** izan zituen sare sozialetan; **Instagram** eta **YouTube** nabarmendu ziren. Azkeneko plataforma horretan, **69 bide berri** igo ziren **2025. urtean** zehar; horietatik **60zuzeneko hitzaldiak** izan ziren.

Bestalde, **9.000 harpide** inguruk jaso zituzten museoaren **informazio-buletinak**. Astero, **4.000 lagunek** baino gehiagok jaso zuten museoak antolatutako jarduerari buruzko informazio eguneratua.



Publizitateari dagokionez, publizitate-iragarkiak eta *spot-ak* txertatu zituen museoak hainbat komunikabidetan, batez ere museoaren babesle edo ongile diren erakundeekin egindako lankidetzahitzarmenen bitartez —**EITB, El Diario Vasco, SER, Berria, Noticias de Gipuzkoa, Gara, Naiz, 11 Telebista** eta **Argia**— eta, batik bat, **aldi baterako erakusketei** eta **bazkide-kanpainei** zabalkundea emateko. Halaber, komunikabide espezializatu eta orokorretarako zein Interneterako **publizitate-plan** bat egin zuen museoak, ikus-entzule potentzialen artean bere jardueraren zabalkundea areagotzeko.



Kultur Etxeak

2025
DK
memoria





On, Musikagela Fest © Josu Artola

48

Kultur Etxeak

Kultur etxeen sarea

Kultur etxeen sareak funtsezko eginkizuna betetzen jarraitu du Donostiako eta hiriko auzoetako kultura-dinamikan. Elkartzeko eta sortzeko guneak diren aldetik, kulturaren sustatzaile izaten jarraitu zuten, herritarren eta erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetzaz indartuz.

2025. urtean zehar, hiriko kultura-jardueraren ardatz nagusi gisa betetzen duten eginkizuna finkatu zuten kultur etxeek, gertutasunaren aldeko apustuari eutsiz eta tokiko sorkuntza bultzatuz. Urteko datuek erakutsi zuten urte oso oparoa izan zela, arrakasta handiko ekitaldiekin eta publikoaren erantzun bikainarekin.

2025eko ekitaldi nabarmenenak

- **Egia Kultur Etxeak** antolatutako **Glad is the Day** jaialdiak emaitza paregabeak lortu zituen. 15.000 lagun baino gehiago bildu zen Egia auzoan eta inguruetan, musika, jarduera anitzak eta giro berezia nagusi izan ziren egunetan; horrenbestez, kultura-egutegiko ekitaldi gogokoenetakoa bihurtu da jaialdia.
- **Literaktum** literatura-jaialdiaren 2025eko leloa izan zen *Niaren oihartzunak: bakardadea eta nortasuna aro globalean*, eta espektatiba guztiak gainditu zituen, 8.200 partaiderekin. Maila handiko egitarau anitz bati esker, berriro piztu zuen publiko leial baten interesa, eta berretsi egin zuen hiriko kultura-erreferente gisa duen lekua.
- **Poltsiko Antzerkia** programak eutsi egin zion publiko harrizteko eta gozamenarako aukerak eskaintzeko helburu nagusiari. Horretarako, taberna eta hurbileko espazioetara eraman zituen arte eszenikoak, eta harrera oso ona izan zuen publikoaren aldetik.
- **Egia Kultur Etxearen dantza eta zirku** zirkuituek arrakasta handia izaten jarraitu zuten, berrikuntza eta kalitate handiko ikuskizunak konbinatuz.

Ekitaldi ikusgarrienetatik harago, gainerako ekitaldi eta jaialdiek kultur etxeen sarearen berezko izaera eta kalitate-maila mantendu zuten.

Ikastaroak eta zerbitzuak

2025. urtea oso positiboa izan zen Donostia Kulturako kultur etxeek eskaini zituzten ikastaroetarako. Matrikulazio-kopuruak marka historikoa lortu zuen, 10.240 izen-ematerekin. Aurreko urteko datuarekin alderatuta (9.653), ia % 6ko igoera izan zen; hortaz, interes handia erakutsi zuten herritarrek eta handia izan zen parte-hartzea ere.

Bisitak eta parte-hartzea

Kultur etxeek herritarren parte-hartzearen erreferente izaten jarraitu zuten, urte osoan zehar milaka jarduera antolatuta, eta beraien gertutasuna eta publikoak espazio horietan duten konfiantza berretsiz.

Oro har, 2025a urte oso positiboa izan zen Donostiako kultur etxeetarako. Eragile guztien konpromisoari eta lanari esker, kalitatezko eta hurbileko kultura-espazio bat mantendu ahal izan zen, herritarren interes eta premietara egokitutakoa.

Ikuskizunak komunikatzeko prozedura

Azkenik, ikuskizunak komunikatzeko prozedura aipatu behar dugu. Donostia Kulturak kudeatzen dituen izapiddeen barruan, **Kultur Ekintzako** zerbitzuak establezimendu publikoetako formatu txikiko ikuskizunetarako komunikazioak kudeatu zituen, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legean arautzen denari jarraikiz. 410 eskabide izapidetu ziren 2025ean. Ikuskizunetarako komunikazioak Hirigintza zerbitzuak kudeatu zituen arren, Kultur Ekintzak bideratu zituen eskabideak, herritarrei prozesua errazteko helburuz.



2025eko IKASTAROAK

2025a arrakasta handiko urtea izan zen **Donostia Kulturako** kultur etxeek eskainitako ikastaroetarako; errekor historikoa lortu zuten, 10.240 matrikularekin, 2025. urte osoan. Aurreko urteko zifrekiko (9.653 matrikula) ia % 6ko igoera horrek herritarrek ikastaroei egin dieten harrera bikaina azpimarratzen du.

Matrikulazio-estrategia finkatua

2024-2025 eta 2025-2026 matrikulazio-kanpainek euskarazko ikastaroak lehenesteko diseinatuta dagoen bi txandako sistema finkatzeko balio izan zuten. Eredu horri esker, nabarmen igo zuen euskarazko ikastaroetako parte-hartzea; 184 ikastaro egin ziren euskaraz 2024an, eta 211 2025ean. Gaztelerazko ikastaroek ere gora egin zuten: 390 ikastaro 2024an, eta 410 2025an. Ikuspegi horrek, eskaintzaren banaketa optimizatzeaz gain, ikasle berriak sar zitezten ere lagundu zuen.

Prestakuntza-eskaintza zabalagoa

2025eko iraileko kanpainan, 604 ikastaro eskaini zituen guztira **Donostia Kulturak**, eskaintza elebidun batean; horietatik 326 bete egin ziren. Emaiza horrek erakutsi zuen erakundea konprometituta dagoela gaur egungo premiei erantzungo dien programazioa osatzearekin, eta hizkuntza-inklusioko zein gaiei dagokien aniztasuna sustatzearekin.

Euskararen sustapena

Nabarmentzekoa da finkatu egin zirela lankidetzazko ingurune inklusibo batean euskararen erabilera sustatzeko diseinatutako **Belarriprest** zigilupean antolatutako ikastaroak. Ikasturtean zehar, bost talde espezifikoko sortu ziren erredu horri jarraituz, ikastaroek hizkuntza- eta kultura-sustapenerako tresna gisa betetzen duten eginkizuna finkatuz.

Eskarien joerak

Osasunarekin lotutako jarduerak matrikuletan nagusi izaten jarraitu zuten arren, kulturaren arloko ikastaroetako izen-emateek ere igoera nabarmena izan dute. Horrek erakutsi zuen herritarrek gero eta interes handiagoa dutela prestakuntza-arlo berriak arakatzeko eta beraien kultura-ezagutza aberasteko.

Balantze positiboa

Oso modu positiboan baloratu zuten **Donostia Kulturako** arduradunek 2025-2026 ikasturterako matrikula-kanpainaren arrakasta, eta nabarmendu zuten onura ugari izan dituela bi faseko matrikulazio-ereduak. Ikuspegi horrek, ikastaroen antolaketa eta eskuragarritasuna hobetzeaz gain, kultur etxeetan ikasturtea sendotasunez hastea ahalbidetu zuen.

Ibilbide honekin, **Donostia Kulturak** berretsi egin zuen hirian kultura- eta prestakuntza-eskaintzan erreferente gisa duen posizioa, urtez urte herritarren premietara eta eskarrietara egokituz.

**IKAS
TARO
AK** 2025-2026
CURSOS

POLTSIKO ANTZERKIA

Kultura etxeek **Poltsiko Antzerkia jaialdiaren** 34. edizioaren balorazio positiboa egin zuten, antolaketari zein herritarren erantzunari dagokienez. Edizio honetan, 2.332 ikuslek gozatu zuten antzerkiaz, umoreaz, magia, ilusionismoaz eta musikaz, maiatzaren 8tik 25era.

Entretenezko eta harritzeko helburuz, 2025eko edizioako programazioak antzerkia, umorea, magia, ilusionismoa, bakarriketak eta musika izan zituen osagai nagusi. Tabernetan eta ez-ohiko beste espazio batzuetan aritu ziren **Asis Hansson, Belén Nevado, Lorena Arangoa, Aintzane Baleztana** eta **Virginia Imaz** artistak, besteak beste. Gainera, edizio guztietan bezala, bi hizkuntza ofizialen eta gizon eta emakumeen presentzia orekatzen saiatu ziren antolatzaileak.

Guztira, 16 konpainiak beste horrenbeste ikuskizun eskaini zituzten 31 emanalditan; horietatik 8 erabat emakumez osatuta, lau gizonez osatuta eta beste lau mistoak izan ziren. Hiriko 27 espazio ezberdinetan banatu ziren ikuskizunak.

Publikoak oso harrera ona egin zien emanaldiei. **Poltsiko Antzerkia Jaialdiak** hutsik egin ez zuten jarraitzaile leialak ditu, eta ikusle asko elkartu ziren berriro, Donostiako kultura-programazioaren barruan dagoeneko finkatuta dagoen jaialdi honetan.

Kultur etxeek egunez egun egiten duten lanaren erakusgarri izan zen jaialdia; herritarrengandik hurbil dauden ekipamenduak izanik, bestelako begirada bat eman zieten hiriko kultura-programazioei.

Azkenik, jaialdiaren itxierarekin, **XVI. Poltsiko Sorkuntza lehiaketarako** deialdia jarri zen martxan; lehiaketa horren helburua da formatu txikiko antzerkiaren esparruan euskarazko eskaintza sustatzea.

**POLTSIKO
ANTZERKIA**
TEATRO
DE POLSILLO



LITERAKTUM

Azaroaren 10etik 23ra ospatu zen **Literaktum** literatura-jaialdia, hainbat erakunderekin lankidetzan. 8.200 lagun inguru joan ziren hainbat espaziotan haur zein heldu literaturzaleentzako antolatutako 53 jardueretara.

Niaren oihartzunak: bakardadearen eta nortasuna aro globalean izan zen azkeneko edizioaren izenburua, galdera pertsonal eta unibertsal bat planteatuz: ¿nola definitzen dugu geure burua, bakardadea gero eta ohikoagoa den mundu global batean? Gai horren inguruan aritu ziren **Arantxa Urretabizkaia, Julen Apella, Belén Gopegui, Eider Rodriguez, Carys Davies, Samantha Schweblin, Laura Chivite, Ignacio Martínez de Pisón** eta **Lourdes Oñederra**.

Gai nagusiaz haratago, **Juan Manuel de Prada, Fernando Navarro, Juan José Millás, Ignacio Peyró, Javier Sierra, Javier Cercas, Harkaitz Cano** eta **Agatha Loth-Ignaciouk**-ek beraien lanak aurkeztu zituzten, eta **Espido Freirek Jane Austeni** buruz egindako bere hirugarren saiakeraren inguruan hitz egin zuen, britainiar idazlearen jaiotzaren 250. urteurrena zela eta.

Ekitaldi horien guztien artean, bereziki jendetsuak izan ziren **Juan Manuel de Prada, Juan José Millás** eta **Javier Cercas** idazleekin egindako topaketak, baita Victoria Eugenia Antzokiko Klub Aretoan **Ángel Marco** aktorearekin, eta **Iban Zaldúa** idazlearekin eta **Ibil Bedi** taldearekin eskainitako emanaldiak, eta **Iñaki Salvador** eta **Miren Gabirondoren** kontzertu eszenikoa ere.

Jaialdiaren egitaraua osatzeko, beste jarduera batzuk ere izan ziren: **Kutxa Fundazioa Irun Literatura Sariak**, non euskarazko eta gaztelaniazko eleberrien eta poesiaren modalitateetan eman zituzten sariak; **La doble vida de Virginia Woolf** antzezlanak; **Miren Amurizaren** bertso-saioa, **Pleibak** nobelan oinarritutakoa; **El Principito** irrati-antzerkia; errezitaldiak Intxaurren Kultur Etxean eta Loiola Kultur Etxean; ipuin kontalariekin XI. Maratoia; **Virginia Woolfen La señora Dalloway** nobelan oinarritutako literaturari buruzko solasaldia eta afaria; eta **Joxan Oizen Amazurtza** nobelari buruzko paseoa eta solasaldia.

Bost erakusketa ere antolatu ziren **Literaktum** jaialdiaren barruan: **Isola, Nerea Urrestarazurena**, Ernest Lluch Kultur Etxean; **De las emociones a los dibujos, 72kilos** ilustratzailearena, **Homenaje a Ignacia Zabalo. Nor-Nai**, biak Aiete Kultur Etxean; eta **Liburuaren arbola** eta **Bazen behin**, Okendo Kultur Etxean.

Halaber, parte-hartze handia izan zen **Literaktum Txikian**, ipuin kontalariekin, antzezlanekin, Haurren Nazioarteko Egunaren 9. Jaiarekin, ilustrazio-tailerrekin eta **Gregorio Murok** sortutako **Iker eta Ixone** pertsonaien abenturei buruzko ilustrazio Lehiaketarekin. 222 marrazki aurkeztu ziren, guztira, lehiaketaren bosgarren edizio honetan.

Donostia Kulturak antolatuta, **Literaktum** jaialdiaren indarguneetako bat kolaboratzaile-sarea izan zen. Jaialdian kolaboratzaile izan ziren **Kutxa Fundazioa, Donostia Gazteria**, Donostiako Udaleko Kultura Aniztasunaren eta Giza Eskubideen Bulegoa, **Gipuzkoa Liburudendak** elkarteak, **Narodowa** liburutegia, **Euskal Irudigileak** elkarteak, **Euskararen Etxea, Mestiza elkarte artistiko sozio-kulturala** eta **Metro Bilbao**, besteak beste.

Joaterik izan ez zutenek edo topaketak berriro bizi nahi zituztenek, **Literaktum** jaialdiaren webgunean, **DK ON!** atarian, **DK Irratian** eta podcast-plataforma nagusietan.



GLAD IS THE DAY

Glad is the Day jaialdia abuztuaren 3an egin zen Cristina Enea parkean, hiriko udako kultura-egutegian eguneko musika-proposamen garrantzitsuenetako bat bezala finkatuz.

Donostia Kulturak antolatzen du jaialdia, Egia Kultur Etxearen eskutik, eta **Dabadaba** eta **Le Bukowski** aretoekin lankidetzan, **Keler** enpresaren babesarekin eta **Kutxa Fundazioaren** eta **Tabakaleraren** lankidetzarekin. Musika, bizikidetzaz, egitarau anitza eta jarduera osagarriak eskaini zituen jaialdiak, jendeak sarrerarik ordaindu behar izan gabe.

Cristina Enea parkean ospatu zuen jaialdiak musika-aniztasuna, eta berriro bete zen parkea hainbat jatorritako musika-talde eta artistaz.

2025eko edizioak jaialdiak berezko duen formulari eutsi zion: etengabeko musika-emanaldiak 12:00etatik 21:00etara, zuzeneko taldeen eta proposamen elektronikoen nahasketarekin eta, eskaintza hori osatzeko, familia-jarduerak, piknikak, azoka txikia eta gaua DJ saioekin luzatzeko aukera, jaialdiarekin lotutako espazioetan.

Zazpi talde izan genituen Agertoki Nagusian:

OEP taldeak eman zion hasiera jaialdiari, jai-giroko energiarekin; **Peachy Joke**, energiagaz betetako bere rock-proposamenarekin; **Mirua**, bere rock esperimentalarekin, Gipuzkoako talentuaren ordezkari; **Fin del mundo**, indie shoegaze estiloaren barruan nazioartean presentzia handia duen talde argentinarra; **Pinpilinpussies**, garage-pop postpunk estiloarekin; **Sistema de entretenimiento**, arcade punk estiloko proposamenarekin; eta **Hidrogenesse**, pop elektronikoa kontzeptuala egiten duen Bartzelonako duetoa, kartela ixten.

Gainera, musika elektronikorekin, hip-hoparekin eta hiri-doinuekin lotutako zortzi emanaldi izan ziren, Ruina Sónica eszenatokira joan zirenak dantzan jarri zituztenak: **Putas amak** (live), zuzeneko energia-nahasketa bat ekarri zuen taldea; **Puñales b2b LaMia Mari** (DJ set); **Tronis** (DJ); **Infanta** (live); **Miravalles** (DJ); **Scientist** (live); **Simona** (live) eta **Linapary** (DJ).



DKLUBA

Dkluba programa sortu zen auzoetako zein hiri osoko musika-eskaintza dinamizatzea bideratutako kontzertu-zirkuitu gisa, tokiko talentu hasiberriak bultzatuz eta, aldi berean, izen handiko artistak hirira erakarriz. Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzan oinarritutako ekimena da, eta zirkuiturik komertzialenetatik aldendutako proposamenen aldeko apustua egin zuen, eta balioa eman zion musikari, kolektibo, elkarte, areto eta sustatzaile ugari osatutako tokiko musika-ekosistemari. Ildo horretan, inguruneke musika-talentua garatzeko berezko erreferente gisa finkatu zen **Dkluba**.

Programazio artistikoarekin batera, Intxaurren Kultur Etxeak musika-sektorea sendotzeko bere zereginean sakontzen jarraitu zuen, arreta berezia eskainiz hainbat ekimeni, hala nola hiriko taldeentzako egonaldietarako espazioei. Bederatzi talde pasatu ziren, guztira, bost entsegu-aretoetatik, profesionalizatorako bidean beraien lehen urratsak eginez: **Rumbling Lips, Krifis, Lup, Haziak, Suite Seda, OEP, La Ola Maldita, Argazki bat behelainoan** eta **Badmintones**.

Azkeneko urtean, indartu egin zen **Musikagela** programaren barruan entseatzen zuten taldeei talde bisitariekin batera kontzertuetan parte hartzeko aukera eskaintzen zien lan-ildoak. Dinamika horrek herriko musika-sare sortzailea indartu zuen, eta Kultur Etxearen oinarri estrategiko gisa finkatu zen.

Musika-programazioa bat etorri zen Intxaurren Kultur Etxeak kultura-gune publiko gisa duen bokazioarekin, eta estiloei zein publikoei dagokienez eskaini zuen aniztasunagatik nabarmendu zen. 2025. urtean zehar, hogeitaz kontzertu baino gehiago antolatu zen; hasi hiri-musikako proposamenik modernoenetatik, eta Estatuko *indie* panoramako erreferente ezagunetarako, euskal musikako figura historikoak ahaztu gabe.

Batez ere gazteei zuzendutako hiri-musikako bi proposamenekin hasi zen urtea, **SAFU, La Furia** eta **Albina Stardust** taldeen lan berrien aurkezpenarekin. Ondoren, **Musikagela Weekend** jaialdiko eta **Izaki Gardenak** taldearen kontzertuek, besteak beste, bluesaren, rockaren eta pop euskaldun pertsonalagoaren eremura ireki zuten



doinuen aukera. Martxoak egitarau sendoago bat ekarri zigun, **El Drogas** artistaren emanaldiekin; elkarren segidako bi gauetarako salgai jarritako sarrera guztiak agortu ziren. Lorratz horri jarraituz, **The Datsuns** zeelandaberritarren hard rocka iritsi zitzaigun, **Small Jackets** italiarrekin eta **Santero y los Muchachos** valentziarren rockarekin batera; beraiek markatu zuten udaberriaren etorrera.

Apirilean, **La Otra** eta **Jhana Beat** musikariek intentsitatez eta konpromisoz betetako zuzeneko emanaldiak egin zituzten, hitz oldarkorrak beatboxarekin, loop stationarekin eta afrikar eta latindar jatorriko hiri-soinuekin fusionatuz. Bestelako erregistroa ekarri zigun **Noa & the Hell Drinkers** taldearen rocka and rollak, bluesak eta ahots indartsuak, eta kontzertuak gonbidatu ugari elkartu zuen oholtza gainean. **The Skatalites** taldeak eman zion amaiera 2024/2025 denboraldiari; talde mitikoa da The Skatalites, ska eta reggae musikaren erreferentea mundu mailan, sei hamarralditik gorako ibilbidea duena, eta Jamaikatik etorri zitzaiguna, taldearen Europako biraren barruan.

Intxaurren Kultur Etxeko aretoan egin ez zen musika-emanaldi bakarra **Ezezez** talde bizkaitarrarena izan zen, Intxaurren Zaharreko jaietan. Gaur egun, Euskal Herriko talde hasiberri nabarmenenetakoa da.

2025/2026 denboraldia, berriz, udazkeneko jaialdiekin hasi zen. **Kutixik** jaialdiaren laugarren edizioa ospatu zen, **Mihise, Physis vs Nomos, Nize, Xak** eta **Kulata** taldeek osatutako kartelarekin; horrela, berretsi zen lan bikaina egiten duela **Balio Dute** kolektiboak lurraldeko proposamen hasiberriak detektatzen.

Bestalde, **Donostia Kluba jaialdiak** etenaldia egin zuen eta, haren ordeztan, **Bolo-Bolo Weekend** jaialdia estreinatu zen. **Bloody Mary** disko-dendarekin batera antolatu zen jaialdi hori, dendaren 30. urteurrenaren harira, eta Euskal Herriko talde hasiberri sorta bat aurkeztu zen —hala nola **Airu, Mikosis, Indabe** eta **Lukiek**— baita nazioartekoak ere, **Honey Glaze**, besteak beste. Lehenengo edizio hau ikusita, argi geratu zen etorkizun handiko jaialdia dela.

Azaroan, **The Limiñanas** frantziarrak iritsi ziren Intxaurren Kultur Etxera, osagai bisualak pisu nabarmena hartzen duen ikuskizun batekin. Hilabete hartan bertan eskaini zuen **Rufus T. Firefly** taldeak ere, Estatuko *indie* alternatiboaren panoramako talde ospetsuenetako batek. Azaroan egin zen **Jamrock Fest** jaialdiaren beste edizio bat ere, eta berriro elkartu zituen *dub* eta *reggae* proposamenak, nazioarteko kartel nabarmen honekin: **Eva Lazarus** (Erresuma Batua), **Treesha** (Kenya) eta **Agoteak** (Euskal Herria). Abenduan, jarduneko hiru punk talde historiko izan ziren protagonista: **Vómito**, **Distorsión** eta **Arpaviejás**. Urteari amaiera emateko, berriz, **Zea Mays** izan genuen, Santo Tomas bezperan; sarrera guztiak agortu ziren.

Programazio honen funtsezko elementuetako bat izan zen **Musikagela**rekin loturaren bat duten edo Donostialdekoak diren taldeek artista bisitariekin batera oholtzara igotzeko plataforma izatea. 2025ean, besteak beste, honako talde hauek aritu ziren testuinguru horretan: **Bobbi Relac**, **Slimfit**, **Argazki bat behelainoan** eta **Aria**. Gainera, **Musikagelak** jaialdi propioa izan zuen, **Musikagela Weekend**; **Suite Seda** eta **Lup** taldeek ireki zuten gaua, **Susan Santos** artistaren emanaldiarekin amaitu zena. Guztira, hamaika kontzertu kudeatu zituen **Musikagelak**; hamabi taldek hartu zuten parte kontzertu horietan.

Musikagelak koordinatu zuen tokiko taldeen parte-hartzea hainbat jardueretan eta **Donostia Kulturaren** kontzertuetan, kasu batzuetan artista ezagunen hasierako artista gisa, beste kasu batzuetan erakundearen jaialdietan —hala nola **Musikagela Weekend** eta **Musikagela Fest**—, baita beste ekitaldi batzuetan ere —**Glad is the Day**—, edo kultura-jardueretan (kultur etxeetako erakusketak kasu), Liburuaren Egunean, **Poesialdian** edo **Literaktum** jaialdian. Orotara, hamabost jarduera antolatu ziren, eta hamasei taldek, bi duetok eta lau bakarlarik hartu zuten parte.

Intxaurren Kultur Etxean aritu ziren **Aria**, **Izaki Gardenak** taldea irekitzen; **Bobbi Relac**, **Santero y los Muchachos** taldearen hasierako artista gisa; **Nuria Culla**, **La Otra** artistaren kontzertuan; **Slimfit**, **Rufus T. Firefly** taldearenean; eta **Argazki bat behelainoan**, **Zea Mays** euskal taldearen hasierako musika-talde gisa, abenduan.

Jaialdien esparruan, **Suite Seda** eta **Lup** musikariek **Susan Santosekin** batera aritu ziren **Musikagela Weekend** jaialdiaren XV. edizioan, otsailean. Ekainean, **Musikagela Fest** jaialdian, Saguesen, honako hauek aritu ziren: **Inv3rt**, **Mark Duti**, **Sara Mansilla**, **Physis vs Nomos**, **Latitud 43**, **WTXW**, **Peter Bjorn**, **Miss B. and On AI Dual** musikariarekin batera. Abuztuan, bestalde, **OEP** taldeak emanaldia egin zuen **Glad is the Day** jaialdian.

Azkenik, **Sasha Smith** abeslariak Euskadiko Kanping Elkartearen 75. urteurrenaren harira antolatutako **Mendi margotuak** erakusketaren inaugurazioan parte hartu zuen, Okendo Kultur Etxean. **Ariak** kontzertu akustikoa eskaini zuen **Elena Arreteren Mila**, erakusketaren irekieran, eta martxoan, **Sara Mansilla** abeslariak ere kontzertu akustikoa egin zuen Emakumeen Astearen inaugurazioan, Intxaurren Kultur Etxean.



MUSIKAGELA

21 urteko ibilbidearekin, hastapenetako izpirituari eutsi zion **Musikagelak**, musikazaleei zuzendutako dinamika aktibo eta parte-hartzaileen bitartez, komunitatea sortzea ardatz hartuta. Eskaini ziren lau zerbitzuek —sorkuntza-espazioak (entsegu-aretoak), aholkularitza eta trebakuntza (ikastaroak eta masterclass-ak), kontzertu-zikloa eta materialaren mailegua— adin, estilo eta helburu pertsonal ezberdinetako erabiltzaileak izan zituzten.

Zerbitzuak Egia eta Intxaurren kultur etxeetan garatu zuen jarduera nagusia eta, halaber, **Donostia Kulturak** beste gune batzuetan antolatutako jardueretan parte hartu zuen.

Musikagela kontzertuak

Zerbitzuak kudeatu zuen tokiko banden parte-hartzea **Donostia Kulturaren** kontzertuetan eta jardueretan, hainbat modalitatetan; Intxaurren Kultur Etxean jardun zuten artista ezagunen gonbidatu gisa; zerbitzuaren beraren jaialdietan, hala nola **Musikagela Weekend** eta **Musikagela Fest** jaialdietan; eta **Donostia Kulturaren** beste batzuetan, **Glad is the Day** jaialdian, esaterako; baita kultura etxeetako erakusketetan, Liburuaren Egunaren ospakizunetan, **Poesialdian** eta **Literaktum** jaialdian ere. Guztira, 15 jarduera egin ziren, eta 16 musika-taldeak, bi duetok eta lau bakarlarik hartu zuten parte.

Intxaurren Kultur Etxean aritu ziren **Aria**, **Izaki Gardenak** taldearen kontzertua irekitzen (2025/02/15); **Bobbi Relac**, **Santero y los Muchachos** taldearen emanaldian (2025/03/15); **Nuria Culla**, **La Otra** artistarenean (2025/04/04); **Slimfit**, **Rufus T. Firefly** musika-taldearen kontzertua irekitzen (2025/11/14); eta **Argazki bat behelainoan** taldeak, azkenik, **Zea Mays** talde ezagunak abenduan eman zuen kontzertua ireki zuen.

Jaialdien esparruan, **Suite Seda** eta **Lup** musikariek **Susan Santosekin** batera aritu ziren **Musikagela Weekend** jaialdiaren XV. edizioan, otsailean. Ekainean, **Musikagela Fest** jaialdian, Saguesen, honako hauek aritu ziren: **Inv3rt**, **Mark Duti**, **Sara Mansilla**, **Physis vs Nomos**, **Latitud 43**, **WTXW**, **Peter Bjorn**, eta **Miss B. and On AI Dual** musikariarekin batera. Abuztuan, bestalde, **OEP** taldeak emanaldia egin zuen **Glad is the Day** jaialdian.

Sasha Smith abeslariak Euskadiko Kanping Elkartearen 75. urteurrenaren harira antolatutako **Mendi margotuak** erakusketaren inaugurazioan parte hartu zuen, Okendo Kultur Etxean. (2025/02/21). **Ariak** kontzertu akustikoa eskaini zuen **Elena Arreseren Mila**, erakusketaren inaugurazioan, eta martxoan, **Sara Mansilla** abeslariak ere kontzertu akustikoa eskaini zuen Emakumeen Astearen inaugurazioan, Intxaurren Kultur Etxean.

DONOSTIA KULTURAREN BESTE PROGRAMA BATZUEKIKO KOLABORAZIOA

Musikagelak Plus 55 irakurketa-taldeen poesia-errezitaldietan kolaboratu zuen. Urtean zehar, hainbat poesia-errezitaldi egin zen Intxaurren Kultur Etxean: martxoan, **Poesialdia** jaialdiaren barruan; Liburuaren Egunaren ospakizunean, **Daniel López Donny** musikaria **Iñaki Miguelekin** batera aritu zen; iraileko jailetan, beste errezitaldi bat egin zen; eta azaroan, **Literaktum** jaialdiaren barruan, saioa egin zuen **Rodrigo Vázquez** musikariak.

KULTURA ETXEETAN ESPAZIOEN LAGAPENA, MUSIKA-PROIEKTUETARAKO

Urrian, **Argazki bat behelainoan** musika-taldeak **EITB Kultura** telebista-saioan parte hartu zuen. Intxaurren Kultur Etxearen instalazioetan egin zituzten grabazioa eta ondorengo elkarrizketa.

Entseatzeko aretoak

EGIA KULTUR ETXEA (txandakatze-programa)

2025ean, Egia Kultur Etxeko zortzi entsegu-aretoek 99 musika-proiektu hartu zituzten txandakatze-modalitatean; hilabeteko, batez beste, 53 proiektu eta 313 erabiltzaile. Zerbitzu hau erabili zutenen profila oso anitza izan zen, bai adinari, bai musika-estiloari dagokienez.

INTXAURRONDO KULTUR ETXEA

(erresidentzia-programa)

Erresidentzia-programak tokiko bederatzi talde hartu zituen 2025ean Intxaurrondo Kultur Etxeko bost aretoetan: **Rumbling Lips**, **Krifis**, **Lup**, **Haziak**, **Suite Seda**, **OEP**, **La Ola Maldita**, **Argazki bat behelainoan** eta **Badmintones**. **Rumbling Lips** eta **La Ola Maldita** taldeek bi urteko erresidentzia-aldia amaitu zuten; **Haziak** taldeak, berriz, ez zuen programa osatu. Talde berriak ere sartu ziren programan: **Krifis**, **Suite Seda** y **Badmintones**. Guztira, 35 erabiltzaile izan ziren urtean zehar.

2025ean, diskoak argitaratu zituzten horietako lau taldek: **Argazki bat behelainoan** taldeak **Geldigu eta dena huts** lan berria eman zuen argitara (2025eko otsaila), **Lup** taldeak **Erantzun bako** (2025eko uztaila), **Haziak** taldeak, berriz, **Haziak** (2025eko iraila) eta **Krifis** musika-taldeak, azkenik, **Anabasis** (2025eko iraila).

Mailegu-zerbitzua

Asko erabili zen kontzertuetarako materialaren lagapen-zerbitzua. Honako hauek izan ziren zerbitzua erabili zutenak: **WTXW**, **Presión Cero**, **Latitud 43**, **Peter Bjorn**, **Los Premodernos**, **KKG**, **Eremu Ilunak**, **Talde Hemendik**, **The Sally Dolls**, **La Ola Maldita**, **El Pingüino Hippie** eta **Libe**. Halaber, grabazio-materiala erabili zuten **H.L.** eta **Cosmicar** taldeek.



Trebakuntza / ikastaroak

2025. urtean, 20 ikastaro eskaini ziren (9 Intxaurrondo Kultur Etxean eta 11 Egia Kultur Etxean). Programazioa hazi egin zen, eta musikaren munduko diziplina eta arlo ezberdinei heldu nahi izan zitzairen. Halaber, gaiak horretarako aukera eman zuen orotan, ikuspegi praktikoa izan zuten trebakuntza-saioek.

Zuzeneko Soinua ikastaroko ikasleak arduratu ziren **Musikagelako La sombra del flaco** eta **La Ola Maldita** taldeen soinuaz. Konposizio ikastaroan, ikasgelan elkarrekin interpretatu zituzten konposizio propioak landu zituzten ikasleek. Bateriako ikastaroan, irakasleak iradokitako erreperitorio bateko abestiak aukeratu zituzten ikasleek. **Musikagela Topaketetan**, **Susan Santos** gitarra-joleak parte hartu zuen; topaketa horietan, musika-panoramako artista ezagunek beraien esperientziak kontatzen dituzte, beraien musika-tresnak aldean dituztela.

Egia Kultur Etxean, 11 ikastaro egin ziren, bost euskaraz eta sei gazteleraz: **Musika konposizioaren hastapen tailerra**, **Taller de iniciación a la composición musical (avanzado)**, **Musika konposizioa (aurreratua)** y **Grandes compositoras de la música clásica**, **Haizea Huegunekin**; **DJ tailerra** eta **Taller DJ**, **Inés Azpiazurekin**; **Principios de música electrónica: samplers, sintetizadores y cajas de ritmo** (bi talde) eta **Musika elektronikoaren printzipioak: samplerak, sintetizadoreak eta erritmo-kaxak**, **Telmo Trenorekin**; eta **Baxuaren eta gitarra elektrikoaren doikuntzak zubi finkoarekin** eta **Ajustes de bajo y guitarra eléctrica con puente fijo**, **Gorka Urraren** eskutik.

Intxaurrondo Kultur Etxean, bederatzi ikastaro egin ziren, bi euskaraz eta zazpi gazteleraz: **IA y música**, **Flavio Banterlarekin**; **Zuzeneko soinua** eta **Sonido en directo (avanzado)**, **Beñat Antxustegirekin**; **La voz como instrumento** (bi talde) eta **Ahotsa, instrumentu gisa**, **Naróa Enekotegiren** eskutik; **Electrónica para guitarras y bajo eléctrico**, **Gorka Urrarekin**; **Curso de batería: mejora tu técnica tocando canciones**, **Andoni Etxebesterekin**; eta **Musikagela Topaketa / Encuentro Musikagela**, **Susan Santosekin**.

DK IRRATIA

Donostia Kultura Irratiak Casares-Tomasene Kultur Etxean du egoitza, eta **FM 107.4**

frekuentzian nahiz *streaming*bidez emititzen ditu bere edukiak.

Urteko berrikuntzen artean, **DK Sessions** proiektua jarri zen martxan. Ekimen horren baitan, musikari ezagun batek abesti bat grabatzen du irratia-estudioan, eta grabaketa-prozesu osoa jasotzen duen bideo labur batekin zabaltzen da ondoren.

DK Sessions multimedia formatuan aurkeztutako pódcasta da, eta sormen-prozesuaren alde pertsonal eta intimoenean jartzen du arreta. Lehen edizioetan hainbat artistak hartu zuten parte, besteak beste **Maite Larburu, Amorante, Sua Enparantza** eta **Kiliki**. Proposamenak erantzun oso ona izan zuen, eta proiektu berria izan arren, ikus-entzule kopuru handia lortu zuen.

Bestalde, **DK Irratiaren** pódcasten entzule kopuruak goranzko joera izan zuen, eta irratsaioek aurreko urteetako datuei eutsi zieten.

Prestakuntzari dagokionez, eskaintza handitu egin zen. Urte osorako bi ikastaro antolatu ziren: **Olga Grandek** gidatutako **Crea tu propio pódcast** eta **Inko Martinek** emandako **Taller de radio creativa**.

Hamaika Entzuteko! pódcast-lehiaketak, bitxikeria modura, hamaika lan jaso zituen. Aurkeztutako piezen kalitatea oso handia izan zen, eta **Mikel Aiertza** izan zen irabazlea **Naufra goaren duintasuna** lanarekin. Ondoren, irabazleekin batera **Ispilu Beltza** irratsaio berezi bat grabatu zen.

2025ean, **Ispilu Beltza** saioak **5.170 entzunaldi** lortu zituen, eta **Donostia Kultura Irratiaren** webguneko gainerako saioek, guztira, **15.629 entzunaldi** metatu zituzten.

Ekoizpen horiek guztiak **Donostia Kulturaren** webgunean egon ziren entzungai, urtean zehar kultur etxe ezberdinetan egindako hitzaldi eta mahai-inguruen grabaketekin batera. Ildo horretan, aurrerapauso esanguratsua eman zen, eta **Donostia Kulturaren** webguneko edukia nabarmen aberastu zen.



JARDUERAK

262

Antzerkia (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 34.819

47

Dantza (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 8.828

102

Musika (kontzertuak)
Erabiltzaileak: 28.153

152

Zinema (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 6.045

204

Hitzaldiak eta mahai-inguruak
Erabiltzaileak: 13.202

226

Erakusketak
Erabiltzaileak: 118.551

1.207

Bilerak eta elkarten ekitaldiak
Erabiltzaileak: 35.097

1.440

Liburutegiko jarduerak
Erabiltzaileak: 23.775

606

Plus 55
Erabiltzaileak: 15.176

755

Gaztelekua
Erabiltzaileak: 11.518

992

Haurtxokoa
Erabiltzaileak: 16.745

201

Bestelakoak
Erabiltzaileak: 2.800

182

Bestelakoak
Erabiltzaileak: 1.142

Guztira
6.376
jarduera
315.851
erabiltzaile

ZERBITZUAK

553.625

bisitaldi
Liburutegia

3.934

bisitaldi
Ikasgela

15.032

bisitaldi
Gaztelekua

14.635

bisitaldi
Haurtxokoa

17.092

bisitaldi
KZgunea (Nabigazioak)

349

bisitaldi
Altzako bilduma

12.000

bisitaldi
Altzako bilduma web

15.629

bisitaldi
DK Irratia web

5.170

bisitaldi
Ispilu beltza magazine-podcasts

2.439

bisitaldi
Bideo tailerra

5.930

bisitaldi
Musikagela

7.135

bisitaldi
Musika Eskola

3.281

bisitaldi
Plus 55

Guztira
656.251
BISITALDI

PRESTAKUNTZA

Ikastaro-
eskaintzaOsatutako
ikastaroak

Erabiltzaileak

Emakumeak

Gizonak

GUZTIRA	1.885	1.430	14.621	10.783	4.266
2024-2025 IKASTAROAK	492	306	5.062	3.842	1.240
Ikasturte osokoak (2024ko urria - 2025eko maiatza)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	30	17	195	166	43
Gaztelaniaz	45	42	1.180	859	321
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	181	61	855	671	184
Gaztelaniaz	150	123	1.935	1.591	343
Bigarren lauhilekoko ikastaroak (2025eko otsailean hasita)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	15	7	69	46	30
Gaztelaniaz	29	25	400	227	173
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	7	4	29	23	6
Gaztelaniaz	35	27	399	259	140
2025-2026 IKASTAROAK	487	294	4.770	3.662	1.116
Ikasturte osokoak (2025eko urria-2026ko maiatza)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	24	13	166	143	23
Gaztelaniaz	35	34	1.151	855	296
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	163	64	831	672	159
Gaztelaniaz	156	124	1.895	1.548	347
Lehenengo lauhilekoko ikastaroak (2025eko urria-abendua)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	33	17	145	78	67
Gaztelaniaz	34	23	334	179	155
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	36	13	161	118	51
Gaztelaniaz	6	6	87	69	18
CURSOS PUNTUALES	24	24	506	334	172
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	17	17	388	259	129
Gaztelaniaz	7	7	118	75	43
KZgunearen IKASTAROAK	512	460	2.710	1.805	905
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	370	346	1.573	1.140	833

KULTUR ETXEETARA egindako bisitak
Guztira 1.008.321

Aiete Kultur Etxea

20  25





62 Itzalaren argitasunean: agerikoaz haratago begiratuz erakusketa

AIETE Kultur Etxea

Aiete Kultur Etxeak 15 urte bete zituen, 2010eko abenduan ireki zenetik. Urte hauetan guztietan, **Aiete Kultur Etxea** auzorako, hirirako eta elkarteentzako erreferente eta espazio dinamikoa gisa finkatu da, **Aieteren** idiosinkrasiara egokitutako programazio anitz eta erakargarri bati esker.

2025eko proposamen adierazgarrienen artean, **Pindro dantzariz. Ijito herria Gipuzkoan** nabarmendu zen; Aieteko erakusketa-aretoan egon zen ikusgai, eta **Juantxo Egaña** eta **David Martín** izan ziren komisarioak. Ijito herriak Euskal Herrian izan duen presentziari buruzko ibilbide historiko eta kulturala eskaini zuen erakusketak, XIX. mendetik gaur egun arteko Gipuzkoari arreta berezia eskainiz.

Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatu zuen erakusketa, eta **AGIFUGI** elkartearekin, **Kera Emakumeen Ijito Elkartearekin**, **Kutxa Fundazioarekin**, **Ronak Press** kolektiboaren, **Bilboko Euskal Museoaren** eta **Donostiako San Telmo Museoaren** lankidetzarekin egin zen, eta ijito herriaren memoriara eta errealitatera hurbiltzeko aukera eskaini zuen. Bere balio dokumentalaz haratago, kultura-aniztasuna eta historikoki ikusezina izan den komunitate baten ekarpenak aitortzeko beharra azpimarratu zituen erakusketak, elkarrizketa eta kulturen arteko ulermena bultzatuz herritar guztiei irekitako espazio batean.



Pindro dantzariz. Ijito herria Gipuzkoan erakusketa



Kaliforniar ametsa erakusketa

Martxoan **Aiete Kultur Etxeak Dardarak artxiboan. Maritxu eta Katalinaren kasua kalean** erakusketa hartu zuen, **1503ko** agiri judizial bat berreskuratu zuen diziplina anitzeko proposamena, **Catalina Belauntzakoak** eta **Maritxu Oiartzungoak** beraien maitasun-harremanagatik jasan zuten jazarpena kontatzen zuena. Historiografia tradizionalak baztertutako bizitzen ikusgarritasuna, aitortza eta erreparazio sinbolikoa aldarrikatu zuen instalazioak, erakusketa-espazioa memoriarako eta hausnarketa kolektiborako plaza publiko bilakatu.

Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiaren barruan, **Donostia Kulturak Darcy Padilla** argazkilari entzutetsuaren **Kaliforniar ametsa** erakusketa aurkeztu zuen **Aieten, Gasteizko Udalarekin** eta **Montehermoso Kulturunearekin** lankidetzan. Lan dokumental handi baten bitartez, **Kalifornian** etxerik gabeko pertsonen bizi duten errealitatea islatu zuen erakusketak. 2008ko atzeraldi ekonomiko handiaz geroztik, begirada kritikoz eta humanoz erretratatu zituen egileak pobrezia eta etxebizitza gabezia, kaliforniar ametsa deritzonaren kontraesanak azaleratu eta munduko eskualderik oparoenetako batean muturreko baldintzetan bizirautean duten milaka familiaren zaurgarritasuna ikusaraziz.

Aiete Kultur Etxean aurkeztutako **Josune García** artista donostiarraren **Itzalaren argitasunean: agerikoaz haratago begiratzuz** udako erakusketak pintura abstraktuan zeharreko bidaia introspektiboa proposatu zuen. Intuizioak eta adierazkortasunak markatutako

lengoaia plastiko baten bitartez, ezkutukoa eta agerikoa, harmoniatsua eta kaotikoa esploratzera gonbidatu zuen publikoa egileak, azaleko begiradaz haratago, paisaia emozional sakonagoetan barneratzera bideratutako ibilbide batean.

Esperientzia sentsorial gisa sortutako erakusketa-muntaketak espazio inguratzaile batean murgiltzeko aukera eman zion publikoari, non trazu bakoitza intimoaren isla eta esan gabekoaren kanal bihurtu zen, pintura norbere burua ezagutzeko eta eraldatzeko bide gisa finkatu.

Egoaizia Gobernu Kanpoko Erakundeak antolatutako **BUNA: ahots isilduak** erakusketan, **Etiopiako Tigray** eskualdeko gatazka armatuaren ondorioak ezagutzera ematera bideratutako ibilbide bat eginez, argazki eta ikus-entzunezkoen bitartez. Emakumeek erresistentzia- eta oneratze-prozesuetan betetzen duten eginkizuna azpimarratu zuen erakusketak. *Buna* kafearen etiopiar zeremonia tradizionalaren bitartez, laguntza komunitarioko eta psikosozialeko espazioak sortu ziren; espazio horiek emakume askori eman zioten zauriak eta espektatibak partekatzeko aukera, eta berreraikuntza emozional eta sozialaren sinbolo bihurtu zen. Horrela, publikoa memoria, salaketa eta itxaropen ibilbide batean barrena bideratu zuen esperientzia murgiltzailea proposatu zuen, distantziak isilarazitako baina giza-duintasunari estuki lotutako errealitate bati aurrez aurre begiratzera gonbidatu.



Artea, errealitate birtuala eta neurozientzia erakusketa



Ilustratzailearen txokoa, Exprai

Literaktum jaialdiaren barruan, **Oscar Alonso (72kilos)** ilustratzaile eta idazle bilbotarraren **Emozioetatik marrazkietara** erakusketa izan genuen. Bere ilustrazioen bitartez, eguneroko esperientziak eta esperientzia emozionalak laburbildu zituen, eta erakutsi zuen nola sorkuntza bisualeko forma berriak erreferente garaikide bihurtu diren. Era horretako proposamenek agerian utzi zuten formatu eta teknologia berriek gaitasun sortzaile eta komunikatzaile handia dutela; horregatik sartu zituen bere egitarauak adierazpide horiek **Literaktum** jaialdiak forma berriei hitzaren eta marrazkiaren inguruan heltzeko.

Urtea ixteko, **Silvia Sánchez** artista donostiarraren **Artea, errealitate birtuala eta neurozientzia** erakusketa aurkeztu zen; erakusketa horretan erakutsi zen nola arte tradizionala bilakatu egin daitekeen teknologia erabilia, askotariko publikoengana iristeko. QR kode bidez aplikazio bat deskargatu ondoren, obrekin interakzioa eduki ahal izan zuen publikoak telefono mugikorrarekin fokuratuta, mundu erreala eta birtuala konbinatzen zituzten elementu bizidunak aktibatuz.

Jane Goodall-en heriotzaren harira, 2020an pandemiaren ondorioz egin ezin izan zen bere omenezko erakusketa egin zen, ikertzaile gisa egin zuen ibilbidea eta **Aieterekin** zuen lotura gogora ekarriz.

Ilustratzailearen txokoak aurrera jarraitu zuen 2025ean. Euskal sorkuntzako talentua eta aniztasuna nabarmentzera bideratutako espazioa da. 2025eko edizioan, **Nerea Urrestarazu**,

Joseba Beristain (Exprai), **Berta Suescun** eta **Aitziber Raya** artisten lanak izan ziren protagonista. Aurkeztu zituzten proposamenek ilustrazio garaikideko askotariko begiradak eta estiloak islatu zituzten, kultur etxeak diziplina hori ikusaraztearekin eta zabaltzearekin duen konpromisoa indartuz.

Txoko Urdina izan zen dinamizatutako beste espazioetako bat, kultur etxearen, eragile sozialen eta herritarren arteko topagune gisa sortu zena. Txoko horretan garatu ziren ekimenen artean, **Aranzadik** intsektu polinizatzaileen egoeraren inguruko sentsibilizazio-proiektuaren barruan bultzatutako **Polinizatzaileak greban** erakusketa hartu zuen espazioak. Lehiaketa baten bidez sortutako irudiak eta edukiak batu zituen erakusketak, eta hainbat jarduera parte-hartzaile ere eskaini zituen, parke eta lorategietako biodibertsitateari balioa emateko eta gaur egun galbidean dauden funtsezko organismo horiek babesteko beharra azpimarratzeko helburuz.

Literaktum jaialdiaren esparruan, **Ignacia Zabalo 'Nor-Nai'ri omenaldia** erakusketa ere aurkeztu zen **Txoko Urdinean**. **Euskal Ilustrazioaren Eguna** ospatzen zela eta, **Euskal Irudigileak** elkarteak eta **Donostia Kulturak Ignacia Zabalo (Nor-Nai) XX.** mendeko ilustrazioaren aitzindarietako bat izan zenari eskainitako erakusketa hau prestatu zuten.

Aieteko jaien barruan, **Bertso-jira** ospatu zen, **Maialen Lujanbio** eta **Beñat Gaztelumendi** bertsolariekin; auzoko kaleak alaitu zituzten, **udal txistulariek** eta **Kantu-jirako** kideek lagunduta, jai-giro parte-hartzailea sortuz.

Musiklasik musika klasikoko zikloak berriz inauguratu zuen urteko programazioa **Aiete Kultur Etxean** sentsibilitate artistikoa eta kalitate interpretatiboa uztartu zituzten kontzertuekin. Neguan, **Eraginok Abesbatza** aurkeztu zen, eta abesbatza-errepertorio aberatsa eskaini zuen, eta publikoa bereganatu zuen bere proposamenarekin. Ondoren, **Soinuak Haizean** eta **Eko eta itsasoa** bere ikuskizunarekin jarraitu zuen zikloak; emanaldi horretan, musikak naturaren eta itsasoaren arteko elkarrizketa ekarri zuen gogora, publikoa edertasun handiko soinu-paisaietara garraiatuz. Udazkenean, **Donostia Eroski Hala Gregorianoak 50 urtez** baino gehiagoz kantu gregorianoa zaintzeko eta hedatzeko lan egin duen talde bat omentzeko balio izan zuen emanaldia egin zuen, interpretazio-korrante garaikideei jarraituz. **Claudia Besabe** al harpa-jotzaileak eta **Eva Calvo** gitarra-jotzaileak osatzen duten **Do Boreal** bikoteak eman zion amaiera musika-urteari. Kontzertu horiek izan zuten harrera bikainak berretsi egin zuen, beste behin, ziklo honek musika-talentua zabaltzeko eta hurbileko kultura-esperientziak sortzeko duen balioa.

Urtean zehar, egitarau anitzaz gozatu ahal izan zuten familiek **Aiete Kultur Etxean**; nabarmentzekoa da **haurrei zuzendutako 80 film baino gehiago** eskaini zirela, euskaraz eta gazteleraz. Asteburuetan eta opor-aldietan antolatu ziren saio horiek, eta **2.000 lagun baino gehiago** erakarri zituzten; horrela, finkatu egin dira, txikientzako eta haien familientzako kalitatezko kultura-eskaintza eskuragarri gisa.

Familiei zuzendutako programazioak, halaber, haur asko eta haiekin batera etorritako heldu asko batu zituen, eta irudimena, barrea eta ikaskuntza partekatua sustatzera bideratutako antzerki-eta arte-proposamenez gozatu ahal izan zuten. Antzezlanen artean, nabarmentzekoa izan zen **Kidan Magoaren Milenio** ikuskizuna, umorez eta fantasiaz betetako magia-ikuskizuna, zikloa harrera bikainarekin ireki zuena.

Otsailean, **Traka Matraka** konpainiak **Matraka ma non tropo** lana aurkeztu zuen, energia, musika eta keinu bidezko umorea nagusi dituen proposamena. Aurrerago, **Eidabe** konpainiak **Eneko eta Ixabel bertako elikagaien bila** ikuskizuna eskaini zuen, entretenitzeaz gain, kontsumo arduratsuari eta tokiko produktuei balioa eman ziena. **Didau Antzerki Faktoriak**, berriz, **Peru eta otsoa** lana ekarri zigan, klasiko baten egokitzapen dinamikoa, publikoari istorioa beste ikuspegi batetik deskubritzeko aukera eman ziona. **Kiki eta Koko** pailazoek musika eta dibertsioa ekarri zituzten auzoko jaietara eta, udazkenean, **Behibi's** eta **Firulete Teatrok** txotxongiloen unibertsoa nabarmendu zuten. Urtea amaitzeko, **Eriz** magoa izan genuen, bere proposamen magikoarekin, Eguberrietako egitarauari hasiera eman ziona. Estilo eta gai aniztasunak berretsi egin zuen kultur etxeak aldi berean dibertitzeko, hunkitzeko eta hezteko gai den kalitatezko haur-programazioarekin duen konpromisoa.



Prestakuntzaren esparruan, hainbat ikastaro nabarmendu ziren, horietako batzuk **Aieten** soilik egin zirenak, hala nola, panderoa, kriskitinak eta kutxa flamenkoa jotzen ikastekoak, bai eta hainbat gairi buruzko egile-ikastaroak ere. Historiari buruzko proposamenak eskaini ziren, **María José Noain** eta **Mikel Alberdiren** eskutik; geologiari buruzkoa, **Asier Hilarior**ekin; ilustrazioa landu zen, **Maite Gurrutxagarekin**; eta baso-bainuak **Aieteko** parkean, **Cristina Enea Fundazioarekin** elkarlanean.

Poltsiko Antzerkia Jaialdiak berriro hurbildu zizkion arte eszenikoak komunitateari, hurbiltasuna eta freskotasuna bereizgarri zituzten formatu txikiko proposamenekin. **Oliver & Lyuba** bikoteak **Los Inventores** emanaldia egin zuen **Bera-Bera kanpusean**, ikuskizun saritua, magia, komedia eta inprobisazioa uztartzen dituen, eguneroko egoerei umorez aurre egiteko. Halaber, **Juako Malavirgenek** **Cantando por los codos** lana eskaini zuen **Fogón de Miramon** jatetxean, komedian daramatzen **20 urteko** ibilbidea ospatuz; azkartasunak, satirak eta publikoarekiko konplizitateak markatutako bere bakarrizketa eta abesti adierazgarrienetan zeharreko ibilbidea egin zuen ikuskizunean.

Liburutegiak igandetan zerbitzua ematen duen **Udal Liburutegien Sareko** bakarra izaten jarraitu zuen. Berezitasun horri eutsi zion auzorako zein

hiri osorako eta inguruko hainbat herritarako erreferentzia-gune gisa; orduetegi horri esker, liburutegi-zerbitzuak erabili ahal izateko aukera izan zuten erabiltzaile horiek. Dinamika hori datuetan islatu zen, berriro hazi baitziren mailegu kopurua eta bisitari kopurua.

Hautxokoak oso ondo baloratutako zerbitzua izaten jarraitu zuen, larunbatetako **Familiarekin jolasean** programaren egitarauarekin eta **Literaktum Txikia** proposamenarekin, besteak beste; ekimen horren barruan, ilustrazio-tailerra eman zuen **Iban Illarramendik**. **Gaztelekuaren** kasuan, egiaztatu zen pixkanaka adin txikiagoko erabiltzaileak sartzen hasi direla; ondorioz, etengabe berritu eta egokitu behar izan zen ostiral eta larunbatetan eskaintzen den zerbitzu hori.

2025ean, **Aiete Kultur Etxea** berriro finkatu zen kulturak eta komunitateak elkarrekin aurrera egiten duten elkargune gisa. Urtean zehar garatutako programazioak balioa eman zion adierazpide artistikoen aniztasunari eta tokiko eragileen inplikazio aktiboari, auzoaren identitate kulturala indartuz eta belaunaldien arteko loturak sor daitezen lagunduz. Herritarren parte-hartzearekiko konpromisoak eta proposamen bakoitzaren gertutasunak kultur etxea kohesio soziala indartzera eta kultura-eredu inklusibo eta partekatatu bat proiektatzera bideratutako espazio bizi, ireki eta anitz gisa mantentzen lagundu zuten.



Poltsiko antzerkia. *Oliver & Lyuba*

JARDUERAK

10

Antzerkia (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 1.229

0

Dantza (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 0

4

Musika (kontzertuak)
Erabiltzaileak: 286

81

Zinema (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 2.315

1

Hitzaldiak eta mahai-inguruak
Erabiltzaileak: 65

18

Erakusketak
Erabiltzaileak: 11.740

89

Bilerak eta elkarten ekitaldiak
Erabiltzaileak: 7.675

125

Liburutegiko jarduerak
Erabiltzaileak: 4.058

0

Plus 55
Erabiltzaileak: 0

80

Gaztelekua
Erabiltzaileak: 1.692

237

Haurtxokoa
Erabiltzaileak: 3.649

0

Bestelakoak
Erabiltzaileak: 0

Guztira
645
jarduera
32.709
erabiltzaile

ZERBITZUAK

53.881

bisitaldi
Liburutegia

0

bisitaldi
Ikasgela

1.692

bisitaldi
Gaztelekua

3.649

bisitaldi
Haurtxokoa

0

bisitaldi
KZgunea (Nabigazioak)

0

bisitaldi
Altzako bilduma

0

bisitaldi
Altzako bilduma web

0

bisitaldi
DK Irratia web

0

bisitaldi
Ispilu beltza magazine-podcasts

0

bisitaldi
Bideo tailerra

0

bisitaldi
Musikagela

0

bisitaldi
Musika Eskola

0

bisitaldi
Plus 55

Guztira
59.222
BISITALDI

PRESTAKUNTZA

Ikastaro-
eskaintzaOsatutako
ikastaroak

Erabiltzaileak

Emakumeak

Gizonak

	Ikastaro- eskaintza	Osatutako ikastaroak	Erabiltzaileak	Emakumeak	Gizonak
GUZTIRA	98	63	897	702	195
2024-2025 IKASTAROAK	57	40	567	430	137
Ikasturte osokoak (2024ko urria - 2025eko maiatza)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	3	2	26	17	9
Gaztelaniaz	5	4	47	33	14
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	20	10	141	106	35
Gaztelaniaz	20	16	215	183	32
Bigarren lauhilekoko ikastaroak (2025eko otsailean hasita)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	2	2	73	49	24
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	1	1	10	10	0
Gaztelaniaz	6	5	55	32	23
2025-2026 IKASTAROAK	41	23	330	272	58
Ikasturte osokoak (2025eko urria-2026ko maiatza)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	-	-	-	-	-
Gaztelaniaz	-	-	-	-	-
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	19	6	90	74	16
Gaztelaniaz	19	14	205	174	31
Lehenengo lauhilekoko ikastaroak (2025eko urria-abendua)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	-	-	-	-	-
Gaztelaniaz	-	-	-	-	-
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	3	3	35	24	11
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
CURSOS PUNTUALES	0	0	0	0	0
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
KZgunearen IKASTAROAK	0	0	0	0	0
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	0	0	0	0	0

KULTUR ETXERA egindako bisitak
Guztira 106.544

Casares /
Tomasene
Larratxo
Kultur Etxea

2025
DK
memoria





La última y nos vamos, Trapu Zaharra

CASARES / TOMASENE Kultur Etxea

Oro har, 2025 urtean erabiltzaileen hazkundera nabarmena izan zen, zentzu eta alor gehienetan, bai **DK** ikastaroetan bai jardueren eremu zabalean. Hazkundera kultur etxeak auzo mailan duen ardatz izaeraren isla izan zen. Kolektibo hauek nabarmendu beharko lirateke: euskara taldeak, **AHM**ko kideak, emakume elkarteak, auzoko bertsozaleak, literatur eta antzerki zaleak, jai batzordeak, dantza taldeak, konpartsak, danborrada taldeak, sevillanazaleak, musikazaleak, kaldereroak, etab. Beraiek dira Altzako arima.

DK ikastaroen eremuan igoera handia izan zen, batez ere euskarazko ikastaroetan. Aldi berean, gaztelaniazko matrikulazioari ondo eutsi zitzaion. **DK Irratia**ko ikastaroetan azken urteetako joera irauli zen eta, aspaldiko partez, ikastaroen kopurua hazi egin zen. Hala eta guztiz ere, albiste pozgarriena haurren ikastaroen esparruan eman zen, hutsetik lau ikastaro finko izatea lortu baitzen.

ANTZERKIA KALEAN

Guztira zortzi kale-antzerki burutu ziren 2025 urtean zehar, ekainean hasi eta iraila amaiera bitartean. Ikuskizun zeharo desberdinak izan ziren eta, publiko aldetik, arrakastatsuak, eguraldia lagun izan baitzen kasu gehienetan.

Kronologikoki, **Larratxoko** jaietan **Txintxeta**, **Klipa** eta **Txorroskilok** **Txanpon baten truke** ikuskizuna taularatu zuten. Auzoko burrunbaren gainetik haurren barreak eta algarak nagusitu ziren. **Herrerako** jaietan **Txulalai** konpainiak **Mugitu zaitez** ikuskizuna aurrera eraman zuen eta, euri jasa eta guzti, hurrek eta familiek primeran pasa zuten. **Buenavista** auzoan **Zirika Zirkusek** **Marietak Zirkus** taularatu zuen eta aho zapore gozoa utzi zuen. **Oletan Tor** eta **Txoborro** magoek auzotarren txalo zaparrada eskuratu zuten **Freak Show** ikuskizunarekin. **Altzagainen** Castellongo **La Troupe Malabó** konpainiak mimika eta zirkua uztartu zituen ikuskizun berean: **Karpaty**. **Jolastokietan** **Pontx** pailazoak **Denak plazara** aurkeztu zuen auzoko frontoian ehundaka ikusleren aurrean. **Arriagako** jaietan, aldiz, bi kale ikuskizun izan ziren: **Trapu Zaharraren** **La última y nos vamos**, auzoarekin harreman estua izan duen konpainiaren agur lana, eta **Erre** konpainiaren **Superheroiak**, kiroldegiko plazan.

POLTSIKO ANTZERKIA

Hiru poltsiko-antzerki izan ziren auzoan: **Impro** **Impar Show**, **Next** tabernan, **Jolastokietan**; **Garazi San Martinen** **Bihotz**, **bi hots**, **bi txotx**, **Herrerako Nido** tabernan; eta **Virginia** Imazen **Sex o no sex**. Goi mailako saioak izan ziren hirurak, eta saio guztietan tabernak bete ziren.

ABESBATZEN ASTEA

Tolosako nazioarteko lehiaketa probestuz, **Svanhold Singers** suediar abesbatzak emanaldia eskaini zuen **Altzagainekoparrokian**, **Sofia Söderberg** zuzendariaren gidaritzapean.



Ertzak, Naturaldia

ALTZAKO NATURALDIA

Maiatzaren 6tik ekainaren 12ra bitartean **Altzako XII. Naturaldia** ospatu zen. Jarduera mordoxka bat antolatu zen okasiorako, hala nola **Ertzak** irrati performancea, **Inko Martinekin**, **Saioa Royorekin** eta **Mikel Cerezorekin**, irrati-fikzioan adituak hirurak; **Egoitz Arruti** argazkilari gaztearen **Basografia**, proiektzio-hitzaldi gogoangarria; **Karlos Solana**, **DYA**ko adituaren mendiko segurtasunari buruzko hitzaldia; **Markos Sierrarekin** eta **Mikel Ubillosekin** mendi-txangoak; **La Anunciata** ikastetxeko ikerketa-proiektuen aurkezpena, **Juan Karlos Lizarazu** irakaslearen gidaritzapean; edota **Altzako mezu sekretuaren bila** jolasa **Harria** parkean, **Cristina Enea Fundazioaren** lankidetzari esker. Azken jarduera probestuz, **Altza zaindu** leloarekin apainduriko kapelak banandu ziren. Opariak harrera ezin hobea izan zuen auzo mailan eta auzo-kohesiorako tresna gisa baliatu zen.

GAU BELTZA

Azken urteetan bezalaxe, **Altzako San Martzial** plazan suzko ikuskizun ikusgarria izan zen urriaren 31n. Egun berean, auzoaren beste kokapen batean, ****Larratxo K.E.**n**, **El gran showman** antzerki amateur ikuskizuna eskaini zuen **Los Guachindanguitos** konpainiaren eskutik. Bezperan, urriaren 30ean, **Kuia hustuketa lantegia** egin zuen **Tomasene Liburutegian**.



El Principito, Irrati-antzerkia

LITERAKTUM

Azken bi urteetan idazleen aurkezpenak bertan behera gelditu ondoren, literatur zaleak irrikaz zeuden azaroaren 14an **Ignacio Peyró** idazle madrildarraren hitzaldia entzuteko. Arrazoa: **Julio Iglesias**en biografia, ***El español que enamoró al mundo***. **Mitxel Ezquiaga** kazetariak maisuki gidatu zuen elkarrizketa.

Hurrengo egunean, azaroaren 15ean, kultur etxeko irrati-fikzio adituek ***El Principito***, **Antoine de Saint-Exupéry**ren obra, taularatu zuten **Tomaseneko** areto nagusian. Irrati-efektuak zuzenean, aretoa lepo, publikoarekin bat-egitea lortu zuten.

GABONAK ALTZAN

Altzako San Tomas jaian ***Goazen! Euskaraokea*** hurbildu zen **Larratxora**. Familiak dantzan eta kantuan aritzeko aitzakia ezin hobe izan zen. Eguberrietako oporren iritsierarekin, **Iñaki Martirena “Mattin”** artista altzatarraren **Komiki lantegia** eta **Inko Martinen Irrati lantegia** gauzatu ziren.

Ziklo honen baitan, aspaldiko partez, gospel musika saioa izan zen **Tomasenen**: ***Moonfields***, XX. mendeko espiritualetan oinarritutako kontzertua, **Lide Hernando** abeslaria eta **Iñaki Miguel** piano-jotzailea aurrez aurre. Zirrargarria izan zen.

TOMASENE LIBURUTEGIA

Oro har, erabiltzaile kopurua igo egin zen, eta maileguen kopurua ere bai. Erabiltzaileei dagokienez, haurretan eman zen igoerarik handiena. Azpimarragarriak dira bertan burutu ziren zenbait programa, hala nola **Liburu Baby Kluba**, **Liburu Lab** edo **Ipuinaren Ordua**. Parte-hartzea handia izan zen, eta ezinbesteko erreferente bilakatu ziren. Programa hauek kalitatezko balio erantsia ematen diote **Tomasene Liburutegiari**.

Udaran, auzoko haurren aisialdia dinamizatzeko asmoz, ***Fresk-Uda*** izan zen liburutegiaren apustua. Uztailean zehar, asteartero eta ostegunero burutu zen, eta, ongi pasatzeko eta hizkuntzak ikasteko aitzakiarekin, gazte ugari hurbildu zen **Tomaseneko** areto nagusira.

Tomaseneko areto nagusian ere, maiatzean, ***Xerkak*** hitzaldi-erakusketa izan zen, **LGTBIQ+** kolektiboari eskainia, **Joseba Olagarai** eta **Martxel Larrazaren** gidaritzapean. Hilabete berean, **Udaleko Kultur Aniztasun Departamenduarekin** batera, jarduera desberdinak burutu ziren, horien artean ***Salsa Caleña*** dantza-ikuskizun ikastaroa.

Urriaren 23an, **Liburutegien Nazioarteko Eguna** ospatze aldera, **Patata Tropical** konpainiaren ***Tximeletak*** antzerkia antzeztu zen, haur txikiaren gozagarri. Azaroaren 12an, **Ibai Arrieta** argazkilariak ***Janela, leiho bat Gorka Urbizuren unibertsora*** proiektzioa aurkeztu zuen lehen aldiz **Tomaseneko** areto nagusian. Goi mailako pieza izan zen, maisu-lana, **Gorka Urbizuren** kontzertu-sortaren bezperan.

Urteurrenei erreparatuz, ezin ahaztu **Mikel Zabalza**ren atxiloketa eta desagertzearen **40. urteurrena** ospatzen zela. Mikel auzoko bizilaguna zen hilda azaldu zenean. Ingurumari honetan, tortura hizpide duen ***Arg(h)itzen*** filma proiektatu zen. Bestalde, erakusketa eta mahai-inguru ezin interesgarriago bat egin ziren, **Iñigo Iruin** abokatuaren eta **Paco Etxeberria** forentsearen parte-hartzearekin.

MURALAK

Ekialdeko Barrutiaren enkarguz, 2025ean bost mural exekutatu ziren edo exekutatzen hasi ziren **Altzan**. Apirilean eta maiatzean, **GKO** artista tolosarrak bi sorkuntza-prozesu gidatu zituen, **Altza BHI** institutuan eta **Bidebietako Bideberri Institutuan**, hurrenez hurren.

Uztailean, **Nexgraff** artistak Altzako historia jasotzen duen mural panoramiko zoragarria margotu zuen **Arriberrii**kastetxearen azpialdeko paretan.

Urtearen azken hiruhilekoan, beste bi sorkuntza-prozesu abiatu ziren: bata **La Salle San Luis** ikastetxean eta bestea **Herri Ametsa Ikastolan**. Azken bi prozesu artistiko hauen kudeaketa bideratzeko, **SorTwo** artistak hartu zuen testigua.

ASTE SANTUKO ETA GABONETAKO LANTEGIAK

Lantegi interesgarriak izan ziren opor garaletan.

Aste Santuan, honakoak burutu ziren: **Irrati lantegia**, **Inko Martin** irakasle eta **2025eko Ondas Saridunarekin**; **Kamishibai lantegia**, **Mattin** marrazkilaria eta artista altxatarrarekin; eta **Globoflexia lantegia**, ohiko begiraleekin.

Gabonetan, bestalde, **Irrati lantegia** eta **Komiki lantegiak** izan ziren, hurrei eta nerabezaro bidean dauden gaztetxoei zuzenduak.



Bideberri Institutuko murala

DK IRRATIA

Donostia Kultura Irratiak Casares-Tomasene Kultur Etxeatik igortzen du, **FM 107.4** sintonian eta *streaming* bidez.

Berrikuntzen atalean, **DK Sessions** ekimena abian jarri zen. Bertan, musikari ezagun batek abesti bat grabatzen du estudioan, eta grabazio-prozesua jasotzen duen bideo labur batez lagunduta argitaratzen da. **DK Sessions** multimedia pódcasta da, eta bertan sormen-prozesuaren alderdi intimoena aztertzen da. Hainbat musikari ezagunek parte hartu zuten ekimenean: **Maite Larburu**, **Amorante**, **Sua Enparantza** eta **Kiliki**. Ekimenak harrera bikaina izan zuen, eta, hastapenetan izanik ere, ikustaldi kopurua oso altua izan zen.

Bestalde, **DK Irratiako** pódcasten entzule kopuruak gora egin zuen, eta irratsaioak aurreko urteetako kopuruetan mantendu ziren.

Ikastaroei dagokionez, kopurua hazi egin zen. Urte osoko bi ikastaro eskaini ziren: **Olga Granderen Crea tu propio pódcast** eta **Inko Martinen Taller de radio creativa**.

Hamaika Entzuteko! lehiaketari dagokionez, hamaika lan aurkeztu ziren. Aurkeztutako pódcasten maila aparta izan zen, eta irabazleekin **Ispilu Beltza** irratsaio berezi bat grabatu zen.

Lan guztiak **Donostia Kulturaren** webgunean entzungai egon ziren, urtean zehar kultur etxe desberdinetan burututako hitzaldien eta mahai-inguruen grabaketekin batera. Zentzu honetan, urrats bat aurrera eman zen, eta **Donostia Kulturaren** webguneko edukiak aberastu ziren.

ALTZAKO BILDUMA

Altzako Tokiko Bilduma Donostia Kulturak eta **Altzako Historia Mintegiak** Altzako ondare dokumentala bildu, kontserbatu eta ezagutarazteko sortutako dokumentazio-zerbitzua da. Tokiko Bildumaren datu-baseak **23.881 dokumentu** zituen urte amaieran; 2025ean **674 dokumentu berri** bildu, digitalizatu eta katalogatu ziren, horietatik **425 artxibo-dokumentu**, **88 argazki**, **72 bideo** eta **75 hemerrotekako dokumentu**. Gainera, 2025ean **2.956 dokumentu** berrikusi ziren, eta funts bibliografikoaren garbiketa, katalogazio eta antolaketa lanak egin ziren.

Dokumentu horiek guztiak *altza.info* webgunearen bidez eskuratu daitezke. Bildumak hedapen handia izan zuen, eta bere aholkularitza-zerbitzua **309 pertsonak** erabili zuten. Bisitari digitalei dagokienez, webguneak **12.000 mila sarrera** izan zituen. Telefonoz, posta elektronikoz edo sare sozialen bidez **196 pertsonari** arreta eman zitzaion. Azkenik, **Estiba**s blogean **13 artikulua** igo ziren.

2025ean hiru erakusketa antolatu ziren. Hasteko, **Ilusio galduen kronika: Altza 1931-1937** otsailean eta ekainean **Altzako Udaletxean** eta azaroan **Tomasene Liburutegian** izan zen. Martxoan, **Aldaketen garaian (70. eta 80. hamarkadak)** Tomasene Liburutegian izan zen, eta abenduan, **Altzako txokoak Galarzaren postaletan**, izan zen.



Amaia Urkiza hitzaldia



Altzatik abiatutako ibilbideak

PLUS 55

Nahiz eta aurreko urtean baino jarduera gutxiago burutu ziren, erabiltzaile kopurua mantendu zen. **Plus 55** programa **Casares Kultur Etxean** integratutako zerbitzu gisa finkatu zen, urtean zehar adineko pertsonen artean kultura eta hezkuntza sustatzen zituzten jarduerak bultzatuz, kolektibo honen eskaerei erantzunez eta parte hartzeko interesa zuten guztiei aholkularitza- eta laguntza-zerbitzua eskainiz. Aipagarriak izan ziren, besteak beste, **Mugikorreko ikastaroak**, **Bideo-forumak**, **Antzerki amateurrak** eta Altzan zehar buruturiko **Txangoak**.

JARDUERAK

14

Antzerkia (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 1.930

4

Zinema (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 166

317

Bilerak eta elkarteen ekitaldiak
Erabiltzaileak: 7.601

0

Gaztelekua
Erabiltzaileak: 0

1

Dantza (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 74

18

Hitzaldiak eta mahai-inguruak
Erabiltzaileak: 758

164

Liburutegiko jarduerak
Erabiltzaileak: 2.184

0

Haurtxokoa
Erabiltzaileak: 0

3

Musika (kontzertuak)
Erabiltzaileak: 268

6

Erakusketak
Erabiltzaileak: 2.604

60

Plus 55
Erabiltzaileak: 1.665

0

Bestelakoak
Erabiltzaileak: 0

Guztira
587
jarduera

17.250
erabiltzaile

ZERBITZUAK

59.095

bisitaldi
Liburutegia

0

bisitaldi
Haurtxokoa

12.000

bisitaldi
Altzako bilduma web

0

bisitaldi
Bideo tailerra

0

bisitaldi
Ikasgela

0

bisitaldi
KZgunea (Nabigazioak)

15.629

bisitaldi
DK Irratia web

0

bisitaldi
Musikagela

0

bisitaldi
Gaztelekua

349

bisitaldi
Altzako bilduma

5.170

bisitaldi
Ispilu beltza magazine-podcasta

2.851

bisitaldi
Musika Eskola

Guztira
95.650
BISITALDI

556

bisitaldi
Plus 55

PRESTAKUNTZA

Ikastaro-
eskaintzaOsatutako
ikastaroak

Erabiltzaileak

Emakumeak

Gizonak

GUZTIRA	385	283	1.896	1.286	610
2024-2025 IKASTAROAK	74	33	443	359	84
Ikasturte osokoak (2024ko urria - 2025eko maiatza)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	39	6	62	58	4
Gaztelaniaz	33	27	381	301	80
Bigarren lauhilekoko ikastaroak (2025eko otsailean hasita)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	2	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
2025-2026 IKASTAROAK	84	39	482	390	92
Ikasturte osokoak (2025eko urria-2026ko maiatza)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	40	14	140	104	36
Gaztelaniaz	34	23	324	272	52
Lehenengo lauhilekoko ikastaroak (2025eko urria-abendua)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	3	0	0	0	0
Gaztelaniaz	6	2	18	14	4
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	1	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
CURSOS PUNTUALES	10	10	110	64	46
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	10	10	110	64	46
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
KZgunearen IKASTAROAK	47	46	207	76	131
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	170	155	654	397	257

KULTUR ETXEETARA egindako bisitak, guztira 97.711
CASARES K.E.: 37.851 / TOMASENE K.E.: 59.860



Itzaliko Bagina, Bertso Aroa

77

LARRATXO

Kultur Etxea

2025ean zehar **Larratxo K.E.**an burututako jarduera kopurua ezohikoa izan zen. Ekitaldi hauetan artearen hainbat diziplina jorratu ziren, adibidez: haur antzerkia, amateur antzerkia, musika jaialdiak, dantza ikuskizun profesionalak eta amateurak, sevillana dantzaldiak, bideoklipen grabazioa, danborrada eta inauterietako entseguak, DK ikastaroetako ikasturte amaiera festa, eta abar luzea. Aniztasuna izan zen **Larratxo K.E.**ko programazioaren iparrorratza.

Larratxoko gune eszenikoan auzoko eragile askok beraien ekintzak garatu ahal izan zituzten. Arestian aipatutako taldeez eta jarduez gain, **ShowTime** dantza taldearen ikuskizuna, **Mintzodromoa**, auzoko eskolekin egiten den bertso saioa, **Gu ere bertsoan**, ikasleei zuzendutako zinema proiektzioak, edota **Bizkarsoro** filma nabarmendu beharko lirateke.

Ezin ahaztu Larratxo K.E.ko ikastaroekin. **Salsa eta bachata** ikastaroa lehen aldiz martxan jarri zen eta aurreko urteko gainerako ikastaroak errepikatu ziren, hots, **Baile en línea**, **Euskal Dantzak** eta **Zumba**. Dantza ikastaroek **Larratxo K.E.**an erro sakonak dituztela frogatu zen.



Lagunekin topa, Potx eta Lotx



Kutxartean, Teatro Paraíso

HAUR ANTZERKIA

Haur antzerki programazioari dagokionez, urtarrilean hiru izarretako kutixi bat antzeztu zen guneez eszenikoan: **Teatro Paraíso**ren **Kutxartean**. Otsailean, aldiz, **Nafarroatik Ene Kantak** konpainia etorri zen Larratxo K.E.ra, urteko lehen soldout-a erdietsi zelarik. Ostera, martxoan, **Eidabe** konpainiaren **Kuku: ezkutuan dauden emakumeak**, antzezlaren txanda izan zen eta argi-itzal eta flashback joko polit batekin publikoa norbereganatu zuten.

Ikasturte berriarekin, **Didau** konpainia zarautzarraren **Hazia: bidaia handi baten istorio txikia** ikuskizuna taularatu zen haurren gozameneko. Azaroan, aldiz, **Potx eta Lotxek** hartu zuten erreleboa **Lagunekin topa** ikuskizuna taularatu. Urtea amaitzeko, abenduan, **Markeliñe** konpainiak **Zepo-Zapo** ikuskizuna plazaratu zuen, gerren aurkako alegatu ederra.

ANTZERKI AMATEURRA

Urtarrilean **Pixkolabis** konpainiak **Puertas abiertas** antzezlana eskaini zuen Larratxoko guneez eszenikoan. Urte amaiera aldera, **Gau Beltzarekin** bat eginez, **Los Guachindanguitos** taldeak **El gran showman** arrakastatsua eskaini zuen **Larratxo K.E.**an. Abenduaren 4an **ONCE**ko antzerki konpainiak **Clarabett tu cabaret** obra oholtzaratu zuen.

LARRATXO LIBURUTEGIA

Larratxo liburutegian irakurketa sustatzeko ekimenak bultzatu ziren, hala nola, **Ipuinaren ordua** eta **Liburu Baby Kluba**. Erabiltzaile eta mailegu kopurua hazi egin zen.

EMAKUMEAREN ASTEA

Martxoaren 3tik 6ra **Emakume astearen 40. edizioa** ospatu zen **Elkarte Berri**, **Ostadar** eta **Uztai-Belar** emakume elkarteekin batera, auzoko funtsezko aliatuekin.

Azpimarragarria **Ausartak** antzerki taldearen **La boda de Betty Blue** eta **Naiara Arnedoren Con M de Maite** komedia barregarria. Lehen eguneko aurkezpenarekin batera, **Laura Veraren** eskutik hitzaldi interesgarria izan zen, **Eneko Goiaren** presentziarekin, une horretan **Donostiako alkatea**.



La boda de Betty Blue, Ausartak

MUSIKA JAIALDIAK

Nabarmendu behar da 2025 urtean bi musika jaialdi gehiago izan zirela **Larratxo K.E.**ko espazio eszenikoan: **Donostia Pro-Tech Metal Fest** eta **Burdina astintzen**. Bi jaialdiak arrakasta itzela izan zuten, nahiz eta publiko minoritario batentzat programatu ziren, progressive estiloko zaletuen nahiak asebetetzeko eta euskarazko heavy maitaleen irrikak asetzeko, hurrenez hurren.

Otsailaren 15ean **XXIII. Heavy Jaia** ospatu zen. **Divine Vision** talde italiarrak erakustaldia eman zuten eta ohiko play-back lehiaketa eta giro bikaina izan zen. **Patxa** eta **Savaged** taldeek osatu zuten kartela.

Hilabete beranduago, martxoan, **XIV Euskal Metal Fest** ospatu zen. **Sauron** talde espainiarra izan zen kartel-buru eta sarrera guztiak agortu ziren.

Apirilean arestian aipatutako **Donostia Pro-tech Metal Fest** jaialdiaren lehen edizioa ospatu zen eta sarrera oso duina eta estatuko komunikabide espezializatuen laudorioak erdietsi ziren. Kasu honetan, **Fractal Universe** talde frantziarra izan zen kartelburua, eta **Lamprea** talde gipuzkoarrak kritika onak jaso zituen. Jaialdiaz harago, aipagarriak izan ziren doako masterclassak.

Hilabete berean, **Lindy Hop** jaialdia izan zen. **Crazy Jazzers** talde bilbotarrak maila ona erakutsi zuten eta zaletuek gozatua hartu zuten. Udaberrian oraindik, maiatzean, **Burdina astintzen** jaialdia burutu zen. **Asgarth** taldearen zuzeneko gogoangarria izan zen.

Ikasturte berriari hasiera emanez, urriaren amaieran **Metal Norte** jaialdia ospatu zen. **Tierra Santa** taldeak sarrera guztiak agortu zituen. Azaroan, aldiz, **Zombie jaialdia** ospatu zen eta **Zenobia** eta **Killwolf** taldeek muntaketa eta ikuskizun bikaina eskaini zuten.

Jaialdien testuingurutik at, irailean Larratxoko jai txikietan, **Peppermint Sextet** latin jazz taldea izan zen **Larratxoko plazan**. Oholtzaren laguntzarik gabe, kalean bertan egin zuten kontzertua eta giro bikaina jarri zuten.



Euskal Metal Fest

BERTSO AROA

XXV. Bertso Aroa ospatu zen auzoan. Ekainean **Harria parkean** egin zen bertso saioan **Aner Peritz, Miren Artetxe** eta **Maidar Arregik** ikuskizun polita eskaini zuten. Auzoko bertso paper lehiaketaren sari banaketa egin zen okasioa probestuz.

Irailean **Itzaliko bagina** ikuskizuna taularatu zen Larratxo K.E.an. Ikuskizun berezi honetan antzerkia, bertsoa eta performancea uztartu ziren.

Azkenik, urriaren amaieran **Bertso saio literarioa** burutu zen **Tomasene liburutegian**. **Maialen Lujanbio, Miren Amuriza** aurrez aurre eta **Mari Luz Esteban** gai jartzaile gisa.

DANTZA IKUSKIZUNAK

Maiatzaren amaieran **Sevillanak jaialdia** burutu zen Larratxo K.E.an. Azaroan, **Literaktum** zikloaren testuinguruan, **Kukai dantza taldeak** eta **Maite Larburuk Klera** ikuskizuna aurkeztu zuten **Larratxo K.E.**an. Bigarren aldia zen maisulan hau taularatzeko zena; lehen aldia **Haur eta gazte literaturaren Espainiako sari nazionala** eskuratu eta gero.

Hori gutxi balitz, abenduan, **Kresala Dantza Taldeak Hitaz Or(h)oit** ikuskizuna taularatu zuen, **Giza eskubideen nazioarteko egunaren** testuinguruan.



Sevillanak Jaialdia



Klera, Kukai & Maite Larburu

JARDUERAK

15

Antzerkia (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 2.240

4

Dantza (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 757

7

Musika (kontzertuak)
Erabiltzaileak: 1.866

1

Zinema (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 120

2

Hitzaldiak eta
mahai-inguruak
Erabiltzaileak: 282

0

Erakusketak
Erabiltzaileak: 0

52

Bilerak eta
elkarteen ekitaldiak
Erabiltzaileak: 2.534

67

Liburutegiko
jarduerak
Erabiltzaileak: 1.388

4

Plus 55
Erabiltzaileak: 465

0

Gaztelekua
Erabiltzaileak: 0

0

Haurtxokoa
Erabiltzaileak: 0

0

Bestelakoak
Erabiltzaileak: 0

Guztira
152
jarduera
9.652
erabiltzaile

ZERBITZUAK

18.664

bisitaldi
Liburutegia

0

bisitaldi
Ikasgela

0

bisitaldi
Gaztelekua

0

bisitaldi
Haurtxokoa

0

bisitaldi
KZgunea
(Nabigazioak)

0

bisitaldi
Altzako bilduma

Guztira
18.664
BISITALDI

0

bisitaldi
Altzako bilduma web

0

bisitaldi
DK Irratia web

0

bisitaldi
Ispilu beltza
magazine-podcasta

0

bisitaldi
Bideo tailerra

0

bisitaldi
Musikagela

0

bisitaldi
Musika Eskola

0

bisitaldi
Plus 55

PRESTAKUNTZA

Ikastaro-
eskaintzaOsatutako
ikastaroak

Erabiltzaileak

Emakumeak

Gizonak

GUZTIRA	30	10	154	111	43
2024-2025 IKASTAROAK	14	3	58	51	7
Ikasturte osokoak (2024ko urria - 2025eko maiatza)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	7	1	20	14	6
Gaztelaniaz	7	2	38	37	1
Bigarren lauhilekoko ikastaroak (2025eko otsailean hasita)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
2025-2026 IKASTAROAK	13	4	73	60	13
Ikasturte osokoak (2025eko urria-2026ko maiatza)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	6	1	18	13	5
Gaztelaniaz	6	3	55	47	8
Lehenengo lauhilekoko ikastaroak (2025eko urria-abendua)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	1	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
CURSOS PUNTUALES	3	3	23	0	23
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	3	3	23	0	23
KZgunearen IKASTAROAK	0	0	0	0	0
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	0	0	0	0	0

KULTUR ETXERA egindako bisitak
Guztira 18.408

Egia Kultur Etxea

20  25





Burnt, Lasala

EGIA Kultur Etxea

2025eko ekitaldian, **parte-hartze maila handia** izan zuten **Egia Kultur Etxean** eskainitako zerbitzuek eta jarduerak. Erantzun bikaina izan zuen ikastaro-eskaintzak, bai parte-hartzaile kopuruari dagokionez, bai ikastaro-bolumenari dagokionez, eta euskaraz zein gazteleraz eskainitako programazio ia gehiena bete zen. Askotariko diziplinak jorratu ziren ikastaroetan, euskaraz zein espainieraz: dantza garaikideak, funkyak, *jumping*-ak, joskintzak, marrazketak eta pinturak, argazkilaritzak, DJ ikastaroak eta altzariak eraberritzen ikasteko eskaintzak adin guztietako herritarrek erakarri zituzten.



LIBURUTEGIA

Haurrei zein helduei zuzendutako jarduera-programa oparoarekin jarraitu zuen liburutegiak: **Liburu Baby Kluba**, **Liburulab**, **Ipuinaren ordua**, **Literatur solasaldiak**, **Zifiegia**, liburutegiko bisita gisatuak eta **Atzegi** elkartearekin lankidetzan garatutako **Irakurketa erraza** jarduera, **Plus 55 Irakurketa Klubaz** gain; azken ekimen horretako saio bakoitzean, **70 eta 90 urte** bitarteko **25 bat lagunek** hartu zuten parte.

Halaber, zeinuen hizkuntzan hilero egiten den ipuin-kontaketa saioekin ere jarraitu zuen liburutegiak, eta 2025ean ere **Frikiegia** ospatu zen, Harrotasun Frikiaren hilabetea; auzoko gazteek zein ez hain gazteek rol- eta mahai-jokoez, japoniar mangarekin lotutako *trivialez* eta zinemaz, oro har, gozatu ahal izan zuten, eta **Kaseteen Birbobinaketa Munduko Txapelketaren III. edizioa** ere jokatu zen, hori dena zozketa, sari eta guzti.

Plus 55 programarekin eta **Berriztu** elkartearekin lankidetzan, hainbat jarduera berezi eskaini ziren, hala nola **Giza Liburutegia**, elkarriketaren bitartez ezagutzak eta bizipenak trukatzera bideratutako egitasmoa, hainbat gairen inguruko aurreiritziak desegiteko espazioa sortu

zuen, hala nola suizidioa, buruko gaixotasunak, bakardadea, droga-mendekotasunak, pobrezia eta immigrazioa. Gainera, **laugarren aldiz egin zen ikasturte amaierako AMOurRte erreztaldia Plus 55 Irakurketa Klubeko** parte-hartzaileen eskutik, Puy Barralen gidaritzapean; partaideek eurek sortutako testuak irakurri zituzten, entzule talde handi baten aurrean.

Egia Gaztelekuarekin eta **Plus 55** zerbitzuarekin lankidetzan, belaunaldi arteko tailerrak ere egin ziren. **Gau Beltza** ospatu zen, eta gazteek eta adineko pertsonak liburutegia apaindu zuten, ipuin beldurgarrien kontaketa entzun zuten —**Teo Santamaría**, **Virginia Vera**, **Alicia Ardanaz** eta **Conchi Barredo** kontalarien ahotik—, eta ospakizunarekin bat zetorren askaria prestatu eta jan zuten. Halaber, **Ebla** liburu-dendarekin elkarlanean, rol-saio bat antolatu zen, eta jende askok hartu zuen parte.

Gure ingurune hurbileko idazleek ere izan zuten presentzia liburutegian, eta tonu eta gai askotako liburuak aurkeztu zituzten. Testuinguru horretan, **Lander Garro** eta **Mila Salterain** ere izan genituen, beraien azken argitalpenak aurkezten.



Ondoko

PLUS 55

Plus 55 eskari handia duen funtsezko zerbitzua bihurtu da urte hauetan. Nabarmentzekoa da 2025ean **belaunaldi arteko jarduera** gehiago antolatu zirela, auzoko hainbat zerbitzuek eta baliabiderek lankidetzan. Esparru horretan, nahi gabeko bakardadeari buruzko horma-irudi bat egin zen **María Reina ikastetxearekin** batera, eta **Egiatarra Erretiratuen Elkarte**an geratu zen ikusgai.

Halaber, **Berriztu Elkartearekin** lankidetzan, hainbat gairen inguruko **zazpi saio** egin ziren, tartean **Giza Eskubideen departamentuak Giza Eskubideen Egunaren** (abenduar 10) harira antolatutako bisita bat. Testuinguru horretan

garatu zen **PaseARTE** ibilaldi interaktiboa, eskubide horiek hobeto uler daitezen sustatzeko helburuz. Hiriko eskultura publiko sorta batean zehar antolatutako ibilaldi baten bitartez, hainbat jai jorratu zituzten, hala nola askatasuna, indarkeria, genero-berdintasuna eta memoria historikoa.

Mafalda Saloioren Ondoko antzerki- eta dantza-tailerrean eta **Igor Calonge** koreografoaren dantza garaikideko dantza-ikastaroan plaza kopurua handitu behar izan zuten eskariari erantzun ahal izateko; horrela, urte osoko **bi ikastaro** eskaini ziren.

On do ko ikuskizun berezia da, **73 eta 97 urte** bitarteko protagonistekin, tailer horretan egindako lan komunitarioa erakusten duena. Heldutasunaren, hauskortasunaren eta indarraren gorazarre gisa eratu zen proposamena, bidaia sensorial eta emozional bat planteatzen zuena, arteak zahartzearen inguruan dauden ikuspegi estereotipatuak eta ereduak eraikitzen, betiketzen eta zalantzan jartzen betetzen duen rolari buruz hausnartzera gonbidatzen zuena.



Sempere, OtraDanza

Dantza

Gazteszenak, bere proposamenak erakusteko espazio bat ez ezik, sortzeko, elkartzeko eta proiektuak baldintza teknikorik onenetan garatzeko gune izaten jarraitu zuen. **Egonaldien programa** dagoeneko erreferente bihurtu da dantzaren munduan; hainbat euskal konpainiak egin zituzten egonaldi teknikoak, eta beraien estreinaldiak ere aurkeztu zituzten.

Bi konpainia hasiberrik aurkeztu zituzten beraien lehendabiziko lanak: **DAB Konpainiak Azala** lana, eta **Eneko Gilek**, berriz, **Vulnerable**. Bi estreinaldietan bete zen **Gazteszena**. Beste proposamen nabarmen batzuk izan ziren **Haatik Konpainiaren Ots**, **Jone**

San Martín koreografo donostiarrarekin elkarlanean; **Osa+Mujika** konpainia donostiarraren **Lana** obraren aurkezpena, egonaldi tekniko bat egin ondoren; eta **Cielo Raso** konpainiaren zuzendari den **Igor Calonge** koreografo donostiarraren **Euforia** ikuskizunaren estreinaldia.

Programazioa osatzeko, **OtraDanza** konpainia izan genuen, **Sempere** obrarekin, eta **Daniel Abreu** eta **Diego Pazo** bikotea, **Estamos aquí** lanarekin. Oro har, dantza garaikideko interes nabarmeneko programazioa eskaini zen, proposamenen kalitate handia eta sortzaileen zein dantzarien maila artistiko handia ezaugarri zituena.

2025ean ere, **Zinetika** jaialdiarekin kolaboratu zen, eta **AzkonaToloza** kolektiboaren **Cuerpos celestes** lana aurkeztu zuen; Zinetika diziplina anitzeko jaialdia da, dantzaren, zinemaren eta teknologia berrien arteko harremanak arakutzen dituena. Halaber, espazio eta lengoia eszeniko berrien **LABO XL** jaialdiarekin kolaboratu zuen Egia Kultur Etxeak, eta **Marcos Martincano** artistaren **Hacer torrijas como acto de resistencia** aurkeztu zuen jaialdi horrek **Gazteszenan**.

Kalitate-maila handia ezaugarri izan zuen 2025eko arte eszenikoen programazioa **Redescena** sarearekiko eta sare horren **Danza a Escena** programarekiko zein **Dantzaren Euskal Zirkuituarekiko** lankidetzari esker garatu zen.



Renata, Kamikaz Kolektiboa



Ákri, Manel Rosés

ANTZERKIA

Euskal konpainien presentziari lehentasuna eman zitzaien antzerki-eskaintza osatzerakoan, batez ere beraien proposamenak euskaraz aurkezten dituztenei. Lan-ildo horrek **Donostia** eta **Gipuzkoako** publikoarentzako erreferente gisa egonkortu zuen **Gazteszena**.

Nabarmentzekoak dira honako hiru proiektu hauek, gainera aretoa betetzea lortu zutenak emankizun guztietan: **Kamikaz Kolektiboa**, **Renata** obra estreinatu zuena; **Dejabu Laborategia**, **Itzulera** izeneko bere lanarekin; eta **Axut!. Nor naizen baneki** proposamenarekin. Konpainia abangoardistak dira, bereziki garrantzitsuak euskal antzerkigintzan.

Vaivén Producciones euskal antzerkiaren erreferente garrantzitsuenetakoa izan da ia hiru hamarkadaz, eta **El último vaivén** lanarekin esan zien behin betikoz agur eszenatokiei. **Gazteszenan** agurtu zen, lagun askok babestuta, bere ibilbideari amaiera emateko, **Redada Familiar** lana antzeztu zuen, emozioz betetako gau batean.

Zirko garaikideak ere presentzia nabarmena izan zuen. **Manel Rosések** **Ákri** aurkeztu zuen, **FETEN 2025** jaialdian ikuskizun onenaren saria jaso zuena; **Rauxak** ikuskizun aparta eskaini zuen **Ánonimos** lanarekin; **Nueveunok** harridura eragin zuen **Todo es posible** obrarekin; eta **Federico Meninik** arkitektura eta zirkoa uztartu zituen **Llar** ikuskizunean.

Haur- eta familia-antzerkia ere ekarri ziguten erreferentziazko konpainiek. **Aracaladanza** dantza-konpainia ospetsuak konpositorearen unibertsora modu ludikoan hurbiltzea proposatu zuen **Va de Bach** lanarekin. **Literaktum** jaialdiaren barruan, **Logela Multimedia** sorkuntza-taldeak **Semafora** aurkeztu zuen; **Mar Mar Teatroa** konpainiak berriz, **Elara** izarretarako bidaiarekin parte hartu zuen.

Eskolatik Antzokira programak **Rauxa** konpainiaren **Anónimos** lanaren, **Tanttaka** taldearen **Sexberdinak** obraren; eta **Aracaladanza** konpainiaren **Loop** dantza-ikuskizunaren **19 emanaldi** eskaini zituen. **Gazteszenatik Donostiako** hainbat ikastetxetako **1.796 ume** pasatu ziren.

Aitor Ikastolak Antzerki Astea ospatu zuen 2025ean ere, harrera bikainarekin. Programa horri esker, ikasleek beraien lan artistikoa **Gazteszena** erakutsi ahal izan zuten, eta publikoaren aintzatespena eta txaloak jaso zituzten.

Gazte Antzerki Topaketetan, Santo Tomas Lizeoak In memoriam eta **Hautsitako ispilua** lanekin parte hartu zuen, biak ere senior kategorian aipamen berezia jasotakoak. **Badaezpada** taldeak, bestalde, **Éxtasis** aurkeztu zuen, eta **Zurriola Antzerki Eskola** izan zen irabazlea senior kategorian, **Denbora** proposamenarekin.

Ingurumenaren arloan, arrakastaz finkatu zen **Ur-Umeak** zeharkako proiektua; udaberrian zein udazkenean, hainbat ekimen gauzatu zen **Martutene** auzoan, **Arantzazuko Ama Ikastolako** lehen hezkuntzako ikasleen, **Gazteleku/Haurtxokoaren**, **Cristina Enea Fundazioaren**, **Itsas Museoaren** eta **Martuteneko Auzo Elkartearen** parte-hartze aktiboarekin.

Memoria historikoaren esparruari dagokionez, nabarmentzekoa da **San Telmo Museoaren Galarza Argazki Funtseko** irudiekin egin zen erakusketa; urritik abendura egon zen ikusgai **Loiola Kultur Etxean**. Erakusketa hark balioa ematen zien **Loiola** eta **Martutene** auzoei, baita auzo guztiak zeharkatzen eta komunikatzen dituen **Urumea** ibaiari ere.

Aisialdiari eta aisiari dagokionez, eta **Gau Beltzaren** testuinguruan, hirugarren urtez jarraian antolatu zuen **Sustrai Aisialdi Taldeak Kluedo. Nor da hiltzailea?** jolasa, azaroaren 1ean, **Loiola Kultur Etxean**. Arrakasta handia izan zuen ekimenak, eta aurreko urteko parte-hartze marka gainditu zuen; horrela, erreferentziazko jarduera bihurtu zen, ez auzoan bakarrik, baizik eta hiri osoan.

Liburutegiak ikastetxeentzako bisita gidatuekin jarraitu zuen, eta **Ikasbide Ikastola, La Salle Donostia** eta **Arantzazuko Ama Ikastola** ikastetxeetako ikasleen bisita jaso zuen.

Loiolatarra K.E. zein **Hontza** elkarteek Kultur Etxearekin lankidetzan garatu zituzten beraien proiektuak eta, horrela, nortasuna eman zioten auzoari, eta herritar guztientzako intereseko gune bihurtu zuten. Adibidez, **Loiolatarra K.E.** elkarteak **XXVI. Mikologia Jardunaldiak** antolatu zituen, eta jende askok hartu zuen parte jarduera guztietan: mikologia-ikastaroak, sukaldaritza mikologikoari buruzko tailerrak eta asteburuko jaia urrian —bildutako perretxikoak bildu, hautatu eta sailkatu ziren—, bai eta **Perretxikoaren Jaian** eta auzoko tabernek antolatu eta sustatutako pintxo-dastaketan ere.

Oso erantzun ona izan zuten urtean zehar antolatutako erakusketek, artista ugari nabarmenduz eta haiei balioa emanez. Horien artean, azpimarratzekoak dira **Stephen Webben Paper Cuts**, besteak beste, **Loiola Apain** ekimenean kolaboratu duen artista; bere jarduera auzoan erreferente den **La Droguería** lokalean garatzen duen **Iker García** artistaren **Donostiako paisaiak**; **Dedesdefuera**, **Javier Brizuelarena**, zeinetan hiri-graffitien eta oinarrian dituzten arazoenguz inguruan hausnartzen zuen; **María Urraren Jainkosak** erakusketa, artistaren beraren *performance* batekin inauguratu zena eta emakumeen boterearen memoria bizia eta antzinakoa nabarmentzen zuena; eta **Mikologia Jardunaldietako** erakusketa, eta **Aitziber Alonso** eta **Nerea Loiolaren Irabazi arte**.

Udaberrian, **Baratzalanda edo Hiri baratza** egitasmoa garatu zen, aurreko urtean martxan jarri zena, **Agifes** elkarteko eta **Plus 55** programako erabiltzaileekin lankidetzan; proiektu horren bitartez, modu autonomoan kudeatzen da kultur etxeko patioko baratza. Ekimen horretan, beharrezkoa da azpimarratzea **Cristina Enea Fundazioak** ere kolaboratzen duela.



Dedesdefuera erakusketa, Javier Brizuela



Paper Cuts erakusketa, Stephen Webb

Lan komunitarioari dagokionez, kultur etxea **Udaberri-Fest 2025** jaialdia antolatzeko lanetan inplikatu zen **Martutene** auzoko gainerako eragileekin batera, eta maiatzaren 30ean, Martuteneko **Arantzazuko Ama Ikastolako** patioan antolatutako ekitaldi guztiez gozatu ahal izan zuen publikoak. Halaber, jai horretan bertan aurkeztu zen **Ur-Umeak** zeharkako proiektua auzotarren aurrean.

Udako programazioan, bestalde, auzoetako jaiak zein **Kultur Etxeak** berak antolatutako ekitaldiak nabarmendu behar dira; horrela, jaien atariko modura, **Denok plazara** ikuskizuna eskaini zuen **Pontx** pailazoak Latsari plazan, eta **Fresk Uda** jarduera ere egin zen; ekimen horretan, haurrek, literaturaren eta sormenaren eskutik, irakurzaletasunaren plazera bizi izateko aukera izan zuten, liburu, abesti, eskulan, musika, antzerki eta jolasekin.

Plus 55 zerbitzuak aurreko urtean abian jarritako zerbitzuak garatu eta hobetu zituen, hala nola **Mugikor tailerra**, **Bizi Proiektua**, **Konekta Plus** eta **Ostiralak Dantzan**. **Marta Arsuagaren Loiolako** farmaziarekin kolaboratu zuen zerbitzuak eta, horri esker, hainbat hitzaldi antolatu zituzten, auzotarren zalantzei eta premiei erantzuteko helburuz. Hainbat gai jorratu zituzten, hala nola eguzkiaren arriskuak eta lo egiteko arazoak. Arrakasta eta parte-hartze handia izan zuten.



fresk Uda

Antzerki-eskaintzari dagokionez, maiatzean **Poltsiko Antzerkia** jaialdia ospatu zen; **Loiolaren** kasuan, **Juako Malavirgen** bakarriketariak **Cantando por los codos** ikuskizuna aurkeztu zuen **Gibelurdi** tabernan; **Martutenen**, berriz, bi antzezlan eskaini ziren **Etcharriene** zentroan. **Hamahiru** antzerki taldearen **Igogailu batean amaitu zen mundua**, **Donostia Kulturak** antolatzen duen **Poltsiko Antzerki Sorkuntza** sariketa irabazi zuena, eta **La maja y la mona (o viceversa)**, **Aroa Berozpe & Susana Soletoren** eskutik. Obra biek jaso zuten publikoaren txalo-zaparrada.

2025a urte oparoa izan zen ikuskizunei dagokionez **Loiolako** jaietan, **Kantukolore** kale-antzerki konpainiak **Txiki festa** antzeztu zuen, **Latsari** plazan egindako emanaldi arrakastatsu batean, **Orkresta** elektro-txarangak auzoko kaleak girotu zituen, auzotarrak abesten eta dantzan jarri zituzten abesti ezagunekin. **Martuteneko** jaietan, **Katxiporreta** izan zen protagonista, **Amazonia gara** ikuskizunarekin.

Urrian, **Loiola Vintage** jaialdia ospatu zen, **80s** izenburuarekin; jendetza erakarri zuen ekimenak, antolatutako kontzertuez gozatzera: **Iñaki de Miguelen** zuzendaritzapean eta hark koordinatuta, **Loiola Kultur Etxeko** areto osoa dantzan jarri zuten, **Iván Azkarate**, **Sara Grajal**, **Santi Romano**, **Anáis Mercury**, **Julen Morgado**, **Sara Escalante**, **Steffi Ley**, **Emilio Azkarate** eta **Thayàh Elimek**.



Txulalari, Txiki Festa Txomin Enea

Ahots gaztez osatutako **Skovoroda Choir** ukrainar abesbatzak emanaldia egin zuen **Abesbatzen Astean**, eta kontzertu bikaina egin zuen **Loiolako Jesusen Bihotza** parrokiaren **Literaktum** jaialdiaren barruan, **Pleibak**, bertsolaritza-ikuskizuna antolatu zen, **Miren Amurizaren** izen bereko lanean oinarrituta dagoena; ikuskizun horretan, **Ane Labaka** eta **Oihana Iguaran** bertsolariek, **Amurizarekin** berarekin batera, eta **Mice** musikariak lagunduta, obrako pasarte batzuen irakurketa musikatua eta bertso inprobisatuak tartekatu zituzten, gaurkotasunezko gaiei buruz hausnartuz.



Skovoroda Choir, Abesbatzen astea

Jaialdi beraren barruan, liburutegiak ipuin-kontaktako saio berezia antolatu zuen **Dorleta Kortazar** kontalariarekin, eta **Ameztu** taldearen **KayRobot** antzezlanaren **Loiolan, Plus 55. Soledades narradas** saio arrakastatsuekin eman ziztaion amaiera jaialdiari; errezitaldi horrek balioa eman zion literaturak eta bakardadearen arazoak adineko pertsonen kolektiboan hartzen duten lekuari. **Martutenen**, ordea, ilustrazio-tailerra egin zen **Etxarrienen**, **Asier Iturralde** irudigilearekin.

Euskararen Eguna ospatzeko, haurrentzako antzerkia antolatu zen, **Patata Tropikala** konpainiaren **Enperadorearen kondaira** antzezlanaren, hain zuzen ere.



Pleibak, bertso saio literarioa © Iñaki Rubio



Egin putz, Dorleta Kortazar © Iñaki Rubio



Arrainak bihotzean, Mar Mar

Gabonak zuretzat zikloaren barruan, **Eriz Magoaren Begizur** ikuskizunak gozarazi egin zien familiei **Etxarrienen**, eta haurrentzako **Eguberrietako apainketa tailerra** eta **Musika eta jolasak** tailerrek erantzuna eman zieten oporretan beraien alderdi artistikoena garatu nahi zuten haurrei. Ezin aipatu gabe utzi **Gospel zikloa**, **Santi Romano**, **Olatz Otxoa**, **Julen Morgado** eta **Jon Imanol Etxabek** osatutako **Southern Gospel Goiko Gela** taldearen emanaldiarekin, **Iñaki Miguel** zuzendariaren esanetara; Eguberrietako musika-kontzertua egin zuten, **Jesusen Bihotza** parrokiaren.

Berariaz familiei zuzendutako edukiei dagokienez, literaturarekin zerikusia zuten jarduerak izan ziren pisu handienekoak 2025ean: **Liburu Baby Kluba**, **Ipuinaren Ordua** eta **Zeu Irakurle** programek adin-tarte ezberdinen eta liburuen arteko harremanak estutzeko bitartekari-eginkizuna bete zuten astero, bai **Loiola Kultur Etxeko** liburutegian, bai **Martuteneko Amundarain** mediatekan.

LiburuLab jarduerarekin, hitzekin jolas egiteaz gain, protagonismo handiagoa eman zitzaion antzerkiari. Halaber, haurrentzako antzerkiak ere bere lekua izan zuen programazioaren barruan; horren erakusgarri izan ziren **Andrina Basandrina** ikuskizuna, **Zurumurru** antzerki-taldearena; **Desioak**, **Monda Lironda** konpainiarena, liburutegiarekin batera, **Liburuaren Eguna** ospatzeko eskaini zena; eta **Hazia** ikuskizuna, **Didau** konpainiarena, **Etxarrienen**; eta **Mar Mar** konpainiaren **Arrainak bihotzean** antzezlanaren, **Liburutegien Eguna** ospatzeko antolatua zena.

Eskainitako ikastaroei dagokienez, **Loiola Kultur Etxeak** aurreko urtean baino ikastaro gehiago eskaini zituen, batez ere euskarazko ikastaroak; horrela, jarduera hau ardatz nagusietako bat izan zen garatu zen ekipamenduetan, hots, kultur etxean, **Martuteneko Etxarriene** zentroan, eta **Txomin Eneako Lanberrin**. Horiez gain, **Loiolatarra K.E.**k eskainitako sukaldaritz-ikastaroak izan genituen.

JARDUERAK

18

Antzerkia (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 1.987

0

Dantza (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 0

10

Musika (kontzertuak)
Erabiltzaileak: 1.460

0

Zinema (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 0

4

Hitzaldiak eta mahai-inguruak
Erabiltzaileak: 93

7

Erakusketak
Erabiltzaileak: 2.720

44

Bilerak eta elkarten ekitaldiak
Erabiltzaileak: 2.867

151

Liburutegiko jarduerak
Erabiltzaileak: 2.096

41

Plus 55
Erabiltzaileak: 703

-

Gaztelekua
Erabiltzaileak: -

-

Haurtxokoa
Erabiltzaileak: -

12

Haur tailerrak
Erabiltzaileak: 127

7

Literatura-jarduerak
Erabiltzaileak: 219

Guztira
294
jarduera

12.272
erabiltzaile

ZERBITZUAK

44.331

bisitaldi
Liburutegia

0

bisitaldi
Ikasgela

0

bisitaldi
Gaztelekua

0

bisitaldi
Haurtxokoa

0

bisitaldi
KZgunea (Nabigazioak)

0

bisitaldi
Altzako bilduma

0

bisitaldi
Altzako bilduma web

0

bisitaldi
DK Irratia web

0

bisitaldi
Ispilu beltza magazine-podcasts

0

bisitaldi
Bideo tailerra

0

bisitaldi
Musikagela

0

bisitaldi
Musika Eskola

369

bisitaldi
Plus 55

Guztira
44.700
BISITALDI

PRESTAKUNTZA

Ikastaro-
eskaintzaOsatutako
ikastaroak

Erabiltzaileak

Emakumeak

Gizonak

GUZTIRA	72	52	738	604	134
2024-2025 IKASTAROAK	33	23	331	270	61
Ikasturte osokoak (2024ko urria - 2025eko maiatza)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	13	5	75	68	7
Gaztelaniaz	13	13	184	152	32
Bigarren lauhilekoko ikastaroak (2025eko otsailean hasita)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	1	0	0	0	0
Gaztelaniaz	6	5	72	50	22
2025-2026 IKASTAROAK	39	29	407	334	73
Ikasturte osokoak (2025eko urria-2026ko maiatza)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	15	9	117	104	13
Gaztelaniaz	15	14	204	173	31
Lehenengo lauhilekoko ikastaroak (2025eko urria-abendua)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	6	3	40	18	22
Gaztelaniaz	3	3	46	39	7
CURSOS PUNTUALES	0	0	0	0	0
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
KZgunearen IKASTAROAK	0	0	0	0	0
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	0	0	0	0	0

KULTUR ETXERA egindako bisitak
Guztira 74.737

Lugaritz Kultur Etxea

2025
DK
memoria





LUGARITZ Kultur Etxea

2025ean, umorea eta interes sozialeko gaiak izan ziren **Lugaritz Kultur Etxeko** programazioaren oinarria; jarduera bizia garatu zuen kultur etxeak, astelehenetik larunbatera. (59.000 bisitari; proiektzioetara joan zirenen datua).

Hainbat komiko hasiberrik jarri zuten beraien konfiantza aretoan, arrakasta handiarekin asistentziari dagokionez, honako hauen ikuskizunetan: **Taca Gómez, Jorge Bolaños, Lamine Thior, Miguel Noguera, Eden Serrano, Chares eta Teresa** eta **Luis Fabra** eta **Danny Boy-Rivera**. **Jon Plazaola, Alazne Etxeberria, Sergio Arrospide** euskal artistek eta **Maite Guevara** eta **Susto** bere konpainiak ere barrez jarri zuten bere aldetik dena eman zuen publikoa.

Eta, bizitzan bezalaxe, dena barrea ez denez, interes sozialeko hainbat gai eraman zen oholtzara, jendea asaldatzeko eta hausnarketa sustatzeko. **Sustrai Teatroa** konpainiaren **Gizon gosetuak** lanak Palestinako genozidioa Gerra Zibilarekin lotu zuen; **Jon Ander Urrestiren Eukalyptus** naturarekin batera bizitzeko dugun modua taularatu zuen; **Teatro Timbre 4** konpainia argentinarrak krimenaren morboa ikertu zuen **Tebas Land** antzezlanean; eta **Mararay Teatro** kolonbiarrek osasun mentala izan zuten aztergai **A veces grito** ikuskizunean. Ikuspegi feministatik, **Arta Kolektiboa** antzerki-taldeak ama-alaba arteko harremanak jorratu zituen **Sehaska kanta gorriari** antzezlanean; eta **Aquí nunca pasa nada** obrarekin, emakumeen esplotazioko Carioca kasua taularatu zuen **Teatro sin papeles**

konpainiak. Genero-gaiak eta sexu-aukerak jarri zituen oholta ganean **Algalope** konpainiaren **La doble vida de Virginia Woolf** antzezlanak, androginiari buruzko hausnarketarekin; baita **Gemma Almagro** eta **Izaskun Barbarieren** **Patatas arriba** satira garratzak eta homosexualen errepresioari buruzko **Javier Liñeraren** **Lohi gorria** ikuskizunak ere. Maite dugun jendearen heriotzak eta agurrak ere izan zuten euren lekua, **Oier Zuñigaren** **Eresia** lan hunkigarrian eta **Tripak Kolektiboaren** **Platea** lan korapilatsuan.

Haurrei eta familiei zuzendutako ikuskizunen atalean, berriz, **Mamut** ikuskizuna, **Markeliñe** konpainiarena; **Pin pang**, **Xabi Larrearena**; **Scrooge eta mamuak**, **Khea Zhiater** egitasmoarena; **Moko-Bilintx**, **Gorakada** antzerki-taldearen eskutik; eta **Anbotoko Mari**, **Logela Multimedia** konpainiarena. Magia ere izan genuen: **Freak Show**, **Thor eta Txoborro** magoen ikuskizuna; **Amets Magikoak**, **Oliver** magoarena, eta bere taldearena; eta **La gran gala**, **Telmo** eta bere lagunena.

Jaialdien atalean, martxoan, **dFERIA** azokaren eskutik iritsi zitzaizkigun **Reminiscencia** antzezlan dokumentala, **Exquisito** thriller gastronomikoa, eta **Soy azul**, zahartzaroari buruzko gogoeta. Maiatzean, berriz, **Poltsiko Antzerkia** jaialdiak Iparraldeko **Itzuli** konpainiaren **Adriene Bergson-Johnson** lana aurkeztu zigun; **Dania Díaz** ilusionista venezuelarra; eta **AmaHiru** konpainiaren **Igogailu batean amaitu zen mundua**. Azken ikuskizun gori **Lugaritzeko** ikasgeletan sortu zen udaberriari, eta arrakastaz itzuli zen aretora uda ostean. Azkenik, gaztez osatutako lau konpainiak hartu zuten aretoa **Gazteen Antzerki Topaketan**, eta udazkenean errepikatu egin zuen **Zurriola Antzerki Eskolaren** **Denbora** antzezlan sarituak.

Antzezlan amateur gehienek jendetza erakarri zuten, konpainien eta aretoaren atseginerako. Publikoaren txalo-zaparradak jaso zituzten **Puertas abiertas -Piskolabix-**; **Funanbulistak-Ultramarinos Kolektiboa-**; **La boda de Betty Blue -Emakume Ausartak-**; **La cantante calva-Teatro Estudio-**; **La gata sobre el tejado de zinc -Theatrola-** eta **Bernarda Clownaren etxea** eta **Izarrak buruan eta ibili munduan-Zurriola Antzerki Eskola-** antzezlanen emanaldiek. Halaber, nabarmentzekoa da **Bilbotik** euskarazko inprobisazioa lantzera etorri zen **Supituki** konpainiaren proposamena.

Haiei batu zitzaizkien erretiratuen elkarteen doako emanaldiak, **Plus 55** programaren eskutik, **Erdialde** taldearen **El cadáver del señor García** antzezlanarekin eta **La Sirena** tokiko antzerki-taldearen estreinaldia, **Muertos de la risa** lanarekin. Aipatzekoak dira, halaber, ikasturte amaierako **Lugaritzeko** antzerki-emanaldiak, interes handia pizten jarraitzen dutenak, irakasleek egiten duten lanagatik, eta instalazioengatik.

Kale-antzerkiak ere izan zuen presentzia urtean zehar, **Antiguo**, **Igeldo**, **Ibaeta** eta **Añorga** auzoetako ospakizunetan, **Azcona Taldearen Kiki eta Koko** pailazoekin; **Iparraldeko Pontx** pailazoaren **Denak plazara!** ikuskizunarekin; **Txaloka** konpainiaren **Buala!** antzezlanarekin; eta **Markeliñe** taldearen **Artulio** ikuskizunarekin. Bereziki nabarmendu zen beti hain dibertigarria izaten den **Tio Teronen semeak** taldearen **Haurreskolari** lana, **Antiguotarrak Dantza Taldearekin** lankidetzan. Auzoko frontoiak lepo bete ziren proposamen hauekin guztiekin.



Buala!, Txaloka



Tio Teronen Semeak

Musika-programazioari dagokionez, gustu guztietarako kontzertuak eskaini zituzten musika-estilo ezberdinek. **Plus 55** programaren barruan sortutako **Gospel Donosti Abesbatzak** bete egin zituen aretoa eta agertokia, eta harrera bikaina izan zuen **Francisco Escudero Kontserbatorioko** kantu-bakarlariak eta piano-jotzaileek interpretatutako **Las bodas de Figaro** lanak. Beste horrenbeste esan genezake abesbatzen musika zikloaren barruan **Ibaetako** parrokiaren **Letoniako Anima Solla** abesbatzak egin zuen emanaldiari buruz ere. Bertsozaleek hitzordu bikoitza izan zuten udazkenean; bata, **Pobrezia Zero** plataformak antolatutakoa, eta bestea urteroko **Donostia Bertsotan** saioa, berriz ere berehala zintzilikatu behar izan zuena *sarrerak agortu dira* kartela.

2025ean, lehen aldiz, **Jazzaldiko** tokiko taldeak hautatzeko lehiaketako kontzertuak egin ziren, **Biper Swing**, **Pablo Maza Quartet** eta **Thomas Camille** musikarien emanaldiekin. Guztiak ere ohiko musikariak dira auzoko kontzertuen eta *jam-en* tokiko egitarauetan.

Folk klasikoan ere bere lekua izan zuen, **Kuttune** taldearekin; proposamen elektriko eta rockeroagoak izan ziren **Maite Larbururena**, **Rüdiger**-ena eta **Txuma Murugarrenena**, **Iñaki Salvadorren** eta **Kulunkaren Hegoak** kontzertu antzetzuearekin, **Hayden Pedigo** texastarraren birtuosismoarekin; eta **Spolem Girls** taldearen 60ko hamarraldiko *soul-arekin* kontrastean. Proposamen horiei gehitu zitzaizkien **Udal Musika Eskolaren** eta **Jakintza Musika Akademiaren** urteroko erakustaldiak, udaberrian eta neguan egin zirenak.

Liburutegi-zerbitzuak bisita kopuruen eta agirien maileguen maila onari eutsi zion, erabiltzaile gehiago eta jardueretako parte-hartze handiagoa lortuz. **Astelehen bat**, **liburu bat** euskaraz egiten den literatura-solasaldiak ere aurrera jarraitu zuen, **Aritz**



Kuttune

Gorrotxategirekin eta ohiko taldearekin. Haurren artean irakurzaletasuna sustatzeko jardueri dagokionez, **Liburu Baby Kluba** partaide gehiago izan zuen, baina **Ipuinaren Ordua** ekimenak ez zuen oneraterik lortu, ziklo-aldaketa bat dirudienaren barruan. Halaber, ikastetxeek bisitak egiten jarraitu zuten, eta liburutegiak astero hartu zuen **Agifes** elkartearen irakurketa-talde bat.

Ikastaroei eta tailerrei dagokionez, igo egin zen matrikulazio kopurua, batez ere arte eszenikoekin lotutako diziplinetan; bikoiztu egin ziren maila aurreratuko eskolak. **Bertso Eskolarekiko** lankidetzaren atalean, haurrentzako eskolak eta **Bilintxi-Balantxa** elkarteko helduen talde berri baten hasiera konbinatu zuen. **Thierry Biscaryren** kantu-eskolak osatzeko, **Itziar Navarrok** emandako herri-musikaren inguruko laborategi bat egin zen, kantu kolektiboarekiko interesa pizten ari dela dirudien testuinguru batean. **Merkatu Zaharreko** erabiltzaile diren elkartearen jarduerak partaidetza-maila altuari eutsi zioten, eta dantza izan zen jarduera nagusia, bere forma ezberdinetan. Beste horrenbeste esan daiteke **Gazteria departamentuak** instalazio horietan eskaintzen dituen zerbitzuei dagokionez ere: **Haurtxokoa** eta **Gaztelekua**. **KZ Guneak** ikastaro aukera zabala eskaini zuen urtean zehar eta, Internet bidez nabigatzeko zerbitzuak dagoeneko eskari handirik izan ez zuen arren, handitu egin zen **Izenpe** ziurtagiriak eskuratzeko eskari kopurua.

Plus 55 programak aurrera jarraitu zuen dagoeneko finkatuta dauden proiektuekin, hala nola **Giza Liburutegia**, antzerkia, hitzaldiak eta *bideo-forumak*. 2025Ean beste ildo bat abiarazi zuen, *doku-forumekin*, erabiltzaileen artean profil eta interes berriak bilatzeko. Gainera, nahi gabeko bakardadearen aurkako egitasmo bat monitorizatu eta lagundu zuen **Ados Teatroa** konpainiarekin batera, arte eszenikoaren bitartez. Halaber, **Plus 55** programak eta **Lugaritz Kultur Etxeak Erlauntza Mendebaldea** lan-taldean parte hartzen jarraitu zuten; ekimen hori dagoeneko hiriko hainbat zonatan dago martxan.

Azkenik, **Jokin Oregui (Sortwo)** artistak **Antiguoko** frontoian egindako horma-lana nabarmendu behar da, **Mikel Laboa** parkera ematen duen harmaila berriaren atzealdea apaintzeko helburua zuena. Pilota-zaletasunarekin lotutako horma koloretsu horrek auzoaren eguneroko bizitzan intimoa eta oso esanguratsua den espazio bat argitzen eta biziberritzen laguntzen du.

JARDUERAK

75

Antzerkia (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 9.584

23

Zinema (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 778

87

Bilerak eta elkarten ekitaldiak
Erabiltzaileak: 947

94

Gaztelekua
Erabiltzaileak: 1.519

2

Dantza (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 780

2

Hitzaldiak eta mahai-inguruak
Erabiltzaileak: 230

109

Liburutegiko jarduerak
Erabiltzaileak: 1.700

94

Haurtxokoa
Erabiltzaileak: 2.064

19

Musika (kontzertuak)
Erabiltzaileak: 2.481

2

Erakusketak
Erabiltzaileak: 1.060

48

Plus 55
Erabiltzaileak: 1.666

1

Bestelakoak
Erabiltzaileak: 36

Guztira
556
jarduera
22.845
erabiltzaile

ZERBITZUAK

28.580

bisitaldi
Liburutegia

2.064

bisitaldi
Haurtxokoa

-
bisitaldi
Altzako bilduma web

-
bisitaldi
Bideo tailerra

0

bisitaldi
Ikasgela

0

bisitaldi
KZgunea (Nabigazioak)

-
bisitaldi
DK Irratia web

-
bisitaldi
Musikagela

1.519

bisitaldi
Gaztelekua

-
bisitaldi
Altzako bilduma

-
bisitaldi
Ispilu beltza magazine-podcasta

-
bisitaldi
Musika Eskola

Guztira
32.163
BISITALDI

0
bisitaldi
Plus 55

PRESTAKUNTZA

Ikastaro-
eskaintzaOsatutako
ikastaroak

Erabiltzaileak

Emakumeak

Gizonak

GUZTIRA	207	149	1.234	870	362
2024-2025 IKASTAROAK	55	31	395	284	109
Ikasturte osokoak (2024ko urria - 2025eko maiatza)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	1	1	12	11	1
Gaztelaniaz	4	4	62	51	11
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	23	8	112	81	31
Gaztelaniaz	17	12	155	112	41
Bigarren lauhilekoko ikastaroak (2025eko otsailean hasita)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	1	1	10	10	0
Gaztelaniaz	2	1	8	4	4
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	1	1	3	1	2
Gaztelaniaz	6	3	33	14	19
2025-2026 IKASTAROAK	44	27	355	279	76
Ikasturte osokoak (2025eko urria-2026ko maiatza)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	-	-	-	-	-
Gaztelaniaz	-	-	-	-	-
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	19	8	104	82	22
Gaztelaniaz	20	15	196	154	42
Lehenengo lauhilekoko ikastaroak (2025eko urria-abendua)					
Musikagela, Larrotxene Bideo, DK Irratia					
Euskaraz	-	-	-	-	-
Gaztelaniaz	-	-	-	-	-
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	3	2	30	23	7
Gaztelaniaz	2	2	25	20	5
CURSOS PUNTUALES	0	0	0	0	0
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	0	0	0	0	0
Gaztelaniaz	0	0	0	0	0
KZgunearen IKASTAROAK	62	46	214	143	71
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	46	45	270	164	106

KULTUR ETXERA egindako bisitak
Guztira 74.195

Okendo

Kultur Etxea

2025





Haurren Egun Unbertsala © Iñaki Rubio

132

OKENDO Kultur Etxea

2025ean, **Okendo Kultur Etxean** publikoak urte osoan zehar erakutsitako interesa eta parte-hartzea benetan azpimarragarriak izan ziren. Kultur etxe hau hiriko erdigunean kokatuta dago, eta bertako auzo handiak zein inguruko herritarrek erakutsi zuten konpromisoak kultur etxeko lanaren zentzua indartu zuen. 2025ean aurkeztutako erakusketek, hitzaldiek, ikastaroez, zerbitzuek eta bestelako jarduerak aurreikuspen guztiak gainditu zituzten, aurreko urtearekin alderatuta bisitari kopuru handiagoa jaso baitziren.

Horrek agerian utzi zuen kulturak eta sormenak gure komunitatean duten indarra, eta herritarren erantzunak agerian utzi zuen kultur etxea ez dela soilik jarduera gune bat, baizik eta topagune bizia, ideiak eta esperientziak partekatzeko espazio irekia. Publikoaren harrera beroak eta etengabeko presentziak **Okendoren** eguneroko lana aberastu zuen, eta horregatik, kultur etxeak agerian utzi zuen hiriaren kultur sarean erreferentzia sendoa dela, etaaldi berean, dinamismo handiko topagunea dela.

Artezaleek zer gozatu izan zuten **Okendon**, betiko ildoari jarraituz; hori da, hain zuzen ere, kultur etxearen entitate eta nortasun aldaezina: arte plastikoa.

Gabonetako giroa atzean utzi orduko, bi erakusketa esanguratsuk argiz bete zuten gure egunerokoa: bata, xumea bezain liluragarria, **Anne Rearick**-en **Gure bazterrak** argazki analogikoek osatua; bestea, arte konsakratuaren distira, diseinu grafikoaren ikuspegitik **Husme Studiok** ekarria, **Eulogy**, Chillidaren 100. urteurrena ospatzeko. Bigarrenaren erakusketaren harira, diseinu grafikoaren inguruko hitzaldi interesgarri batek aretoa nagusia bete zuen: **Javier Mariscal**, **Óscar Marín**, **Mikel Chillida** eta **Alain Villastrigok** eskainitako mahai-inguru irekiak, artista handiaren omenez aritzeaz gain, beren lan esperientziak partekatzeko aukera paregabea eman zuten hitzaldiak.

Neguko hotzari aurre egiteko, artearen eta osasunaren arteko elkarriketa aberatsa izan genuen **Osasun astean**. Groseko anbulategiarekin elkarlanean, hitzaldi inspiratzaileak eskaini ziren, arteak gure ongizatean duen eragin sakona ulertzeko. Gaiari bi ikuspegitatik begiratu zitzaion: batetik, anbulategiko laguntza gisa, kultura eta artearen eguneroko txertaketak osasuna hobetzeko proba zientifikoak aurkeztu ziren; bestetik, kultur etxeetan tailerrak ematen dituzten profesionalen hitzaldiek arteak guregan

sortzen duen ongizate emozionala azaldu zuten. **Osasun Astea** borobiltzeko, **Isabel Verdini Ballet**aren dantza emanaldia egin zen. Zalantzarik gabe, artearen praktikak gure osasunean eragin positiboa duela demostratuta geratu zen.

Urteko erakusketak benetan ederrak eta askotarikoak izan ziren. **HARRI ORRI ARKATZ** erakusketa kolektiboak artea eta eskalada uztartu zituen; lehen aldiz **Mendi Film Festivalean** aurkeztua izan zen, eta ondoren **Okendoko** areto berrira iritsi zen **Club Vasco de Camping**en eskutik. Negua mendi-zaleen festa bilakatu zen **Okendoko** bi erakusketa aretoetan: eskalada eta mendiko paisaiak protagonista izan ziren **Mendi margotuak** erakusketaren bidez.

Bigarren erakusketa hau, gainera, **Club Vasco de Camping** eta **Peñalara** mendi elkarten urteurren bateratua ospatzeko proposamen berezi gisa antolatu zen. Publikoaren harrera beroa izan zuten, eta ikusleen artean arrakasta handia lortu zuten, kultur etxearen eta mendizaletasunaren arteko lotura sendotuz.



Osasun astea, Verdini Dantza Taldea

Mauthausenetik haratago. Francesc Boix argazkilariaren erakusketak aukera paregabea eskaini zuen maiatzean: naziengandik askatu ziren gizon eta emakumeen irudi hunkigarriak ikusteko parada izan genuen, askatasunaren eta duintasunaren balioa gogora ekarriz. Eskola ugari gerturatu ziren, eta prentsa agerraldiak ere ugari izan ziren, Europako historian garrantzi handiko pasartea gogora ekarri zigulako. Bisita gidatuek interesa piztu zuten, oraingoan Bartzelonako **Amical de Mauthausen** elkartearen eskutik, iraganaren lekukotasuna eta oroimenaren indarrak memoria kolektiboa bizirik mantentzeko ekarpena egin zen.

Jesús Manséren **Denbora hegan doa, baina, batzuetan, pausatzen da** lanak paisaia zoragarri batera eraman gintuen: Ulia mendiko eta hainbat hondartzetako ingurune lasai eta misterioitsuak gure aurrean agertu ziren, kolore bereizgarri eta margolariaren zigilu pertsonal poetikoarekin. **Jesús Mansék** teknika maisuki menperatzen du, eta bere lanek iraganeko argazkien ukitua dute, izan ere, artearen eta hitzaren arteko lotura paregabe horrek ikusleak liluratu zituen. Bere margolanek, une batez, denboraren joana gelditu eta gure zentzumenak esnatu zituen.

Fantasiako eta Beldurreko Zinemaren 36. astean CINEGĒMU izeneko erakusketak Japonian sortutako bideo-jokoen mundura eramateko aukera paregabea eskaini zigun. Zine zale amorratuentzat eta bideo-jokoen magiaren jarraitzaileentzat, benetan erakusketa originala izan zen: **Japan Foundation**etik etorritako proposamen honek gazteak erakartzea lortu zuen, batez ere erakusketan zeuden bideo-joko

makinak, komikiak eta audiobisualak ikustera hurbildu baitziren. Bideo-jokoen eta zinemaren uztarketa egon badela agerian geratu zen.

Literaktumen, artearen eta literaturaren zaleek bi erakusketa berezi eta inspiratzailez gozatzeko aukera izan zuten.

Lehenengoa, **Bazen behin** izeneko, euskal ilustratzaile eta idazleen lanen lagin erakargarri eta koloretsuz osatua izan zen. Erakusketa honek aretoari dinamismo berezia eman zion, liburuz eta irudiz betez espazioa. Haur eta gazte literaturaren garrantzia aldarrikatu zuen, etorkizuneko irakurleak inspiratu eta babesteko konpromisoa erakutsi zuen. Bertaratutakoek, irudien eta hitzen bidez, sormenaren eta irudimenaren munduan murgiltzeko aukera izan zuten, literatura gazteen artean sustatzeko helburuarekin horretarako sortu batzuen **Metro Bilbaok** erakusketa hain zuten.



CINEGĒMU erakusketaren aurkezpena



Mauthausenetik haratago erakusketa, Juan M. Calvo Gascón, Juan Francisco Murillo Díaz © Iñaki Rubio



Bazen behin erakusketa © Iñaki Rubio



Kiki eta Koko, Haur antzerkia

Bigarren erakusketa, **Liburuaren arbola**, **Euskaren Etxearen** eskutik liburu bat sortzeko beharrezko diren hainbat arlo eta pauso ezagutzeko aukera paregabea izan zen. Bisitariek liburuaren sorkuntza-prozesuaren atzean dagoen lana eta bitxikeriak gertutik ezagutu ahal izan zuten: ideiatik hasi eta azken emaitzara arte, urratsez urrats, liburua nola eraikitzen den deskubritzeko aukera egon zen.

Goiko eraikin zaharrean gertuko bi artisten erakusketa izan genituen, eta bakoitzak bere unibertso propioa ekarri zuen gure aretora. **Stephen Webben** **Dimentsioak** lanak muralismoan oinarritutako ikuspegi indartsua eskaini zuen, hormetan sakontasun eta mugimendu berriak irudikatuz. **Elena Arreseren** **Mila** erakusketak, berriz, teknika mistoen bidez sormenaren ñabardura ugari azaldu zituen, kolore eta formaren arteko elkarrizketa biziak sortuz.

Udaberriak antzerkiaren gosea ekarri zuen auzora, eta maiatzean ospatutako urteroko **Poltsiko antzerkian** umorea eta dibertsioa nagusitu ziren. Auzoko tabernetan eskainitako antzerki emanaldiak formatu txikian izan arren, gidoi zorrotzek eta erabilitako sormenak antzerki saioa ederrak egin zituzten. Euskaraz zein gazteleraz egindako antzerkiak lagunartean kulturaz gozatzeko aukera paregabea

eskaini zuten: **Improfestakzioa** taldearen publikoarekin izandako interakzioak, **Assis Hanson mentalistaren** saioa eta **Adriane Berson Johnson** anderearen parodiak ikusleen arreta eta irribarrea piztu zituzten. Bertaratutakoek, antzerkia gustuko lokaletan, giro atsegina eta hurbilean gozatzeko aukera izan zuten.

Bestalde, txikienek ere izan zuten aretoko antzerkiarekin gozatzeko aukera. Larunbatak auzoko umeentzat dira, eta pailazo, txotxongilo eta magoen artean mundu imajinarioan murgiltzen dira, lagun artean kultur etxera etorrita eta ondoren ikusitakoa elkarrekin partekatuz. Publiko txiki honek ere baditu bere gustuko emanaldiak, dudarik gabe: **Nai Malabarista**, **Kiki eta Koko** pailazoak, **Koloretako etxetxoak**, **Ametsen mundua**, **Piraten historia bat**, **Olaiaren lorategia** eta **Kidam magoa**. Umorea, magia eta irudimena nagusi, txikienek barrez eta pozaz bete zituzten larunbat arratsaldeak kultur etxeko areto nagusian.

Maiatzean, **Euskaraldia**ren txanda iritsi zenean, kultur etxea inoiz baino belarriprest eta ahobizi gehiagoren topagune bilakatu zen. Auzoko jendea gogoz hurbildu zen **arigunera**, txapak eskuratu eta ekimenari baikor erantzunez. Horrez gain, auzoan hainbat jarduera antolatu ziren; besteak beste, **Euskarazko Wikipediari** buruzko saio berezi bat egin zen, hizkuntza eta teknologia uztartuz eta parte-hartzaileei ekarpen aktiboa egiteko aukera eskainiz.

San Joan sua Grosen, Donostian egiten den handienetako bat, eta auzo-eragileen lanari esker arratsalde osoko egitarau bihurtu zen: sardina-jana, lore-banaketa, *queimadaren* konjuroa, dantzariak eta betiko gau-erromeria, oraingoan **Joselu Anaiak**en zuzeneko musikarekin Saguesko espazio zabalean. Auzoko jendeaz gain, Donostiako beste auzoetako familia ugari eta adin desberdinetako pertsonak ere hurbildu ziren sutara, jai giroan elkartzuz eta tradizioari bizitasun berezia emanez.

San Joan suarekin batera, musikarien garaia ere iritsi zen **Musikagela Fest** jaialdian. Hiriko talde lokalek —**Inv3rt**, **Mark Duti**, **WXTX**, **On**, **Latitud 43'**, **Peter Bjorn & Miss B**, **Sara Mansilla**, **Physis Versis Nomos** eta **Al Dual**— jende ugari bildu zuten, zuzeneko musikaz gozatzeko gogoz. Kontzertu hauek argi utzi zuten Donostian badela harrobirik: erritmo anitzak eta festa giroa nagusitu ziren eta melodiaz blai egindako egun berezia eskaini zen.

Uda iristearekin batera, auzoa **Zipotz Jaien** giroan murgildu zen. Grosen jai batzordeari esker, auzokideek jai-giro eta jardueraz beteriko programa oparoa ospatu zuten. Kale ekitaldiak nagusi izan baziren ere, kultur etxeko abesbatzen emanaldiek jende ugari bildu zuten berriz ere kultur etxeko aretora. Haurrentzat ere jaietan zer ikusi bazegoen: **Txintxeta**, **Klipa eta Txorroskilo** pailazoen emanaldia, eta **Zirika Zirkusen Piraten altxorra** kontakizuna.



Peter Bjorn & Miss B, Musikagela Fest © Josu Artola

Urriaren amaieran, urteroko **Tolosako Abesbatzen Asteko Lehiaketan** parte hartu zuen taldeetako bat izan genuen gurean: Indonesiatik etorritako **The Resonanz Children's Choir**. Groseko San Inazio parrokian eskaini zuten kanta saioak eliza bete egin zuten.

Udazkenean, ohiko moduan **Okendon**, arte plastikoko formakuntzako ikastaroak abiatu ziren. Mihiseak, margoak, gaiak eta teknikak landu ziren, irakasleen aholkuen eta lagunarteko giroaren laguntzaz. Oinarrizko zein aurreratu mailako ikastaroetan parte-hartze handia izan zen, eta ikasleek beren sormen gaitasunak garatzeko aukera izan zuten.



The Resonanz Children's Choir, Abesbatzen astea

Horrez gain, beste hainbat arlotako ikastaroak ere eskaini ziren: historia, opera, astronomia, teknologia, idazketa eta irakurketa, besteak beste. Horrela, **Okendok** artezaleen bilgune izaten jarraitu zuen, sormenaren eta jakin-minaren etxe bihurtuz. Guztira **712 pertsona** matrikula ziren ikastaroetan.

Literaktumek hainbat idazle ekarri zituen **Okendora**: **Juan Manuel de Prada**, **Juan José Millás**, **Carys Davies**, **Javier Cercas** eta **Harkaitz Cano**. Idazle hauek egungo literaturako izen ospetsuenetarikoak dira, eta beren azken eleberriak aurkeztera etorri ziren, hitzaldi paregabeak eskainiz. Jaialdia baino lehen, beste bi idazleren bisitak ere izan genituen: apirilean, **Jonthan Coerena**; irailean, berriz, **Mariana Enríquezena**.

Idazleekin batera, haur eta familientzat antolatutako beste ekitaldi batzuk ere egin ziren Grosen: **Familiarekin jolasean Aina Azpiazu** ilustratzailearen **Basoan Barna** tailerra izan zuten Haurtxokoan eta **Olaiaren lorategia** berriz haur antzerkia areto nagusian. Literaturzale kopurua urtez urte handitzen joan da jaialdi honen inguruan eta 2025an **2.229 pertsona** hurbildu ziren jaialdi honetara Groseko kultur etxera.



Harkaitz Cano, Aintzane Usandizaga, Literaktum © Iñaki Rubio

Urte amaieran, **Santo Tomas** azoka ospatu zen Grosen. Bertan, postuek eta jai giroak auzoan tradizioa badela erakutsi zuren, eta amaitzeko, **Sukar** taldearen erromerian dantza eta kantatzeko aukera paregabea izan zen.

Urte osoan zehar hitzaldiek leku berezia izan zuten **Okendon**. Gai eta arlo askotako saioak tartekatu ziren, ohiko zikloez gain —adibidez, **Mendia eta natura** zikloa—. Guztiak aipatzea zaila den arren, nabarmenak izan ziren **Aner Etxeberriaren *Los Awá uajá y su relación con la naturaleza*** hitzaldia, Amazonasen barne eraman gintuen esperientzia paregabea, eta urrian **Goldatu** elkarteak eskainitako **Mendebaldeko Sahara, 50 urteko gatazka** zikloa, hango emakumeen egoera ezagutarazteko egin zuten hitzaldia.

Halaber, **Casa Regionales** programaren lau saioak eta urtero eskaintzen diren **Zine Ziklo Frantsesa** (**Institut Français** eta **Alliance Française**-en eskutik) zein **Zine Ziklo Alemanaren** (**Goethe-Institut** eta **Lorelei** elkarten eskutik) proiektzioak ere arrakasta handia izan zuten, publiko desberdinen artean harrera beroa jaso baitzuten.

Okendo berriz ere zerbitzu ugariaren lekuko izan zen, eta argi utzi du azken urtean kultur etxeak eskaintzen dituen zerbitzuen erabilerak nabarmen egin duela gora. Bereziki, **Plus 55** zerbitzuak gorakada esanguratsua izan zuen, gizarte zerbitzuekin, auzoko farmaziekin eta udaleko osasun zerbitzuekin elkarlana indartu delako. Horrek erakusten du zerbitzu komunitarioek duten garrantzia, auzoaren ongizatea eta kohesioa sustatzeko tresna eraginkor gisa.

Haurtxokoan eta **Gaztelekuan**, **Gau Beltza** berriz ere arrakastatsua izan zen: jarduera bateratua antolatu zen Zurriola eta Zuhaitzi eskolen parte-hartzearekin, plazan ospatuz bigarren urtez jarraian. **Groseko Euskara Batzordearekin** elkarlanean, **Haurtxokoko** umeei **Euskararen Egunean** ere parte hartu zuten. Urtero bezala, Gabonen inguruan **Haurtxoko** eta **Gaztelekuko** jarduerak parte-hartze handia izan zuten.

Azkenik, **liburutegiak** urte osoan zehar eskaini zuten zerbitzu zabal eta esanguratsua berriz ere erabiltzaileen beharrak bete zituen. Horrez gain, urte horretan **Haurraren Egun Unibertsala** ospatu zuten liburutegiko umeei **Literaktum** jaialdiaren baitan. Era berean, azpimarragarria izan zen **LiburuLAB** programaren parte-hartzearen gorakada: plaza guztiak bete egin ziren, eskaintzaren interesa gero eta handiagoa dela erakutsiz.



Irakurketa musikatua



Irakurketa musikatua

JARDUERAK

13

Antzerkia (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 2.156

20

Zinema (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 1.352

96

**Bilerak eta
elkarteen ekitaldiak**
Erabiltzaileak: 1.987

200

Gaztelekua
Erabiltzaileak: 2.857

1

Dantza (emanaldiak)
Erabiltzaileak: 82

123

**Hitzaldiak eta
mahai-inguruak**
Erabiltzaileak: 9.180

139

**Liburutegiko
jarduerak**
Erabiltzaileak: 2.004

223

Haurtxokoa
Erabiltzaileak: 4.812

16

Musika (kontzertuak)
Erabiltzaileak: 3.979

17

Erakusketak
Erabiltzaileak: 80.902

95

Plus 55
Erabiltzaileak: 3.029

-

Bestelakoak
Erabiltzaileak: -

Guztira
943
jarduera
112.340
erabiltzaile

ZERBITZUAK

124.226

bisitaldi
Liburutegia

4.694

bisitaldi
Haurtxokoa

-
bisitaldi
Altzako bilduma web

-
bisitaldi
Bideo tailerra

-
bisitaldi
Ikasgela

12.166
bisitaldi
**KZgunea
(Nabigazioak)**

-
bisitaldi
DK Irratia web

-
bisitaldi
Musikagela

3.548
bisitaldi
Gaztelekua

-
bisitaldi
Altzako bilduma

-
bisitaldi
**Ispilu beltza
magazine-podcasts**

-
bisitaldi
Musika Eskola

Guztira
145.811
BISITALDI

1.177
bisitaldi
Plus 55

PRESTAKUNTZA

Ikastaro-
eskaintzaOsatutako
ikastaroak

Erabiltzaileak

Emakumeak

Gizonak


GUZTIRA	295	216	2.792	2.034	758
2024-2025 IKASTAROAK	66	34	646	503	143
Ikasturte osokoak (2024ko urria - 2025eko maiatza)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	-	-	-	-	-
Gaztelaniaz	-	-	-	-	-
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	28	3	38	20	18
Gaztelaniaz	26	22	439	352	87
Bigarren lauhilekoko ikastaroak (2025eko otsailean hasita)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	-	-	-	-	-
Gaztelaniaz	3	3	49	44	5
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	-	-	-	-	-
Gaztelaniaz	9	6	120	87	33
2025-2026 IKASTAROAK	62	31	583	450	133
Ikasturte osokoak (2025eko urria-2026ko maiatza)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	2	1	13	8	5
Gaztelaniaz	2	2	117	108	9
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	23	3	38	25	13
Gaztelaniaz	24	23	384	284	100
Lehenengo lauhilekoko ikastaroak (2025eko urria-abendua)					
Egile-ikastaroak					
Euskaraz	2	0	0	0	0
Gaztelaniaz	2	2	31	25	6
Ikastaro orokorrak					
Euskaraz	7	0	0	0	0
Gaztelaniaz	-	-	-	-	-
CURSOS PUNTUALES	9	9	281	194	87
Tailer, mintegi eta masterclassak					
Euskaraz	6	6	226	155	71
Gaztelaniaz	3	3	55	39	16
KZgunearen IKASTAROAK	125	112	1.028	743	285
BESTE ERAKUNDEAK KZgunean	33	30	254	144	110

KULTUR ETXERA egindako bisitak
Guztira 218.020

Liburutegiak

20  25





Liburutegiak

2025ean, aurreko urteetako kopuruei eutsi zien **Donostiako Liburutegien Sareak**, 479.917 mailegurekin. 905.718 bisitari izan zituzten (3.271 lagun egun bakoitzeko). Aurreko urtean baino 35.521 bisitari gehiago jaso zituzten liburutegiek, hau da, 2024an baino % 1,4 gehiago, eta 1.951 jarduera egin ziren, 45.127 parte-hartzailerekin.

Urte ona izan zen, igoera handirik gabea, baina zifra altuei eutsiz, kontuan izanda irakurzaletasunak telefono mugikorren nonahikotasunari aurre egin behar diola.

Erabiltzaileengandik horren hurbil dagoen **Donostiako Liburutegien Sareak** urtez urte erakusten du liburuei lotuta dagoela beraien biziraupena, eta liburuek, futurologoek aurkakoa uste dezaketen arren, ez dute desagertzeko inolako asmorik. Ikusi dugu nola agurtu diren isilean CD-ROMa, mikrofilmak eta beste teknologia batzuk, ustez papereko liburua baztertuko zutenak. Iragarpen hauek 2019an egin ziren eta, 2025ean, ez da iragarritako ezer gertatu.

Adimen Artifizialak baztertu egingo al du liburua? Eta liburuzainak? Zer ari da gertatzen irakurzaletasunarekin? **Liburuzainak** —gehienak emakumeak— egunero dute irakurleen komunitatearekin hartu-eman. Familiek, erretiratuek eta irakurle amorratuek gozatu egiten dute apalik apal harat-honat ibiltzeko askatasunaz. Mugikorrek ez bezala, hausnartzeko gonbita egiten digu irakurketak; mugikorrei dagokienez, ordea, zaila horiek alde batera uztea, horiekiko adikzio sozial argia baitago. Gaur egungo gizartean, arazo handiena ez da liburuaren aurkako eraso, kontzentratzeko gaitasunaren gainbehera baizik. Dagoeneko ez da ohikoa irakurketa intentsoa, hots, testu bat patxadaz eta pentsatuz irakurtzea; horren ordez, irakurketa sakabanatua nagusitu da, formatuak, plataformak eta gailuak txandakatur.

Eraiki dezagun liburutegi handi asko, beste espazio publiko batzuetatik bereizten baitira patxadaz irakur daitekeen lekuak direlako, eta non, tarte batez gutxienez, mugikorrek itzalita egoten direlako.



Liburutegiak, mantso pentsatzeko espazio horiek, mugikorrarekiko eguneroko adikziotik urrun

Sarea zenbakitan

Zenbakiak garrantzitsuak dira zerbitzuen errendimendua neurtzeko, baina interpretatu egin behar ditu zerbitzuaren zuzendaritzak, zenbakiak desitxuratu egin baitaitezke. Urtez urte, liburutegien analisirako **Bertelsmann Fundazioaren** programa erabiltzen dugu, errendimendua baloratzeko.

479.917 mailegu egin ziren guztira, 1.735 mailegu egunean. Horietatik guztietatik, 179.474 haur-liburuen maileguak izan ziren. Ez zen igoerarik egon guztizko kopuruan, baina bai haur-liburuen maileguan: 4.957 mailegu gehiago egin ziren guztira. Biztanle bakoitzeko maileguak 2,57 izan ziren (186.667 biztanle), beraz, eutsi egiten zaio aurreko urteko zifrari. Sarea Europako batez

bestekotik gertu dago: biztanle bakoitzeko hiru mailegukoa da batez besteko hori, eta horixe da erreferentziatzat ezarri den helburua.

2025ean, **Liburutegi Nagusia** izan zen mailegu gehien egin zuen liburutegia, 97.913 mailegurekin; ranking horretan, **Okendo Liburutegia** dago ondoren, 71.538 mailegurekin, eta **Ernest Lluch** hirugarren tokian, 68.251rekin. Ez zen igoerarik egon aurreko urtearekiko.

Horien ondoren daude **Aiete Liburutegia**, 57.029 mailegurekin, eta **Tomasene Liburutegia**, 34.247rekin. Biek egin zuten aurreko urtean baino mailegu gehiago. Gainerako liburutegiek eutsi egin zieten 2024ko zifrei.



Bere funtsak eguneratzen ez dituen liburutegi bat ez da liburutegi bat, bilduma hil bat baizik. Liburutegiak bizirik egon behar dira, eta **Donostia Kulturakoek** haien funtsak eguneratu zituzten. Sareko liburutegien ezaugarrietako bat da hilero edo hamabost egunean behin liburu eta dokumentu berriak edukitzea. % 5,04koa izan zen berritze-kuota, liburu berrien altak eta funtsetik ateratako liburuen bajak kontuan hartzen dituen.

Funts bibliografikoen erosketa-gastua -liburuak, CDak eta DVDak- 343.251,30 eurokoa izan zen; kopuru horretatik, 148.299 euro bideratu ziren literaturara. Gainera, 90.819,75 euroko gastua egin zen aldizkako argitalpenetan. Guztira, beraz, 430.071 eurokoa izan zen gastua, hau da, biztanleko 2,3 eurokoa (2025eko biztanle-kopurua: 183.388; iturria: **Eustat**). Bazkide bakoitzeko gastua 3,8 eurokoa izan zen.

Garrantzitsua da azpimarratzea **Donostia Kulturak** ahalegin ekonomiko handia egiten duela material berriak erosteko, irakurleek lan berriez gozatu ahal izan dezaten.

Bazkide kopurua 112.575 lagun edo erakundetara iritsi zen, 4.557 bazkide berriekin. 29.309 bazkide aktiboak izan ziren, hau da, gutxienez behin joan ziren mailegu-zerbitzura. Honela banatu ziren bazkide berriak: 3.048 bazkide heldu, eta 1.482 haur.

DonostiaTEKA gordailu digitalak 124.363 kontsulta digital jaso zuen, eguneko 107 bisitako batez bestekoarekin. Aurreko urteetan bezala, **La Voz de Guipúzcoa: diario republicano** izan zen kontsulta

gehien jaso zuena, egunean 17 bisitarekin; **El Pueblo Vasco: diario independiente** egunkariak 13 bisita jaso zuen egunean, eta **La Constancia: diario íntegro fuerista** egunkariak, berriz, zazpi bisita egunean. Pentsaz gain, argazki-bilduma ere kontsultatu zen, egunean 19 bisitarekin, baita aldizkari historikoak ere, egunean 4,2 bisitarekin. Liburuek eta eskuorriek egunean 2,9 bisita erregistratu zuten. **Google Analytics** erabili zen datuak eskuratzeko.

Oso mantso egin zuten aurrera **Eusko Jaurlaritzarekin** lankidetzan martxan dauden digitalizazio-proiektuek. Zehazki, **Europeana** plataforman sartzeko asmoa -erregistroak bistan egon daitezken- ez da gauzatuko datorren urtera arte. Oraindik ez zaio **OCRa** aplikatu prentsa historikoari, eta ez da sartu **Gipuzkoako Medikuen Elkargoaren Buletina**, ezta **Guipúzcoa Médica** aldizkaria ere.

2025ean, **Donostia Kulturak** 284 erregistro berri sartu zituen, eta 205 aldatu. Lan handia egin zen **Udal Liburutegien** sareari buruzko material grafikoak biltzeko, orri-markatzaileak, eskuorriak eta **Kultur eta Turismo Ekintzetxearen** 87 argazki barne.

Liburutegiek konpromisoan oinarrituta lan egiten dute, gardentasunez. Paperean zein formatu digitalean argitaratzen dira urtero datu guztiak, edonork ikus ahal dezan datuon bilakaera. **Eusko Jaurlaritzarako**, la **Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarerako (EIPS)** eta **Estatistikako Institutu Nazionalerako (INE)** ere biltzen dira datuak.

Proiektu nabarmenak

2025ean, **Literaktum** jaialdiak harrera oso ona izan zuen. Galdera pertsonal eta unibertsal hau planteatu zuen jaialdiak: nola definitzen dugu gure burua mundu global batean? Literaturaren bitartez, *Niaren oihartzunak* entzun nahi izan ziren. **Juan José Millás**, *Ese imbécil va a escribir una novela* bere azken eleberriarekin; **Arantxa Urretabizkaia** zahartzaroaren mapa berriari buruz hitz egin zuen; **Carys Davies** galestarra ere izan genuen, *Despejado* bere nobelan bakardadeari eta bi gizonen arteko harremanaren istorio bat kontatzen duena; **Ignacio Martínez de Pisónek** belaunaldi-memoria ekarri zuen gogora *Ropa de casa* liburuan; **Laura Martínez de Chivite**, *Zilarrezko Euskadi Sariaren* irabazleak emakume baten eta bere ilobaren arteko harremana aurkeztu zuen *El ataque de las cabras* eleberrian; eta **Samantha Schweblin** ere etorri zitzaigun, *El buen mal* liburuan arrotza den zerbait egunerokoan ezustean nola sartzen den esploratzen duena. Ezin ditugu aipatu gabe utzi **Fernando Navarro**, **Julen Apella**, **Belén Gopegui**, **Eider Rodríguez**, **Javier Sierra** eta **Lourdes Oñederra**. Egile horiei guztiei esker –anitzak eta elkarrengandik oso ezberdinak–, literatura gailendu zen gure hirian bi astez.

Literaktumek aurkezten du atalean parte hartu zuten **Juan Manuel de Prada** idazleak, Bigarren Mundu Gerrako Paris okupatuan girotutako bere nobelarekin; **Aita Santuarekin** Mongoliara egindako bidaiari buruzko **Javier Cercas** idazlearen nobela berriak; **Ignacio Peyró** maisuak **Julio Iglesias** buruz idatzitako biografiak; edo **Harkaitz Cano** *Silueta* bere nobela berriaren egiten duen hausnarketak. Idatzi al daiteke nobela bat irakurri gabe, kritikei jarraituz?

Ez ziren falta izan errezitaldiak, hala nola **Ángel Marcok Antonio Machadoren** inguruan egindakoa, haren jaiotzaren 150. urteurrena zela eta; **Iban Zalduak** eta **Ibil Bedi** taldeak eskainitakoa; **Virginia Woolf** idazlearen inguruko literatura-solasaldia eta afaria; eta **Amazurtza** nobelaren egile **Joxan Oizen** paseo literarioa, liburuan azaltzen diren **Donostiako** kaleetan barrena.

Esan daiteke 2025ekoa izan dela **Literaktum** jaialdiaren orain arteko edizio osoena.

Liburuen edizioaren aldeko apustuagatik ere nabarmendu zen 2025. urtea. Aipa daiteke **Catalina de Erausori** buruzko edizio bikaina, **Álvaro Bermejok** idatzitakoa; argazkiak, berriz, **Joseba Urretabizkaia**renak dira. Edizio elebiduna da, euskaraz eta espainieraz, eta **Xibarit** argitaletxeak eman du argitara. Irudiek Catalina de Erauso irudikatzen dute ikuspegi garaikide batetik, irakurlea bere pasioaren eta handitasunaren lekuko eginez. Edizio mugatua da, 727 alerekin.

Halaber, **Donostia Kulturak** laguntza eman zion **Gráficas Micheleneri** *Donostia / San Sebastián, postalez postal - postal (1902-1930)* liburuaren edizioan. Lan horrek **Luis Pepe Stinusen** bildumako antzinako postalen aukeraketa bat biltzen du, eta duela mende bat baino gehiagoko hirian zehar ibilaldia egiteko aukera eskaintzen du.

Azkenik, **Donostia Kulturak**, **Balea Zuria** editorialarekin batera, **VIII. Poesía Saria** editatu zuen, aurten **Sara Uribe Etxeberriak** jaso zuena. **Kuntzak eta Kerak** izenburua du liburuak.



Sara Uribe Etxeberria

2025ean nabarmendu zen hirugarren proiektua **Liburutegien Eguna** izan zen, urriaren 24an ospatu zena, **Koldo Mitxelena** liburutegiarekin eta **Tabakalerarekin** lankidetzan. **Interakzio soziala osasun iturri** izan zen leloa. **Espainiako** liburutegietan egindako esperientziak entzuteko aukera egon zen. Hasteko, **Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Óscar Rebollok** egin zuen hitzaldia, eta azaldu zuen liburutegiak gaur egungo gizarteak dituen arazoetako askori aurre egiteko oinarritzko azpiegitura komunitarioak direla. **Bartzelonako Diputazioko Esperança Pañosek nahi gabeko bakardadea** eta erakunde horrek garatu dituen esperientziak izan zituen hizpide, eta **Estela Gonzalo Eugenio Trías Liburutegi Publikoko** zuzendariak honela definitu zuen liburutegia: «*topagune nagusia*». 2025ean, kanpoko esperientziak biltzeaz gain, **Gipuzkoako** liburutegien jardunbide egokiak ere aurkeztu ziren. **Liburutegien Sareak** adierazi zuen garrantzitsuak direla **Irakurketa Erraza** programako taldeak; liburutegietan egiten da ekimen hori **Gurutze Gorriaren** eskutik. Mahai-ingurua egin zen parte-hartzaile guztiak.

Egitasmo hori nabarmentzen da, hiriko liburutegi publiko guztiak elkartu zituen bakarra izan zelako. Liburutegien arteko benetako lankidetzatza falta horrek ez dio batere laguntzen sistemari.



Andrés Neuman

Bi jarduera osagarrirekin osatu zen programa. Solasaldiari dagokionez, **Andrés Neuman** idazlea eta **Hasta que empieza a brillar** bere liburua izan genituen 2025ean. **María Moliner** liburuzain bikainari buruzko lana da, askoz ezagunagoa bere **Diccionario de uso del español** lanagatik; nolahi ere, benetan nabarmentzekoa da **Errepublika** garaian liburutegi publikoak sortzeko egin zuen lana ere. **Peter Næss** zuzendariaren **Elling** filmak eman zion amaiera **Liburutegien Egunari**.

Liburutegi-zerbitzuak, egunez egun bere zerbitzuak irekitzeaz gain, baliabide ugari bideratzen ditu bere bildumara. **Unitate Tekniko Zentrala** da udal sare osoaren motorra. Gaur egungo bildumaz arduratzeaz eta sare osorako protokoloak garatzeaz gain, funts historikoa berrikusten jarraitzen du. Haur-funts historikoaren katalogazioa eta autoritateak berrikusteko lana amaitu zen (11.908 ale), eta kontserbazioko kutxetan gordetako eskuorrien berrikuspenari ekin zitzaion; 11.900 aletatik 6.800 berrikusi ziren. Lan hori guztia **Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarerako** migrazioaren ondorio da.

Liburutegien Sareak Bilduma garatzeko politika eguneratua du. **Granadan** egindako **Liburutegien azkeneko Kongresuan** azpimarratu zen beharrezkoa dela era horretako politika bat izatea. **José Luis Herrera Morillas** irakaslea gai horri buruzko informazioa biltzen ari da, azkeneko urteetan areagotu egin baita zentsuraren arazoa liburutegien erosketetan.



Poesia eta Pentsamendua Topaketa



Maialen Marín Lacarta

Jarduerak

2025ean, **Emakume Idazleen Topaketaren 37. Edizioa** ospatu zen. **Nazioarteko Literatura Topaketa**. Nabarmentzekoa da programaren jarraitutasuna, baita emakume idazle ugariaren presentzia horren garrantzitsua ere. 37. edizio horretan, idazle bakarrak hartu zuen parte, **Noemí Trujillo**, eta **Una noche de Reyes** bere azken nobelari buruz hitz egin zuen; obra hibrido bat da, egunerokoa, saiakera eta narratiba uztartzen dituen eleberria. **Gabriela Wiener** idazlea ere gonbidatuta zegoen, baina huts egin zuen azkeneko momentuan. **San Telmo Museoan** izan zen hitzaldia, izan ere, liburutegi-zerbitzuaren programa den arren, **San Telmo Museoan** garatzen den ekimena da. **Luisa Etxenike** idazlea da programaren koordinatzailea.

Hirugarren urtez jarraian, **Ateneo Guipuzcoanorekin** lankidetzan antolatu zen **Literatura jazarriak** hitzaldi-zikloa, idazteagatik jazarpena jasaten dutenak edo jasan zutenak gogora ekartzeko, hainbat unibertsitate-irakasleren eskutik. Maiatzean egiten da ziklo hori. Hainbat figura aztertu zituzten 2025ean, hala nola **Unamuno** eta bere erbesteratzea **Hendaian**; **Itxaro Borda** idazleak egin zuen hitzaldia, euskaraz. **Maialen Marín Lacartak** Txinako modernitate literarioko bi egile izan zituen hizpide: **Lu Xun** eta **Shen Congwen**; **Radovan Ivšić** aztertu zuen **Loreto Casadok**; eta, azkenik, **Eugenio Padilla** poeta txiletarrari buruz hitz egin zuen **Francisca Noguerál** irakasleak. **San Jeronimo aretoan** egin zen zikloa, eta beraien ideiegatik jazarpena jasan zuten idazleak berreskuratzea izan zuen helburu.

Poesia eta Pentsamendua Topaketaren barruan, errezitaldi bakarra egin zen, **Koldo Mitxelenak** eta **Chillida Lekuk** ez baitzuten dagoeneko parte hartu. Ohitura da **Espainiako Poesia Sari Nazionalaren** irabazlea gonbidatzea. **Chus Pato** izan zen gonbidatua (Sari Nazionalaren 2024ko irabazlea). **Sara Uribe-Etxeberria Donostia Kulturaren Gazteentzako Poesia Sariaren** irabazleak, **Iker Aranberri Sarasuak**, **Nadia Fabok** eta **Oihane Jakak** osatu zuten errezitaldia.



Noemí Trujillo

Poesia Orduak irailaren 8an eta 10ean ospatu zen, **Euskal Jaiei** barruan. Hilaren 8an **Lourdes Iriondo** ekarri zen gogora, **Jon Martin Etxebeste** idazlearen **Isilarazitako ahotsa** liburua abiapuntutzat hartuta, eta **Irati Odriozola Zugarramurdi** eta **Ainhoa Ansa Zugarramurdi** abeslariekin batera. Helburua izan zen **Urnietako** abeslaria gogora ekartzea, hil zeneko 20. urteurrenean. Irailaren 10ean, **Itxaro Bordak** eta **Joseba Irazoki** musikariak **Itzalen Tektonika** liburuan oinarritutako musika eta poesia ikuskizuna eskaini zuten.

Hautzaroan hasten dira irakurle berriak. **Liburutegien Sareak Liburu Baby Klubean** oinarritutako programazio finkoa du; klub horretan, ipuin-saioak egiten dira haurrentzat eta haien gurasoentzat, **Mestiza elkartearen** eskutik. 355 saio egin ziren, eta 10.071 lagunek hartu zuen parte.

Gainera, liburutegi guztietan egiten dira **Ipuinaren Ordua** eta **Literaktum Txikia**; ekimen horien barruan, **Ipuin Maratoia**, **Ilustrazio lehiaketa**, **Ainara Azpiazuren** ilustrazio-tailerrak, **Nerea Ariznabarreta** eta **Dorleta Kortazarren** ipuin-kontaktak, **haurrentzako antzerki-emanaldiak** egiten dira; ekintza sorta horrek argi uzten du haurrei zuzendutako programazioak duen garrantzia.



Liburuaren Eguna


Liburuak eta liburutegiak balio-binomioa osatzen dute. **Liburuaren Egunean**, apirilaren 23an, urtero jartzen da **Donostia Kulturaren** karpa **Gipuzkoa plazan**. Ezin irudika dezakegu hiria **Liburuaren Egunik** gabe; horregatik, urtez urte ematen zaio babesa **Liburu-denden Elkarteari**, eta eraikinetatik ateratzeko eguna izaten da, herritarrekin topo egiteko.

Azkenik, lehenengo aldiz egin zen **Sendatzen duten hitzak** tailerra, euskaraz, **Hasier Larretxearekin**, irailaren 12an eta 16an. Erabateko arrakasta izan zuen tailer horrek. Saio biak egin ziren **San Jeronimo aretoan** eta berehala bete ziren. Helburua izan zen min egiten duenari buruz idaztea, musika eta literatura uztartzen dituzten testuak landuz.



Ipuin Maratoia © Iñaki Rubio

Liburutegi zerbitzua zenbakitan



Funtsak 614.210

Sarbide librea **482.317**
Historiko katalogatua **131.893**



Liburuak **498.553**
CD **31.139**
CD ROM / Bideo-jokoak **2.055**
DVD **55.259**
Mapak **251**
Material grafikoa **5.165**
Partiturak **11.455**
Aldizkako argitalpenak **10.112**
Ordenagailu eramangarriak **33**
E-reader / iPad **22**
Mahai-jokoak **166**



Euskaraz **114.376**
Gaztelaniaz **439.617**
Besterik **60.217**



Altak **31.216**



Bajak **29.974**



Bildumaren
hazkundera **-%0,50**



Bildumaren
eraberritzea **%5,08**



Maileguak 479.917

Maileguak eguneko
1.735



Helduentzako liburuak **237.594**
Haurrentzako liburuak **179.474**
CD **4.889**
DVD helduak **27.759**
DVD hurrak **9.466**
CD ROM **9**
Aldizkako argitalpenak **5.148**
Mapak **0**
Partiturak **2.412**
Bideo-jokoak **5.522**
E-reader / iPad **41**
Ordenagailu eramangarriak **7.304**
Mahai-jokoak **299**



Euskaraz **72.945**
Gaztelaniaz **302.353**
Besterik **20.950**



e-Liburutegia **20.067**



Funts Historikoak Kotsultak
419



Bazkideak 112.575

Helduak **99.211**
 Haurrak **12.691**
 Besterik **673**
 Gizonezkoak **50.359**
 Emakumezkoak **61.576**

Berriak 4.557

Helduak **3.048**
 Haurrak **1.482**
 Besterik **27**
 Gizonezkoak **2.068**
 Emakumezkoak **2.453**

Aktiboak 29.309

Helduak **21.582**
 Haurrak **7.049**
 Besterik **678**
 Gizonezkoak **11.866**
 Emakumezkoak **17.125**



Bisitariak 905.718

Eguneko **3.271**

WWW.


Kontsultak

KZguneetan **47.192**
 Aretoan **28.322**
 OPAC **654.929**
 Web **155.377**
 DonostiaTEKA **124.363**
 Liburu Dantza **1.560**
 DKOn **717**
 Kontsulta digitalak **3.214**



Jarduerak 1.951

Etorritakoak **45.133**
 Erakusketak **8**



LIBURUTEGI NAGUSIA

Sorrera urtea 1874

Irekiera leku berrian 1999



Funtsak

159.796

Sarbide librekoak 60.481

Historiko sailkatua 99.315



Altak

5.480



Bajak

3.645



Maileguak

97.513

Eguneko

327



Kontsultak funts historikoan

371

Kontsultak hemerotekan

6.112



Bisitak

300.741

Eguneko

1.009



Jarduerak

284

Etorritakoak

16.602



Erakusketak

6

LIBURUTEGI NAGUSIA Haur Saila

Haur Liburuaren

Dokumentazio Gunea

Sorrera urtea 1970

Irekiera leku berrian 1994



Funtsak

52.289

Sarbide librekoak 28.408

Historiko sailkatua 23.881



Altak

2.510



Bajak

1.267



Maileguak

26.651

Eguneko

93



Bisitak

25.531

Eguneko

89



Jarduerak

237

Etorritakoak

4.500



Kontsultak funts historikoan

48

Kultur etxetako liburutegiak

AIETE Kultur Etxea Liburutegia

Sorrera urtea
2010



Funtsak
42.290



Maileguak
57.029

Maileguak eguneko
189



Altak
2.864



Bisitak
53.927

Bisitak eguneko
179



Bajak
1.233



Jarduerak
124

Jardueretara etorritakoak
4.058

CASARES / TOMASENE Kultur Etxeak Liburutegia

Sorrera urtea 1986
Irekiera leku berrian 2006



Funtsak
42.583



Maileguak
34.247

Maileguak eguneko
115



Altak
2.422



Bisitak
59.035

Bisitak eguneko
198



Bajak
2.010



Jarduerak
139

Jardueretara etorritakoak
1.484

EGIA Kultur Etxea Liburutegia

Sorrera urtea
1997



Funtsak
27.577



Maileguak
21.102

Maileguak eguneko
93



Altak
2.128



Bisitak
25.018

Bisitak eguneko
110



Bajak
2.343



Jarduerak
192

Jardueretara etorritakoak
2.645



ERNEST LLUCH Kultur Etxea Liburutegia

Sorrera urtea
2001



Funtsak
44.735



Maileguak
68.251

Maileguak eguneko
229



Altak
2.788



Bisitak
137.240

Bisitak eguneko
461



Bajak
2.223



Jarduerak
319

Jardueretara etorritakoak
4.140

INTXAURRONDO Kultur Etxea Liburutegia

Sorrera urtea 2000
Irekiera leku berria 2011



Funtsak
46.060



Maileguak
35.746

Maileguak eguneko
145



Altak
2.583



Bisitak
51.119

Bisitak eguneko
208



Bajak
6.369



Jarduerak
116

Jardueretara etorritakoak
1.930

LARRATXO Liburutegia

Sorrera urtea
1987



Funtsak
20.483



Maileguak
8.641

Maileguak eguneko
38



Altak
1.134



Bisitak
18.664

Bisitak eguneko
82



Bajak
607



Jarduerak
61

Jardueretara etorritakoak
1.226

Kultur etxetako liburutegiak

LARROTXENE Kultur Etxea Liburutegia

Sorrera urtea
1988



Funtsak
10.256



Maileguak
6.178

Maileguak eguneko
27



Altak
874



Bisitak
10.053

Bisitak eguneko
44



Bajak
3.431



Jarduerak
61

Jardueretara etorritakoak
1.285

LOIOLA Kultur Etxea Liburutegia

Sorrera urtea
1987



Funtsak
29.385



Maileguak
18.019

Maileguak eguneko
79



Altak
1.523



Bisitak
37.432

Bisitak eguneko
165



Bajak
2.000



Jarduerak
105

Jardueretara etorritakoak
1.792

LUGARITZ Kultur Etxea Liburutegia

Sorrera urtea
1993



Funtsak
39.999



Maileguak
24.625

Maileguak eguneko
108



Altak
2.003



Bisitak
28.580

Bisitak eguneko
126



Bajak
478



Jarduerak
109

Jardueretara etorritakoak
1.700



OKENDO Kultur Etxea Liburutegia

Sorrera urtea 1987
Irekiera leku berria 2004



Funtsak
42.952



Maileguak
71.538

Maileguak eguneko
240



Altak
3.047



Bisitak
124.226

Bisitak eguneko
417



Bajak
3.847



Jarduerak
149

Jardueretara etorritakoak
3.207

SAN TELMO MUSEOA Liburutegia

Sorrera urtea
2011



Funtsak 19.350
Sarbide librekoak 10.653
Historiko sailkatua 8.697



Maileguak
915

Maileguak eguneko
5



Altak
626



Bisitak
3.419

Bisitak eguneko
17



Bajak
100

URGULL Liburutegia

Sorrera urtea
1997



Funtsak
4.427



Maileguak
392

Maileguak eguneko
6



Altak
138



Bisitak
3.044

Bisitak eguneko
49



Bajak
148



Jarduerak
7

Jardueretara etorritakoak
256

Beste liburutegiak

AMUNDARAIN MEDIATEKA

Sorrera urtea 2006
Irekiera leku berria 2018



Funtsak
5.430



Maileguak
3.804

Maileguak eguneko
17



Altak
290



Bisitak
7.022

Bisitak eguneko
31



Bajak
255



Jarduerak
48

Jardueretara etorritakoak
308

DONOSTIAKO UDAL MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAKO Liburutegia

Sorrera urtea
2006



Funtsak
23.949



Maileguak
5.207

Maileguak eguneko
22



Altak
806



Bisitak
19.094

Bisitak eguneko
81



Bajak
18

CRISTINA ENEAKO INGURUMEN BALIABIDEEN ETXEKO Liburutegia

Sorrera urtea
2002



Funtsak
2.649



Maileguak
59

Maileguak eguneko
0,18



Altak
0



Bisitak
1.573

Bisitak eguneko
5



Bajak
0

Programazioa Arte Eszenikoak

20  25





Música para Hitler, Txalo Producciones

Programazioa ARTE ESZENIKOAK

Harremani eta esperientziei dagokienez gero eta birtualagoa den testuinguru sozial honetan, publikoa den orok gero eta garrantzi handiagoa hartzen du. Antzoki batera joatea eta emanaldi eszeniko bat partekatzea esperientzia kolektibo berezi eta ordezkazekin gisa finkatzen da. **Donostia Kulturak** herritarrekin eta bere publikoekin duen konpromisoa irmoa da: kulturaz gozatzeko aukera bermatzea eta hausnarketa, pentsamendu kritikoa eta autokritika bultzatuko dituzten aisialdi-moduak proposatzea funtsezko misioa da. Helburu hori lortzeko modu bakarra da artearen sektoreari babes irmoa ematea, kultura-ekosistemaren ardatz gisa ulertuta. Izan ere, sorkuntza-sare indartsu bat izan gabe, nekeza da aurrera egiten jarraitzeko

erreferenteak, galderak eta jomugak behar dituen gizarte bati lagun egiteko gai izango diren proposamen adierazgarriak sortzea.

2025eko mugarriak

Honako hauek izan ziren 2025eko urte eszenikoko gertaera edo mugarri garrantzitsuenak:



dFERIAren XXXI. edizioa (2025)

BALANTZE OROKORRA

dFERIAk errekorrak hautsi zituen, parte-hartzeari, akreditazioei eta nazioarteko partaidetzari dagokionez, nazioartekotzearen eta Europako posizionamenduaren aldeko apustu estrategikoa sendotuz; **Atelier for Young Festival Managers** programari esker indartu zen apustu hori.

PUBLIKOA ETA PARTE-HARTZEA

dFERIAren 2025eko edizioak 17.749 lagun bildu zituen, ikuskizunetan % 85eko batez besteko okupazioarekin, eta parte-hartze handiarekin jarduera profesionaletan; horrela, publikoaren zein sektorearen babes handia izan zuen.

PROGRAMAZIO ARTISTIKOA

Ikuskizunen % 70 estreinaldiak izan ziren, dantza-, antzerki- eta zirko-ikuskizunez osatutako egitarau orekatu batekin, eta nazioarteko presentzia nabarmenarekin. 54 emankizun eskaini ziren zortzi espazio eszenikotan, eta horietako askotan agortu ziren sarrerak.

AKREDITAZIO PROFESIONALAK

700 profesional baino akreditatu ziren; horrenbestez, hazkunde nabarmena izan zuen kopuru horrek 2024arekiko, eta nazioarteko profesionalen kopurua, berriz, % 114 hazi zen.

JARDUERA PROFESIONALAK

Jarduera profesionaletan 7.200 lagunek baino gehiagok parte hartu zuen; horrela, sendotu egin zen sektorearen hausnarketarako, elkartrukerako eta aukerak sortzeko funtsezko espazio gisa.

HAUSNARKETARAKO MAHAIK

Miradas cruzadas topaketak sorkuntza garaikidearen erronkak izan zituen ardatz, eta emakumeen ikuspegitik jorratu zituen hainbat gai: krisia, memoria, aniztasuna eta publikoaren eta pribatuaren arteko harremana.

NEGOZIO FOROA

Negozio Foroa artisten eta programatzaileen arteko konexiorako gune nagusi izan zen berriro ere, eta 500 parte-hartzaile baino gehiago izan ziren, bi topaketa profesionaletan.

AURKEZPENAK

Aurkezpen profesionaletan nazioarteko kudeaketa- eta lankidetzak-ereduak jorratu zituzten; Alemania eta laguntza-programa iberoamerikarrak nabarmendu ziren, sektorearen parte-hartze eta interes handia eraginez.

THE FESTIVAL ACADEMY

Atelier Donostia programaren 2025eko edizioak 35 herrialdetako 47 kultura-kudeatzaile gazte elkartu zituen, hiria eta **dFERIA** kultura-trebakuntzaren eta -lidergoaren nazioarteko gune gisa kokatuz.

NAZIOARTEKOTZEA

Ardatz estrategiko gisa indartu zen nazioartekotzea, atzerriko profesional kopuruaren hazkunde handiarekin eta hizkuntza-irrigarritasuneko neurriekin (hala nola, ingelesezko gain-tituluak eta audio-gidak).

ESKER ONAK

dFERIAk eskertu egin zuen publikoaren, profesionalen, komunikabideen eta erakunde kolaboratzaileen babesa, modu berezian azpimarratuz euskal sare eszenikoaren eta elkarteen konpromisoa.

HURRENGO EDIZIOA

dFERIA azokaren XXXII. edizioa 2026ko martxoaren 14tik 18ra ospatuko da.



XXIV. DONOSTIA ANTZERKI SARIA 2025

2025eko edizioak argi utzi zuen berriro ere aurreko denboraldian aurkeztutako proposamenak maila artistiko handikoak zirela, 16 ikuskizun ez osatutako egitarau anitz eta zorrotz batekin. Horien artean, bereziki aintzatetsi zuen epaimahaiak **Hika Teatroa** konpainiaren **Zorretan** lana. Sari horrek sormen-lan horren indarra, heldutasuna eta berrikuntza-gaitasuna azpimarratu zituen. Begirada konprometitu eta garaikide batetik, publikoarekin konektatzen duen lana zela adierazi zuten sari-banaketan, eta, era berean, euskal sare eszenikoaren sendotasuna berretsi. **Zorretan** lanari emandako sariak, proposamen artistiko nabarmen bat gorai patzeaz gain, balioa eman zion tokiko konpainien etengabeko lanari eta gaur egungo panorama eszenikoari egiten dioten ekarpenari.

Ospakizunak amaiera bikaina izan zuen, sari-banaketako galarekin, martxoaren 27an, Antzerkiaren Mundu Egunean. Hazten ari den publiko baten babesari esker, gazte eta helduentzako euskarazko antzerki-egitarau egonkor eta erregular bati eustea lortu zuen Donostiak, Euskal Herrian bakarra dena, Euskara Zerbitzuarekin lankidetzan estuan.



UDAKO ANTZERKIA

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

Victoria Eugenia Antzokiko udako programazioak zortzi lan eskaini zituen uztailean hasi eta irailera arte, eta emaitza global positiboa izan zuen; bereziki arrakastatsuak izan ziren publikoarentzat oso ezagunak diren aktoreek protagonizatutako antzerki-proposamenak. Testu- eta komedia-ikuskizunak izan ziren nagusi parte-hartzeari, okupazioari eta diru-bilketari dagokienez; horrela, publikoak udako era horretako proposamenekiko joera egonkorra duela berretsi zen.

Camino a la Meca - Lola Herrera- (abuztuak 27-31) izan zen denboraldiko arrakasta handienetako bat. 2.688 ikuslerek eta % 75eko okupazioarekin, berretsi egin zuen **Lola Herrera** duen erakarmen handia eta publikoak testu sakoneko eta kalitate artistiko handiko proposamenekiko duen interesa.

Pijama para seis - Gabino Diego- (abuztuak 13-17) izan zen programazioko emaitza orokor onenak lortu zituen ikuskizuna. Liderra izan zen diru-bilketan eta asistentzian, 2.780 ikuslerek, baita okupazioan ere (% 78); horrela, udako lan arrakastatsua izan zen. Obra horren emankizunak berretsi zuten uda garaian publikoa erakartzeko eraginkortasun handia dutela aktore-multzo ezaguna duten formatu handiko komediek.

Inmaduros - Carlos Sobera- (uztailak 3-6) antzezlanak abiarazi zuen programazioa, emaitza sendoekin: 1.566 ikusle izan zituen, eta % 55eko okupazioa. Uda hasieran, publikoa oraindik udasasoiko ohituretarako trantsizioan dagoenean, ikuskizunak funtsezko eginkizuna bete zuen publikoaren eragile gisa, **Carlos Sobera**ren ospean eta komedia-formatu irisgarri eta eraginkor batean oinarrituta.



Pijama para seis, Gabino Diego

ANTZOKI ZAHARRA

Antzoki Zaharreko programazioak publikoaren erantzun sendoa eta iraunkorra izan zuen, komedia, testu-antzerkia eta tokikotasun-kutsu handiko proposamenak konbinatu zituen eskaintza anitz batekin. Datu orokorrek erakutsi zuten batez besteko okupazioa egonkorra izan zela, gorakada nabarmenekin euskal publikoak miresten dituen aktoreek protagonizatutako ikuskizunetan eta, batez ere, euskarazko proposamenetan.

Horrela, aipagarria da **Almazenean** lana – **Iker Galarza**– (abuztuak 14-17); udako arrakasta handienetako bat izan zen Antzoki Zaharrean. 1.131 ikuslerek eta % 59ko okupazioarekin, argi eta garbi nabarmendu zen programazio osoaren batez bestekoaren ginetik. Ikuskizunak izan zuen errendimendu onak berretsi egin zuen publikoak euskarazko proposamenekin duen lotura handia, baita **Iker Galarzak** duen erakarmena ere, hurbileko figura ezaguna baita, eta publiko zabala eta anitza erakartzeko gai izan baitzen.

Azpirarratzekoa da, gainera, **Iker Galarzak** berak aurrez antzeztutako gaztelarazko **Almacenados** bertsoak emaitza askoz xumeagoak lortu zituela; horrek indartu egin zuen hizkuntza eta identifikazio kulturala publikoaren erantzunean funtsezko faktoreak diren ideia.



Arizona, Txalo Produksioak



Almazenean, Iker Galarza

Arizona – **Txalo**, **Aitziber Garmendia** eta **Jon Plazaola** aktoreekin– (irailak 11-14) izan zen, zalantzarik gabe, Antzoki Zaharreko denboraldi osoan datu onenak lortu zituen ikuskizuna. 1.390 ikusle eta % 73,50eko okupazioa lortu zuen; datu horiei esker, udako programazioaren erabateko erreferentea izan zen.

Arizona antzezlanak izan zuen arrakastak agerian utzi zuen **Txalo** konpainiak jendea erakartzeko duen gaitasun ikaragarria, baita publikoak hain maitatuak diren **Aitziber Garmendia** eta **Jon Plazaola** aktoreekin duen zuzeneko konexioa ere. Euskarazko proposamena izateak indartu egin zuen irakurketa estrategikoa: geure hizkuntzan egindako antzezlanak, eginkizun kulturala eta sinbolikoa betetzeaz gain, emaitza bikainak lortu zituen, publikoari eta okupazioari dagokionez.

Udako antzerki-programazioa antzerki-fenomeno historiko eta harrigarria da urtez urte, garai berrietara egokitzen dena eta publiko masibo eta leial batengan behar berriak sortzen dituena. Ez dugu ahaztu behar orain dela 25 urte Madrilgo konpainiak bakarrik etortzen ziren; pixkanaka, bertako proposamenak sartzen hasi ziren, lehendabizi gaztelera eta, geroago, baita euskaraz ere.

IKUSKIZUN-ERAKUSTALDIAK

Antzerkia


Victoria Eugenia Antzokiak eta Antzoki Zaharrak, Egia Kultur Etxeko Gazteszenarekin eta Lugaritz Kultur Etxeko Imanol Larzabal aretoarekin batera, modu koordinatuak lan egin zuten, programazio anitza, askotarikoa eta berezia eskaintzeko. Formatu eta lengoia eszeniko guztietara iritsi zen eskaintza hori, eta gai izan zen publiko oso ezberdinetara iristeko eta zabaltasunaren, orijinaltasunaren eta kalitate kontrastatuaren arteko orekari eusteko. Sorkuntza hasiberriaren eta dramaturgia berrien aldeko apustu irmoa egin zuen programazioak, Donostia bezalako hiri batek merezi dituen izen handiak eta erreferentziatzko figurak ekartzeari muzin egin gabe.

Arte eszenikoak etorkizuneko ikusleei hurbiltzea izan zen 2025ean ere funtsezko ardatz estrategikoetako bat, publiko berriak sortzeko eta finkatzeko helburuz. Gazteen artean zuzeneko arteekiko interesa eta lotura sustatzeko, proposamen berritzaileak eskaini ziren —formari zein edukiei dagokienez—, artista eta konpainia gazteek sortuak, gainera. Testuinguru horretan, funtsezkoa izan zen prezio-politika. **Ordu Gaztea** ekimenak, esaterako, edozein ikuskizunetz hiru euroren truke gozatzeko aukera eman zien 30 urtez azpikoei, sarrera emanaldia hasi aurreko 30

minutuetan erosiz gero. 2025ean zehar, milaka gaztek baliatu zuen neurri hori, udal espazio eszenikoetan.

Hurrei zuzendutako antzerkia izan zen **Donostia Kulturaren** lehentasunezko beste jarduketatildotako bat. Hiriko bederatzi kultur etxeek eta udal antzokiek etengabe lan egin zuten arte eszenikoak hurrei hurbiltzeko, arte eszenikoekiko interesa txikitatik piztea kulturaren arloan trebatzeko eta etorkizuneko publikoak sortzeko erabakigarria dela jakitun.

Azkenik, nabarmentzekoa da orain dela 25 urte baino gehiagotik helduei zuzendutako euskarazko antzerkiaren alde egin den lana. Ahalegin horri esker, Euskal Herriko euskarazko antzerki-programazio erregular bakarra finkatu ahal izan da, eskaria gero eta handiagoa izan dadin lortuz; 2025ean, urrutira joan gabe, dozenaka mila ikusle izan zituzten **Donostia Kulturaren** agertokietan programatutako ikuskizunek. Programatutako emankizunek izandako batez besteko okupazio-maila handiak —denboraldi guztietatik onena— eta Udal Euskara Zerbitzuarekin izandako lankidetzaren sendoa berretsi egin zuten apustu estrategiko eta kultural honen egokitasuna.



Una pequeña historia, Héctor Alterio

Dantza

Victoria Eugenia udal antzokiak eta Egia Kultur Etxeko Gazteszena aretoak modu koordinatuan lan egin zuten, dantza-programazio anitza, askotarikoa eta berezia eskaintzeko, formatu eta lengoaia guztiak hartzeko eta publiko oso ezberdinetara iristeko gai izango zena. Eskaintza orekatua, zabala eta kalitate kontrastatukoa izan zen, ballet klasikoa, neoklasikoa zein proposamen garaikideenak aurkeztu zituena, flamenkoa, espainiar dantza eta hiri-dantzak barne. Antzerkiaren arloan bezala, hiriaren nabarmentasun kulturalaren mailako izen handiak eta erreferentziatzko figurak ekartzearen aldeko apustua egin zuen programazioak.

Estatu osoko beste espazio eszeniko askok ez bezala, Donostiak dantzaren aldeko —bere adierazpide guztietan— apustu sendoa eta iraunkorra egin zuen eta, horrela, 25 dantza-ikuskizun baino gehiago programatu zuen urtean zehar, **dFERIA** antzerki- eta dantza-azokaren barruan antolatutako hogeiren bat proposamenak zenbatu gabe. Erregularitasun eta iraunkortasun hori hiriak sektore koreografikoarekiko duen egiturazko konpromisoa agerian uzten duen ezaugarri bereizgarria da.

Lan-ildo hori sendotu zuten lankidetzak estrategikoak eta, programazio artistikoarekin batera, trebakuntzako eta sentsibilizazioko jarduera koreografiko sorta handia —topaketak, eskolak, tailerrak, laborategiak eta *masterclass*ak— dantza-politikaren funtsezko ardatz estrategiko gisa finkatu zen. Bulkada horretatik sortu zen memoria honetan aurrez aipatu dugun **Iturritik** jaialdia.

Azkenik, ezinbestekoa da **Gipuzkoako Dantzako Profesionalen Elkarteak** dantza sustatzeko eta garatzeko egin duen lana aipatzea; horren erakusgarri agerikoena Dantzaren Astea antolatu izana izan zen eta, Victoria Eugenia Antzokiarekin lankidetzan, baita **Dantzaren Eguneko Nazioarteko Gala** ere, hiriaren kultura-egutegian dagoeneko erabat finkatuta dagoena.



Duende, Nacho Duato © Fernando Marcos




DANTZAREN NAZIOARTEKO EGUNEN XXVIII. GALA

Gipuzkoako Dantzako Profesionalen Elkartea hasi zen Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatzen, 1996an. Urtebete geroago antolatu zen jai horren oroitzapenezko lehenengo gala. Bere filosofiari eutsiz, **Dantzaren Nazioarteko Egunaren XXVIII. Galak** dantza-estilo ugari eskaini zuen, dantzarien eta konpainien kolaborazio altruistari esker, arreta berezia eskainiz etxeko dantzari eta taldeei.

2025eko edizioan, honako hauek parte hartu zuten: **Ion Agirretxe**, **Cristina Casa**, **Alejandro Polo** eta **Gaizka Moralesek** (**Espainiako Dantza Konpainia Nazionaleko** kideak), **Mikel Aranak**, **Uikan Dantza** konpainiak eta **Real Conservatorio Profesional de Danza Mariemma** kontserbatorioak.

Alberto Sagardia nazioarteko piano-jolea eta **Gorka Durán** dantzaria izan ziren 2025eko edizioko sarituak; Duránek errebelazio saria jaso zuen. Galan bertan egin zen sari-banaketa; **Gipuzkoako Dantzako Profesionalen Elkarteak** antolatu zuen gala hori, Victoria Eugenia Antzokiarekin lankidetzan, eta bi saio egin ziren, 12:00etan eta 19:00etan.



IV. ITURRITIK JAIALDIA

Urriaren 16tik 19ra ospatu zen **Iturritik Jaialdiaren** laugarren edizioa. Guztira, bost konpainiak parte hartu zuen aretoan, eta beste bik kalean, guztiak ere euskal konpainiak: **Bilaka**, **Adriana Bilbao**, **Arkaitz Taldea**, **Goizaldi** eta **Eskola** konpainiek aretoan eskaini zuten beraien ikuskizunak, eta **Ereintzak** eta **Kresalak** kalean.

Haien sorkuntzetarako tradizioa abiapuntutzat hartuta, hainbat artistak egin zituzten beraien lanak nortasunaren inguruan. Aurrez aipatu dugun bezala, euskal konpainiak izan ziren protagonista laugarren edizio honetan. Halaber, artistekin elkartzeko eta hitz egiteko aukera sustatu zuen jaialdiak, entsegu irekiak eta jarduera paraleloak antolatuta.



Amores, Adriana Bilbao

Berritasun gisa, **Donostia Dantzan** izeneko gala egin zen, **Arkaitz Taldea**, **Goizaldi** eta **Eskola** dantza-taldeen partaidetzarekin, **Udal Txistulari Bandarekin** batera. Ibilbide luze eta oparoa duten dantza tradizionaleko taldeak dira hirurak, euskal dantzen transmisioaren aldeko lan handia egin dutenak. Lehendabiziko aldiz, **Udal Txistulari Bandarekin** batera igo ziren oholtzara.

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

Formatu handia, erreferentziazko ikuskizunak, artista ezagunak, sormena eta kaudimen artistikoa dira Espainiar Estatuko antzokirik enblematikoenetakoa den Victoria Eugenia Antzokiaren ezaugarri nagusiak. Urtean zehar, hitzak, memoriak eta emozioak orainaldiarekin hitz egin zuten gune bihurtu zen bere agertokia. Hainbat proposamenek aurkitu zuten ohol-tza antzokian, hala nola **Una pequeña historia** ikuskizunak —**Héctor Alterio** aktorearekin—, aginpide eszenikoaren benetako ariketa denak; edo pultsio etiko eta politiko indartsua duen **Juan Diego Bottoren 14.4** lanak. Azken horrek ikuslea interpelatu zuen, fikzioaren eta errealtatearen arteko mugatik. Ikuskizun horiek baieztatu zuten Victoria Eugenia antzerkia, ikusi ez ezik, entzun eta pentsatu ere egiten den espazioa dela. Nabarmenezkoa da, halaber, otsailaren 16an **Héctor Alterio** egon zela Donostiako Antzokian, eta oroitzapen ahaztezina utzi zuela ikusleen memorian eta antzokiaren beraren historian.

Horiekin batera, sakontasunari uko egin ez zioten inpaktu handiko eta herri-bokazioko ekoizpen handiekin aberastu zen denboraldia. **Txalo Produzioak** konpainiaren **Música para Hitler** lanak Alemania nazian kokatu zuen ekintza, **Pau Casals** biolontxelo-jotzaile ospetsuak **Adolf Hitlerren** urtebetetzean kontzertu pribatu bat eskaintzeko gonbidapena —egiata, presio bat zen— jaso zuenean. **Poncia** antzezlanak, **Lolita Floresekin**, Lorcaren unibertsoaren antzeppen boteretsua eta garaikidea eskaini zuen; **La casa de Bernarda Alba** antzerki-laneko neskameari ahotsa eman zion bakarrizketa, **Lorcaren** unibertsoa begirada intimo eta errebelde batetik berrinterpretatuz. Obedientziak, isiltasunak eta erruak markatutako emakume bat erretratatu zuen antzezlanak, azkenean bere kontzientziari eta urtetan ikusitako tiraniari aurre egin ziena. **El efecto** ere nabarmendu zen, **Fran Perea** protagonista duen lana; antzerki garaikidearen proposamena, zientziaren, maitasunaren eta etikaren arteko mugak arakatzeko dituen. Antidepressibo berri bat probatzeko esperimendu kliniko baten inguruko istorioa da; bi paziente hartu zuten parte entseguan, eta maitemindu egin ziren, galdera kezkarri bat planteatuz: beraien sentimenduak benetakoak diren, edo botikaren emaitza kimikoa.

Vulcanok itxi zuen ibilbide hori, komunitate itxi baten barruan, ezkutuko indarkeria, maskulinitatea eta konpondu gabeko gatazka emozionalak arakatzeko dituen obra. Itxuraz ohikoa den egoera batetik abiatuta, erupzioan sartzean dagoen sumendi batek bezala funtzionatzen duten barne-tentsioak, isiltasunak eta leherketak azaleratu zituen antzezlanak. Beldurrak, erruak eta hauskortasuna adierazteko ezintasunak jokabide suntsitzaileak nola ekar ditzaketen hausnartzen du obrak. **Eneko Sagardoyren** antzeppen nabarmenarekin, **Vulcano** lanak antzerki fisiko eta emozional bat proposatu zuen, ikuslea zuzenean interpelatu zuena.

Dantzari dagokionez, nabarmendu behar ditugu...

Nacho Duatok sortutako **Na Floresta, Duende** eta **Cantus** koreografiak; hiruren artean, bere sorkuntza-unibertsoan eta bere ibilbidea zeharkatzen duten gai nagusietako batzuetan sakon barneratzeko aukera eman zuen triptiko bat osatu zuten. Pieza isolatuak izatetik urrun, obra hauek elkarren arteko elkarriketa dute eta ibilbide sentikor, fisiko eta emozionala proposatzen dute, non gorputza naturarekin, memoria kulturalarekin eta gizakiaren dimentsio izpiritualarekin konektatzeko tresna bihurtzen den. **Na Floresta** obran, **Duato Villa-Lobosen** musikan inspiratu zen, ingurune fisiko ez ezik, barne-egoera gisa ere ulertzen den paisaia natural bat gogora ekartzeko. Koreografiak organikotasun ia instintibo bat du: gorputzak lurraren erritmora arnastuko balute bezala mugitzen dira, bulkada kolektiboak eta intimitate-uneak txandakatuz.



Poncia, Lolita Flores



Soirée de Ballets, Malandain Ballet Biarritz

Duende obrak tonu-aldaketa bat ekarri zuen, eta dimentsio ilun eta biziago batean barneratu zen. Lorcaren *duende* kontzeptuan inspiratuta dago, eta emozio gordina, barne-tentsioa eta dantzariari sakon-sakonetik sortzen zaion egia arakatzeko dituen.

Cantus obrak, berriz, ibilbidea itxi zuen, atmosfera ia erritual batetik. **Karl Jenkinsen** musikaren gainean, araztasun formal handiko eta karga sinboliko biziko koreografia bat eraikitzen du **Duato**k, non mugimenduak dimentsio izpirituala eta kontenplaziozkoa hartzen duen.

Malandain Ballet Biarritz dantza-konpainiaren ***Soirée de Ballets*** obrak **Thierry Malandainen** unibertso koreografikoan zeharreko ibilbide fina eta exigentea proposatu zuen, bere estiloaren muina laburbiltzen duten pieza laburrak bilduz, hots, zorroztasun klasikoa, sentikortasun garaikidea eta musikaltasun sakon bat. ***Soirée de Ballets*** ez da pieza zatien segida soil bat; balletaren ospakizun gisa funtzionatzen du, zentzurik zabalenean, eta modu naturalean uztartzen dira tradizioa eta berrikuntza. Koreografia bakoitzak balioa ematen dio zehaztasun teknikoari, mugimenduaren argitasunari eta dotoretasun formalari eta, aldi berean, lengoaia neoklasiko, garbi eta artifiziorik gabekoa txertatzen du. Horrela, dantzariaren gorputza garbitasun handiko adierazpen-tresna bihurtzen da, emozioa transmititzeko gai dena, euspenetik eta orekatik.

Oro har, ***Soirée de Ballets*** piezak kalitate artistiko handiko esperientzia eskaini zion publikoari, eskuragarria eta, aldi berean, exigentea, **Malandain Ballet Biarritz** frantziar ballet neoklasikoaren erreferentzia ukazina dela berretsi zuena.



Ambulant, La Fam

Azkenik, **Marcat Danza** konpainiaren ***Averno*** ikuskizunak itxi zuen 2025eko programazioa, intentsitate fisiko eta sinboliko handiko sorkuntza batekin, lurralde ilun eta oso humanoetan barneratu zena. Abernuaren ideia erreferentziatza hartuta —azpimundua, argiaren eta itzalaren arteko igarobidea—, koreografiak proposatzen du gatazka, eraldaketa eta hauskortasuna bizi diren barne-espazioetara jaitea.

Adierazpide-karga handia eta muturreko fisikotasuna dituen gorputz-lengoaia sendo batetik eraikitzen da pieza. Dantzariak etengabeko tentsio-espazio batean mugitzen dira, non gorputza borroka-, erresistentzia- eta aldaketa-lurralde gisa ageri den. Mugimenduak —batzuetan eutsia eta besteetan leherkorra—, erritu eta barne-bidaia sentsazioa indartzen duen soinu- eta ikus-atmosfera batekin elkarrizketan dihardu.

Averno lanak ez du irakurketa narratibo itxi bat bilatzen, ikuslea alderdi emozionaletik eta instintibotik interpelatzen duen esperientzia sensorial bat baizik. **Marcat Danza** konpainiaren identitate artistikoa berresten duen proposamena da: dantza garaikide konprometitua, bizia eta poetikoa, gorputza gizakiaren mugak eta alderdirik sakonenak arakatzeko tresna gisa erabiltzen duena.

Musikalak, zirkoa eta beste ikuskizun batzuk

Musikalak: *Kinky Boots*; *El fantasma de la ópera*; *Romeo y Julieta*

Zirkoa: *Ambulant* - La Fam

Magia: *Donostia magiaz blai* (Erregeak), **GETINEK** ekoiztua; *Orbit magoa*

ANTZOKI ZAHARRA

Antzoki Zaharrak funtsezko lana egiten du, oinarrizko hiru ardatz dituen zirkulu bat ixten laguntzen duena:

Victoria Eugenia Antzokiaren laguntzailea eta osagarria da, formatu ertaineko gaztelerazko antzerki-proposamenekin, hala nola **Querida Agatha**, **Yllana** edo Espainiako Trantsizioan funtsezko emakumea izan zen **Carmen Díez de Riverari** buruzko **Carmen, nada de nadie**.

Euskal Herriko euskarazko antzerki-programazio egonkor eta erregular bakarraren oinarri nagusia. Kale Nagusiko eszenatokitik, euskarazko antzerki-ekoizpenean erreferente diren konpainia guztiak igarotzen dira, hala nola **Txalo**, **Tanttaka**, **Hika** eta **Artedrama**.

Haurrei zuzendutako ikuskizunetarako laguntza.



Carmen, nada de nadie

GAZTESZENA

Nabarmenezkoa da Egia Kultur Etxeko aretoak dantza garaikidearen arloan egiten duen lana. Hainbat artista eta konpainia igaro zen Gazteszenatik, hala nola **Osa+Mujika**, **Cia Alentejana**, **OtraDanza**, **Dani Abreu** eta **Cielo Raso**.

Zirko berria deritzon arloan, hainbat proposamen aurkeztu zen, hala nola **Circo Nueveuno**.

Euskarazko antzerki-programazioari dagokionez, **Dejabu Panpin Laborategia** izan genuen **Itzulera** ikuskizunarekin, **Artedrama** konpainiaren **Nor naizen baneki**, eta gaztelerazko beste ikuskizun garaikide batzuk.



Nor naizen baneki, Artedrama

IMANOL LARZABAL

Lugaritz Kultur Etxeko Imanol Larzabal aretoaren lana nabarmena izan zen, formatu txikiko lanei dagokienez. Hiriko artista hasiberrientzako agertoki egokia izan zen. Eskaini ziren ikuskizun motek **Donostia Kulturaren** esku-hartzea osotzat eta globaltzat har zedin lagundu zuten: estilo ezberdinak, askotariko kontzeptuak, artista gazteentzako aukerak eta hirira zabalduzako ate bat.

Timbre 4, **Cia Erica Rivas** eta **Teatro Sin Papeles** konpainiak eta euskaraz lan egiten duten **Sustrai Teatroa** eta **Tripak Kolektiboa** konpainiak, besteak beste, gaztetasunak eta talentuak markatutako formatu txikiko antzerki-eskaintza zabal, dibertsifikatu eta ireki baten erakusgarri izan ziren.

Zifra bikainek bermatu zuten programazioa, donostiarren babesa izan zuena, eta, gainera, esku-hartze eraginkorra izan zuena amateur mailan ere.



Minuit et demi, ou le Coeur mystérieux, Malandain Ballet Biarritz © Olivier Houeix

IKUSKIZUNEN PRODUKZIOA

Victoria Eugenia Antzokia arte eszenikoen, antzerkiaren, dantzaren eta, neurri txikiagoan, zirkoaren sektorearen eragile dinamizatzailea da, urtez urte eta urratsez urrats, sektorearen sareetan gero eta modu aktiboagoan parte hartzen duena. Antzerkia ikuskizunen erakusleihoa baino zerbait gehiago da: espazio dinamiko bat izaten ahalegindu zen, kudeaketa-bide berrien aldeko apustua egin zuena, erronka berriak bere gain hartu zituen, eta erakustaldi hutsetik harago joan zena, proiektuetan beste modu batera, intentsitate handiagoz, inplikaturik eta konpromisoak hartuz. Ez gastuak partekatuz soilik, baizik eta baita ikuskizunaren garapenean eta haren ondorengo bizitzan kolaboratuz ere. Horregatik, estrategia horren parte izan zen koproduzitzeko borondatea, eta proiektuak bultzatzeko, bermatzeko eta horietan bidelagun izateko nahia, sorkuntza-prozesuetan erabat sartuz.

Ekoizpenak garestiak direnez eta ondorengo banaketan zailtasunak sortzen direnez, beharrezkoa izan zen ahaleginak batzea eta eredu partekatuen aldeko apustua egitea. Lasaitasun handiagoz eta baliabide gehiagorekin sortzearen aldeko apustua, emaitza artistiko onak, ustiakuntza-aldi luzeagoak eta itzulkin gehiago lortzeko helburuz.

2025ean, ondorengo ikuskizunak koproduzitu zituen Victoria Eugenia Antzokiak:



Minuit et demi ou le cœur mystérieux

Malandain Ballet Biarritz

Nazioarteko proiektzioa duen formatu handiko koproduktzioa, Europan prestigio handiena duten zentro koreografikoetako batekiko lankidetzaz estrategikoki indartu zuena, eta hiria dantzaren nazioarteko zirkuituan kokatu zuena.



Filtro

Sala Verdi + La Dramática Errante

Antzerki garaikideko koproduktzioa, Euskal Herriaren historiarekin lotutako benetako gertakizunetan oinarrituta dagoena, balio artistiko eta sozial handikoa, programazioan nazioartekotzea eta elkarrizketa iberoamerikarra bultzatu zituen.



Moko

Gorakada

Hurrei eta familiei zuzendutako koproduktzioa, Bilintx donostiar poetari buruzkoa; pertsonaia polemikoa izan zen Bilintx, eta Donostiako Antzoki Zaharrean bertan hil zen, ezbeharrez.

KOPRODUKZIOAK

Berritasun gisa, **Larrun** lankidetzaz-proiektua nabarmentzen da, **Biarritzeko Ballet** konpainiarekin dagoen elkarlanetik sortzen dena, beste urrats bat eginez, 2025ean ekimen hau abian jarrita.

Ballet konpainiak berak sorkuntza koreografikoa bultzatzeko eta sustatzeko bultzatzen dituen programen barruan integratu zen proposamena; programa horiek ikerkuntzarako, sorkuntzarako eta sortzaile eta/edo koreografia berriei laguntzeko espazio gisa ulertzen dira.

Larrun egitasmoaren bitartez, baterako elkarlan- eta lankidetzaz-eredu bat bultzatu zen, koproduktzio artistikoei laguntzeko, koreografia garaikideen sorkuntza babesteko eta sortzaileen eta erakundeen arteko aliantza egonkorak eraikitzeko indarrak batu zituen, era horretan, proposamen koreografiko berriak garatu eta proiektatu daitezkeen bultzatuz.

2025ean abian jarri zen egitasmo horrek hurrengo urtean emango ditu lehenengo fruituak; horrela, bi koreografia berriri emango die laguntza. Laster emango da horren berri.

JARDUERA PARALELOAK ETA SENTSIBILIZAZIOKOAK

Arte eszenikoen inguruko prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak dira **Donostia Kulturaren** arreta handiz zaintzen diren ardatzetako bat; 2.868 lagun inguru mugitzen dute urtero, tailer, laborategi, ikastaro, *masterclass*, truke, ikuskizunen eskola, entsegu ireki, artisten eta publikoaren arteko topaketa eta bestelakoetan.

Helburua da arte eszenikoak herritarrarengana hurbiltzea, erabiltzailearentzat aberasgarriak izango diren ikuspuntuak txertatzea, arte eszenikoak ezagutzen laguntzea eta, azken batean, dantzaren eta antzerkiaren publikoa eta publiko berriak sortzen joatea.

Atal honen barruan, haien tamaina eta sendotasunagatik, kapitulu espezifikoko bat merezi izan zuten bi proiektu aipatu behar ditugu: **Escolatik antzokira** eta **Dramaturgia Berriak**, idazketa dramatikorako laborategia; azken horrek atsedean hartu zuen 2025ean, bi urtean behin antolatzea erabaki baitzen, hautatutako testua eszenan jartzeko tartea izateko helburuz.



ESKOLATIK ANTZOKIRA 2024 / 25

Egitasmoaren helburua izan zen hiriko eta probintziako ikasleak arte eszenikoetan trebatzea.

2025eko denboraldian, 6.514 parte-hartzaile (6.028 ikasle eta 486 irakasle) izan zituen **Escolatik antzokira** programak, adinaren arabera programatutako sei ikuskizunen 41 emankizunetan.

Honako hau izan zen egitaraua, guztira 41 emankizunekin:

2 urtetik gorakoentzat: **Mutt jaunaren fregona**, **Marc Lacourt** konpainiarena (10)

4 urtetik gorakoentzat: **Mr. Bo**, **Marie de Jongh** konpainiarena (7)

6 urtetik gorakoentzat: **Andereño**, **Anita Maravillas** konpainiarena (6)

8 urtetik gorakoentzat: **Anónimos**, **Rauxa Cía**. konpainiarena (7)

12 urtetik gorakoentzat: **Loop**, **Aracaladanza** konpainiarena (5)

14 urtetik gorakoentzat: **Sexberdinak**, **Tanttaka Teatroa** konpainiarena (6)

Bereziki ikastetxeetarako diseinatutako kultura-bitartekaritzako proiektua da, haurrak eta gazteak erdigunean jartzeko eginkizuna duena. Programa horretan, arretaz hautatutako antzezlan eta dantza-ikuskizun sorta bat eskaintzen da, adin-tarteen arabera sailkatuta, baita gizarte- eta hezkuntza-garrantzi handiko gaiak eta hurrei eta gazteei zuzenean eragiten dieten gai sentsorialak jorratzen dituzten jarduera pedagogikoak ere.

Programa honen helburua da, ikasleak errealitate horien inguruan sentsibilizatzea ez ezik, errealitate horiei ikuspegi kritiko, gogoetatsu eta emozional batetik aurre egiteko tresnak eskaintzea. Halaber, oro har, edukiak bat datoz hainbat ikasgaren curriculum-helburuekin, hala nola Hiritartasunerako Hezkuntza, Balio etikoak, Hizkuntza eta literatura, baita Historia eta Gizarte-zientziak ere; era horretan, errazagoa izango da ikasgelan gai horiek modu praktiko eta hurbilagoan jorratzea.

Asmoa da antzokira joaten diren ikasleek eta irakasleek esperientziari etekin pedagogikoa ateratzea. Horretarako, ikusleak trebatzeko gida batzuk prestatzen dira, hautatutako ikuskizunari buruzko hausnarketak eta informazioak jasotzen dituztenak, eta emanaldira joan baino lehen eta/edo ondoren ikasgelan egiteko jarduerak proposatzen dira; gainera, hainbat iradokizun egiten da, ikusleak bere emozioak adieraz ditzan.

Eskolatik antzokira egitasmoak programa bultzatzen duten konplizitateak eta leialtasunak sortzen ditu, haurrentzako mesedegarriak izango direnak beraien ikasketetan eta bizitzan. Gazteenei arte eszenikoekiko eta zuzeneko arteekiko maitasuna irakastea osagarri oso garrantzitsua da haien prestakuntza akademikoan eta pertsonalean. Arte eszenikoekiko duten lotura horrek bizitza osoan iraungo die.



ANTZERKIA

Lanak Emanaldiak Ikus-entzuleak Ordu Gaztea

NEGUKO DENBORALDIA**144 222 49.305 252****Antzerki Profesionala**

Euskaraz	21	42	9.567	79
Gaztelaniaz	47	60	17.651	173

Haurrentzako Antzerkia

Euskaraz	15	20	3.714	
Gaztelaniaz	3	3	613	
Testurik gabe	8	8	1.107	

Klub Aretoa

Euskaraz	2	4	309	
Gaztelaniaz	1	3	295	

Antzerki amateurra

Euskaraz	19	19	2.558	
Gaztelaniaz	10	10	1.489	

Eskolatik antzokira

6 41 6.514

Kale antzerkia

Euskaraz	5	5	1.538	
Gaztelaniaz	0	0	0	
Testurik gabe	7	7	3.950	

UDAKO DENBORALDIA**18 79 26.358 422****Antzerki Profesionala**

Euskaraz	4	16	4.122	99
Gaztelaniaz	14	63	19.880	297

Dantza

1 4 1.586 16

Musikala

1 3 770 10

DANTZA**26 30 10.863 108****Dantza Profesionala**

21 24 9.059 108

Dantza Profesionala kalean

3 3 1.650

Klub Aretoa

2 3 154

MUSIKALA**2 8 2.837 104****ZIRKOA****2 3 1.198 13****JAIALDIAK****71 90 14.240****dFERIA**

33 40 10.482

Poltsiko Antzerkia

19 31 2.332

Gazteen Antzerki Topaketa

19 19 1.426

Jarduerak Egunak Parte hartzaileak

BESTE JARDUERA BATZUK**40 127 2.868****Dantza**


34 104 2.493

Antzerkia

6 23 375

Programazioa Musika

20  25





Lina © Mileu

Programazioa MUSIKA

2025eko ekitaldian, **Donostia Kulturako** musika sailak musika-programazio zabala eta anitza garatu zuen, era horretan, publiko anitzetarako topaleku eta kultura-erreferente gisa duen rola sendotuz. Proposamenak bertako euskarazko programazioa, gaur egungo musikak, sorkuntza garaikidea, musika klasikoa, jazz, familientzako proposamenak eta formatu handiak konbinatu zituen; horrela, izen handiko artisten eta talentu berrien arteko orekari eutsi zion, baita bertako, Estatuko eta nazioarteko ekoizpenen arteko orekari ere.

Blokeka eta ziklo egonkorretan antolatu zen programazioa, kultura-nortasuna indartuz eta sorkuntza eta publiko berrien fidelizazioa bultzatuz.

Azpimarratzekoa da Antzoki Zaharrean programazioa indartzeko egindako ahalegina; era horretan, pixkanaka, espazio hori berreskuratu da agertoki gisa, eta erakundearen musika-jardueran txertatu da.

Tokiko eszenak eta euskarazko musikak protagonismo argia izan zuten, artista ezagunekin, hala nola **Ruper Ordorika & Mugalariak**, **Errobi**, **Joseba Irazoki**, **Mikel Urdangarin** eta **Antton Valverde** —azken honek **Adarra Saria** jaso zuen Musikaren Egunean—, eta hainbat talentu berrirekin, **Olaia Inziarte** eta **Maren** kasu. **Ricardo Aldarondok** sortu eta berak aurkezten duen **Discos Mon Oncle** podcastak Gabonetako kontzertuaren hirugarren edizioa ospatu zuen, bertako zenbait artistarekin, hala nola **Mikel Aguirre**, **Sara Azurza**, **Andrea Buenavista & Pablo Oliva**, **Simón Ezquiaga**, **Lide Hernando**, **Lidia Insausti**, **Paul San Martín**, **Joserra Senperena**, **Javier Sun** eta **Itziar Yagüe** eta **Zariatxo Abesbatza**. Aipamen berezia merezi du **Gorka Urbizuk**, urteko protagonistetako bat izan baitzen kulturaren arloan; sarrera guzti-guztiak saldu zituen eskaini zituen ondoz ondoko lau kontzertuetan.



Maren



Antton Valverde, Adarra Saria



Destroyer © Nicolas Bragg

Emakumezko artista handien egungo sorkuntzari eskainitako **Gure Ahotsak** zikloari esker, egungo eszenako emakumezko artisten proiektu garaikideak ikusarazteko eta haien presentzia indartzeko aukera eman zuen; besteak beste, **Olatz Salvador**, **Travis Birds**, **Amaia Miranda**, **Ginebras** eta **Tulsa** artistak izan ziren ziklo horretako protagonista.

Gaur egungo pop-rock musikak ere izan zuen bere lekua, Estatu-zein nazioarteko proiektzioa duten artisten bira handiekin, Victoria Eugenia Antzokian zein Antzoki Zaharrean; hala nola **Depedro**, **Maika Makovski**, **Alex Ubago**, **Zahara**, **María José Llergo**, **François Breut**, **The Marcus King Band**, **Destroyer**, **Max Weinberg** —Bruce Springsteen-en E Street Band taldeko kidea— izan genituen eta, formatu txikiagoei dagokienez, **The Delines**.



Alex Ubago



Euskadiko Gazte Orkestra

Musika klasikoak eta garaikideak eta zarzuelak Victoria Eugenia Antzokia eta Klub aretoa izan zuten agertoki; **Euskadiko Gazte Orkestrak** bi kontzertu eman zituen, eta **Batura Zikloaren V. Edizioa** egin zen, prestigio handiko interpreteekin. Zarzuelari dagokionez, bi obra eskaini ziren: **La isla de las Perlas** eta **Los Gavilanes**.

Donostia Kulturak jazzaren aldeko apustu irmoa egin zuen, nazioarteko proiektio eta kalitate handiko kontzertuz osatutako programazio batekin, eszena garaikideko figura garrantzitsuen eskutik; horien artean, nabarmentzekoak dira **Kris Davis**, **James Brandon Lewis Trío**, **Brian Marsella Trío**, **Uri Caine Trío**, **Bobo Stenson Trío** eta **Marcin Masecki Trío**. Horrenbestez, finkatu egin zen publiko zorrotz batentzako eskaintza egonkor eta erreferentziazkoa.

Familiei eta publiko berriei zuzendutako programazioa, besteak beste **Txikijazz** ekimenaren bitartez garatu zena, Klub aretoan eta Victoria

Eugenia Antzokiko Areto Nagusian eskaini zen, kalitateari eta irisgarritasunari dagozkien irizpideen arabera, eta formatuetara egokituz. Esparru horretan, bi kontzertu egin ziren: **The Fake Cousins** eta **Les Contes Persans**, zuzeneko musikarekin eskainitako proiektio bat, **Arfi** frantziar konpainiaren eskutik.

Guztira, 52 kontzertu eskaini ziren, eta 20.000 ikus-entzule baino gehiago izan zituzten.

Bobo Stenson Trío



Programazioa Zinema eta Ikus-entzunezkoak

20  25





Programazioa ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK

Klasikoak, Modernoak eta Bitxiak izenburuarekin, **Nosferatu** zikloak garai eta jatorri guztietako hogeita hamar bat emakume zinemagileri balioa eman nahi izan zien Tabakalera beste horrenbeste proiektioekin; horrela, argi geratu zen posible dela zinemaren beste historia bat.

Donostia Kulturak diruz lagundutako formatu ertaineko jaialdien atalean, 2025eko albistea izan zen desagertu egin zela **Dock of the Bay** jaialdia, erakunde antolatzailearen beraren erabakiz. **Donoskino** jaialdiak (film laburren jaialdia, urrian) eta **CIMASUB - Itsaspeko Zinema Jaialdiak** (49. edizioa, azaroan), ordea, aurrera jarraitu dute.





Begiradak

Zinema eta mendia uztartzen dituen Menditour zirkuituaren saioek (otsailean) ikusle ugari erakarri zuten 2025ean ere. Gauza bera esan daiteke **Emakumeen Etxeak** sustatzen duen hitzorduari buruz (urria); 2025eko edizioan, Europa iparraldeko bi emakume zuzendari izan ziren protagonista.

Antzoki Zaharrean, gizarte arloko ikus-entzunezko askotariko gaiak jorratu ziren: Larrotxeneko ikasturte amaiera **Bideoaldiarekin**, **AGISAS** elkartearen goizeko topaketak (urria) eta **Begiradak** jaialdiaren amaierako gala (azaroa). Victoria Eugenia Antzokian, **Atzegiko** ikasleek berriro erakutsi zituzten haien abileziak, ikasturte amaierako ekitaldi nagusian (ekaina).





Estreinaldien atalean, **Euskararen Egunean** **Akelarre** musika-taldeari buruzko dokumentala eskaini zen.

Tinko euskara elkartearekin hitzartuta, **Euskara Zine Aretoetara** programak ikasleak zinema-aretoetara eramaten jarraitu zuen, goizeko saioetan, adin-taldeen arabera hautatutako filmen gaiak lantzeko gida didaktiko eta guzti.

Azkenik, **Bang Bang Zinemak** bere programa bikoitz arrakastatsuak eskaini zituen, bost saioekin urte osoan zehar.



Festak

20 **DK** 25
memoria





Festak

Errege Magoak

Ekialdeko Errege Magoen bisita Konstituzio plazan hasi zen 2025ean; **Melchorrek**, **Gasparrek** eta **Baltasarrek** San Sebastian eguneko jaiaren unerik kuttunenetakoak lehenengo ilaratik ikusten diren balkoira atera ahal izatea eskatu zioten Udalari: handik ikusten dira ondoen San Sebastian eguneko bandera nola goitzen eta jaisten den, 24 orduko danborradari hasiera eta amaiera emateko.

Plazan bildu ziren haur ugariak agurtu eta Alde Zaharrean ibilbide labur bat egin ondoren, hiriko hainbat auzotan barrena ibili ziren **Errege Magoak**, Rolls-Royce deskapotable batean. Hernani kalean hasi zuten ibilbidea eta, Altza, Intxaurren, Martutene, Loiolako Erriberak eta Antiguoa auzoak bisitatu ondoren, udaletxera itzuli ziren, eta han, zuten egitarau zabala ikusteko atseden labur bat egin ondoren, harrera egin zieten haiek agurtzera joan ziren pertsona guztiei —haurrak batez ere—.

Urtero herritarrei eskaintzen dieten kabalgata ordu-orduan hasi zen, 18:00etan, eta jende andanaren aurretik igaro zen hiriko erdiguneko kaleetan zehar. Segizioa ohiko lau karrozak osatu zuten —**Jaiotza, Melchor, Gaspar** eta **Baltasar**—, eta beste bat ere egon zen, **Itzurun konpartsako** buruhandiena. Erregeen karrozek hainbat gai hartu zituzten: **Melchorrena** zirkuaren munduari buruzkoa zen, afrikar giroa aukeratu zuen **Baltasarrek** egiptoar zibilizaziora eraman zuen publikoa **Gasparrek**. Halaber, hainbat ikuskizun ibiltari egon zen desfilean, publiko alai baten gozamenerako; horrela, jendeak etengabe txalotzen eta gorakatzzen zituen **Melchor, Gaspar** eta **Baltasar**.

Desfilea amaitu ondoren, eta egunari amaiera emateko, **Errege Magoek, Los Pasai** txarangarekin batera, adineko pertsonen hiru egoitza bisitatu zituzten eta beraien maitasuna helarazi zieten. **Ballesol Easo, Matía Rezola** eta **Bermingham egoitza** izan ziren, hain zuzen ere, Errege Magoek bisitatu zituzten zentroak.



© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti

San Sebastian Eguna – Danborrada

Eguraldi ona, jende andana eta giro bikaina izan ziren nagusi milaka donostiarrentzako urteko jai garrantzitsuena den San Sebastian egunean.

Txikienekin hasi ziren jaiak, danbor-jotzaile berrien harrobiarekin; urtero bezala, Victoria Eugenia antzokian elkartu ziren urtarrilaren 17an, ostirala, Danborrada ospatzeko eta 2025eko Haurren Danborradako pertsonaiak aurkezteko. 2025ean, **Ander Alustiza Salsamendi** izan zen Danbor Nagusia, **Amasorrain Ikastolako**; Danborradako pertsonaiak, berriz, **Harri Berri Oleta Ikastetxe**koak izan ziren.

Hiritar Merezimenduaren Dominak igande goizean, hilak 19, eman ziren, udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan. Honako pertsona eta erakunde hauek jaso zuten 2025ean domina hori: **Mestiza Elkar**teak, **Gipuzkoako Elikagaien Bankuak**, **Contxu Uzkudun** moda-diseinatzaileak **Askatuak** saskibaloi-klubeko presidente **Iñaki Almandozek** eta **Radio San Sebastian** irratiak. Hurrengo egunean, ehunka haur Alderdi Ederretik Haurren Danborradan parte hartzeko abiatzen ziren bitartean, Urrezko Danborra **Moriarti Produkzioak** zinema-ekoiztetxeari emateko ekitaldia egin zen.

Jai honek milaka donostiarrentzat duen esanahia identifikatu eta adieraziko duen irudi propioa sortzeko ideia berreskuratzeagatik oroituko da 2025eko Danborrada.

Aukeratutako kartelak —**Joseba Larratxe Berazadi**, *Josevisky* komikigile eta ilustratzaile irundarrarena— danborradaren parodia-izaera azpimarratu zuen, aurrez aurre jarrita 30eko hamarraldiko gerrako propagandaren estetika eta, sukaldariz mozarrotuta, hiriko egun nagusia izateaz gain, inauterien atariko jai den festa baten benetako protagonista bihurtzen den neskatala bat.

Ordu batzuk lehenago eman zitzaion hasiera ofiziala San Sebastian Egunari Konstituzio plazan, bandera goitituta; publiko andanak, plaza betetzeaz gain, harrera ona egin zion ekitaldia lasaiago eta jaiaren erdigunean bizi izateko kaian jarritako pantaila erraldoiari ere. Uste da 2.000 lagun inguru joan zela Kamingaintxe plazara, ekitaldia pantailatik zuzenean ikustera. Parte-hartzeari dagokionez, **Gaztelubideko** danbor- eta barril-jotzaileei helduen danborradetako 124 ordezkari batu zitzaien, une horren berezi hura bizi ahal izateko.



© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti

Bandera goititu ondoren, milaka lagunek hartu zuen hiria, danborrak eta barrilak joz. Danborradek beraien emandako datuen arabera, 22.736 lagunek —12.096 gizonexkok eta 10.640 emakumezkok— hartu zuen parte, modu batera edo bestera, helduen 167 danborradetan, 24 ordu haietan zehar. Azpimarratzekoa da 167 danborrada horietatik gehienak mistoak direla, 164k baimentzen baitute gizonek zein emakumeek berdintasunez parte hartzea; gainerakoak, berriz, erabat gizonaz edo erabat emakumez osatutakoak dira. 2025ean, zazpi danborrada berri sortu ziren: **Harri Berri-Oleta Danborrada**(Altza-Intxaurrondo), **Mary Ward Donosti ikastetxeko guraso-elkartea** (Amara-Loiolako Erriberak-Morlans), **Antigua-Luberri Danborrada**, **Easo Abesbatza** eta **Fortuna K.E. Danborrada** (Antigua-Antiguo), eta **Itzalpe Danborrada** eta **Ur Kirolak** (Alde Zaharra).

Haurren Danborradan parte hartu zuten 45 konpainiek lekukoa hartu zieten helduei eta, eguerdiko hamabietan, Alderdi Ederretik abiatu ziren, *San Sebastian Martxaren* erritmora. Pare bat orduz, 2.478 neskatila eta 2.147 haur parte-hartzaileek gogoz jo zituzten beraien danborrak eta barrilak hiriko erdiguneko kaleetan barrena.

Ezin ditugu ahaztu San Sebastian egunaren bezperako egunetan ere beraien ikastetxeetan prestatutako hamarka danborradetan desfilatu zuten haurrak ere eta, batez ere, aurreko eguneko arratsaldean —**Gaztelubide Txiki**, **UA 150 Haur Danborrada** eta **Kresala Txiki**— hilaren 20an bertan —**Amaratarra Txiki Danborrada**— desfilatu zutenak.

Banderaren jaitsierarekin amaitu zen San Sebastian eguna; bandera goititzeko ekitaldian bezainbeste jende erakarri ez zuen arren, jende asko elkartu zen jaiegunari amaiera ematera joan ziren **Unión Artesana** eta beste danborrada batzuetako 109 lagunak ikustera.

Azkeneko urteetako ohiturari jarraituz, **Club Vasco de Camping** elkarteari eman zitzaion 24 orduz Konstituzio plazako masta nagusian egon zen bandera, klubaren 75. urteurrena zela eta. Ez zen hori sari bakarra izan, beste danborrada batzuek ere ospatu baitzituzten beraien urteurrenak edo beraien elkarteenak: **Kondarrak**, **Benta Berriko Lagunak**, **Donostiarra Txirrindularitza Kluba**, **Gaztedi**, **María Reina parrokia - Egiako Tolosarrak**, **Tamborrada Club Cantábrico** eta **Zubi Musu**.

Amaitzeko, **ETBk** emankizunaren audientziari buruz emandako datuak jasoko ditugu. Banderaren goititzeak, hain zuzen ere, % 18,8ko *share*-a lortu zuen, eta 118.000 ikusle ezberdin konektatu ziren emankizunean zehar. 00:00etan, **Gaztelubidek** *San Sebastian martxa* jo zuen momentuan, 66.000 ikusle zeuden **ETB1** ikusten, % 15,2ko *share*-arekin.



© Sonia Urreizti

Donostiako Kaldereroak

Otsailaren etorrerarekin batera, Kaldereroen konpartsak beraien irteerak ospatzen hasi ziren. **Amara Berriko Elkarte Kaldereroak** *Amarakaldek* elkarteko kideak izan ziren lehenengoak; larunbatean, otsailak 1, Amara Berriko kaleetan ibili ziren, elkartearen 25. urteurrena ospatzen. Gainera, omenaldi hunkigarria egin zieten konpartsa sortu zenetik parte hartzen duten bi kide bakarrei: **Jesús Ausejo** eta **Iñaki Olasagastiri**, hain zuzen ere. Larunbat hartan bertan, **Arrano Elkarte Kaldereroak** konpartsa ere atera zen Egian.

Ikastetxe gehienek egin zuten beraien irteera otsailaren 7an ostirala: **Herrera Ikastetxea**, **Aldapeta María Ikastetxeko Kaldereroak**, **Zurriola Ikastola IKE Kaldereroak** eta **Ikasbide Kaldereroak**.

Hurrengo larunbatean, otsailak 8, irten ziren Kalderero gehienak; egun hartan, **Hungariako Kaldereroen Konpartsa Tradizionalak** ez ezik, beraien auzoetako kaleetan desfilatu zuten **Kai Harripe Alde Zaharreko Euskara Batzordea Kaldereroak**, **Txomin Auzoko Kalderero**

Konpartsa, Groseko Hungariar Kaldereroen Konpartsa, Amarako Kaldereroak Mamur - Donosti Berri, Herrera Kirol Elkarte Kaldereroak eta **Hungariako Galdaragileen Alde Zaharreko 1884ko Konpartsa Primitiboak** konpartsek.

Hungariako Kaldereroen Konpartsa Tradizionalak konpartsak egindako irteerari dagokionez, azpimarratu behar da aurreko urteetako eskemari jarraitu ziola. Fermin Calbeton kalean elkartu ziren, handik Konstituzio plazara abiatu ziren, eta hantxe jarri zuten kanpalekua, 22:00etan. *Amarakaldek* konpartsa 25. urteurreneko ekitaldiekin jarraitzeko, konpartsa ehun bat kidek egin zuten bat ospakizunarekin eta, gainerako parte-hartzaileekin batera, **Raimundo Sarriegik** konposatutako eta **Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolako Bandak** interpretatutako San Sebastian jaiko errepertorioan erritmora aritu ziren, **Kresala Dantza Taldearen** parte-hartzearekin; eslabiar dantza bat egin zuen taldeak —errusiar folkloreko dantza kosako ezaguna, *Gopak* izenekoa—, **Faustino Aranzabalen** koreografiarekin, eta 20 dantzarik interpretatuta.

410 bat kaldererok eta 19 tribuk hartu zuten parte, Erreginarekin batera; **Jon Lópezek** antzeztu zuen Erregina, eta **Ander Gómez de Segura** eta **Paul San Sebastian** aritu ziren damen paperean. Konpartsak **Gauerdi** txaranga izan zuen lagun ibilbide osoan zehar.

2025ean, **Hungariako Kaldereroen Konpartsa Tradizionalak** elkartasuna adierazi nahi izan zion palestinar herriari, konpartsako kide guztiak aldean zeramaten oroitzapenezko pin bat eginda.

Hurrengo asteburuan oraindik ere hainbat irteera egin ziren hiriko auzo batzuetan: ostiralean, hilak 14, **Jakintza Kaldereroak** konpartsa irten zen, eta larunbatean, otsailak 15, **Loiolatarra Kirol Elkarteak Kaldereroak** eta **Antiguako Kaldereroak**; beraiek eman zioten amaiera jaiari.

Azkenik, aipatzekoa da **Ainara Azpiazu Aduriz**, *Axpi*, ilustratzaile profesionalak diseinatu zuela 2025eko edizioa iragartzeko kartela. Kartel horretan, kaldereroen metal-hotsa irudikatu nahi izan zuen, zarata maila bisualera eramanez, baita kaldereroen festan gailentzen den jai-giroa eta alaitasuna ere.

Inude eta Artzainak

Inude eta Artzainen lau konpartsak egin zituzten irteerak hiriko auzoetan. **Groseko Artzai eta Iñudeak Konpartsa**, *Artaiñu*, izan zen irtetzen lehena, Groseko kaleetan, otsailaren 2an, igandea, eguerdian.

Astebete geroago, otsailaren 9an, igandea, **Kresala Elkarteko Inudeak eta Artzainak Konpartsako** 200 kideak irten ziren, eta Alde Zaharreko kaleetan desfilatu zuten, Donostiako XX. mende hasierako gizarteko ohiko egoerak irudikatuz. Aurreko urteetan bezala, behin konpartsa Konstituzio plazara iritsi zenean, inude eta artzain bikoteek haien errepertorio guztia antzeztu zuten, **Udal Txistulari Bandaren** laguntzarekin.

Beste bi Inude eta Artzain konpartsak desfilatu zuten hurrengo egunetan: **Ikasbide Ikastolako Iñude eta Artzaien Konpartsak** Amara Berriko kaleetan, otsailaren 16an, igandea, eta **Antiguako Iñude eta Artzaien Konpartsak** Antiguoko kaleetara eraman zuen jaia martxoaren 1ean, igandea, Inauterien ospakizunarekin bat eginez.



© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti

Inauteriak

Judas Arrieta artista hondarribiarrak diseinatu zuen 2025eko otsailaren 27tik, osteguna, martxoaren 4ra, asteartea, ospatu ziren Inauteriak iragartzen zituen kartela. Kartel dibertigarria eta koloretsua, Inauterietako egun haietan kaleak hartu zituzten pertsonaiaz betea.

Hodei San Buenaventura Gabarain izan zen Inauterietako pertsonaia nagusia antzezteko arduraduna. 2025eko **Momo** jainkoak bere segizioa izan zuen lagun, **Eirik Navarro Carrascok**, **Nahia Leonet Zuloagak** eta **Jon Asensio Tellecheak** osatua, guztiak ere Donostiako Inauterietan esperientzia handia duten pertsonak, inauterietako hainbat konpartsatari parte hartutakoak baitira.

Ostegunean, otsailak 27, konpartsetako kideek harrera egin zioten **Hodeiri**, eta **María Cristina hotelera** lagundu zioten; han, hiriko giltzak jaso zituen eta ostatu hartu zuen Inauteriek iraun zuten bitartean. Ondoren, udaletxeko Osoko Bilkuren aretora joan ziren konpartsetako kideak, *Inauteriko Arlekin festara*; bitartean, *Donostia Euskal Inauteriaz blai!* euskal Inauteria ospatu zen Alde Zaharreko kaleetan, **Eskola**, **Goizaldi** eta **Trebeska** dantza-taldeek eskutik.

Ostiralean, otsailak 28, **Illunben** egin zen konpartsen aurkezpenean, Inauterietan

parte hartu zuten 26 konpartsetatik 25ek hartu zuten parte. Guztiek izan zuten, debuta egiten zuten **Alegría Venezolana** konpartsak izan ezik, publikoari gero Donostiako kaleetan xehetasun handiagoz ikusi ahal izan zenaren aurrerapen bat erakusteko aukera, hiru minutuz. Hilabete luzetako lana egin zuten arropak diseinatzen, koreografiak biribiltzen eta xehetasunik txikiena ere azkentzen, dena ezin hobeki irten zedin. Aurreko urteetan bezala, *streaming* bidez eman zen gala, eta jendetza handia bildu zuen.

Epaimahaiak erabaki zuen Inauterietako Jantzien Diseinuaren VI. Saria *ex aequo* ematea *Soñando con caballos* gaiarekin parte hartu zuen **Fama** konpartsari, eta *El Show de Bob Mackie* gaia aukeratu zuen **Intxaur - Txiki** konpartsari. **Eureka** konpartsak eskuratu zuen bigarren saria, *iViva Canarias!* gaiarekin, eta hirugarren saria, berriz, **Alegría de Alza** konpartsak, *Pinceladas de Alegría* gaiarekin.

Eguraldia lagun izan genuen uneoro, eta aurreikusitako egitarau osoa betetzeko aukera eman zuen. Horrela, hilaren 1ean zein 2an, larunbata eta igandea, 26 konpartsek desfilea zuten hiriko erdiguneko ohiko ibilbidean. Hiru ordu eta erdiko desfilea egin zuten larunbatean; igandekoa, aldiz, arinagoa izan zen eta gutxiago iraun zuen.



© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti

Bi desfile horiek ondoren, Konpartsen eta Karrozen Lehiaketako palmaresa erabaki zen; horrela, kategoria bakoitzeko konpartsei eta karrozei eman sariak emateaz gain, Inauteriko Sari Nagusia berriz ere **Eureka** konpartsari ematea ebatzi zuen, *¡Viva Canarias!* gaiarekin; Umorearen Sari Nagusia, berriz, **Furius** konpartsari eman zitzaion, *¡A todo centrifugado!* gaiari esker. Aurreko edizioetan bezala, martxoaren 7an, ostirala, eman ziren sariak, Urrietako **Oianume** jatetxean egindako afarian; hantxe jaso zuen **Super Amarak** konpartsek ematen duten 2025eko Urrezko Sardina, konpartsei zein Donostiako Inauteriari, oro har, urtez urte ematen dien laguntzagatik.

Beste ekitaldi batzuk ere izan zuten tartea jai-egitarauan, hala nola Inauteriko konpartsa historikoek larunbat arratsaldean zein igande goizean eskaini zituzten emankizunek. **Eskolako Lorezainen Konpartsak**, **Donosti Cup-en** danborradak, **Union Artesanaren Lanpernen Konpartsak**, **Amarakaldeko Kaldereroak Konpartsak** eta **Gaztediren Oilarren Konpartsak** hartu zuten parte. Aipatzekoa da **Jose txo Fuentesek**, 25 urtez Lorezainen Konpartsen buru izan ondoren, **Tomás Ugaldebereri** eman ziola aginte-makila. Fuentes Momo jainkoa izan zen 1994an, eta urtero jainko horri Inauteriaren boterea ematen dion makuluaren sortzailea.

Martxoaren 4an, asteartea, eman zion Inauteriari amaiera ofiziala Sardinaren Ehorzketak. Desfile horrek bere alderdi tradizionala eta tokikoa bateratu zituen, beste latitude batzuetako eszenekin, hala nola **Momotxorroren** figurarekin eta nazioartekoagoa den beste batekin, Mexikoko **Catrina**, hain zuzen ere.

Aurreko urteetan bezala, agur ofizial horrekin, Inauteriak jarraitu egin zuen, eta oraindik ere beste hiru desfile egin ziren hiriko kaleetan: larunbatean, martxoak 8, **Loiolako Erriberetako** desfilea egin zen, 20 konpartsen eta partaide espontaneo batzuen parte-hartzearekin, **Amara Berri Auzo Elkarteko** inauteri-zaleak kasu; martxoaren 9an, igandea, **Altzako** Eltze Festa ospatu zen, 21 konpart sarekin; eta, azkenik, **Bidebietako** desfilea, martxoaren 15ean, larunbata, lau konpartsen parte-hartzearekin.

San Joan bezpera

2015ean, hiriko 19 gunetan ospatu zen San Joan bezpera ohiko suen inguruan, eta hainbat ekitaldirekin batera.

Urtero bezala, Konstituzio Plazan egin zen San Joan bezperako ekitaldi nagusia, udalbatzaren, **Udal Txistulari Bandaren** eta **Goizaldi, Arkaitz, Eskola** eta **Gero Axular** dantza-taldeetako dantzarien parte-hartzearekin.

San Joanetako zortzikoa dantzatu eta zuhaitzaren erritua bete ondoren, lizarraren azal zati bat hartzeko aukera izan zuen jendeak. Ekitaldia amaitzeko, erromeria izan zen **Udal Txistulari Bandaren** eskutik.



© Sonia Urreizti



18 suak

Auzoak

Aiete	Bidebieta
Intxaurrondo (2)	Morlans
Amara	Egia
Larratxo	Oleta
Amara Zaharra (2)	Gros
Loiola	Alde Zaharra
Antigua	Herrera
Martutene	Igeldo



© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti

Abuztuaren 9tik 16ra

Ekitaldiak

>300

Aste Nagusia

Abuztuaren 9tik 16ra ospatu zen hirian 2025eko Aste Nagusia, balantze positiboarekin, alkatearen esanetan: *donostiarrok kaleak hartu ditugu, alaitasunez eta umorez gozatzeko antolatutako 300 ekitaldi baino gehiagoz*. 2025eko Aste Nagusian, *parte-hartze handia eta beroa izan dira bi osagai nagusiak; aste lagunkoia, dibertigarria eta jendetsua izan da. Ekitaldi klasikoek arrakasta izaten jarraitu dute, eta harrera ona izan dute proposamen berriek. Aste Santua garai berrietara egokitzen da, egitarau zabala aberasten laguntzen duten proposamen berriekin*

Bi ekitaldiren inguruan ardaztu zen jaien hasiera, jendetza handiarekin: ‘Artillero’, 2025ean **Elikagaien Bankuak** eta **Amara Berri Auzo Elkartek** interpretatu zutena, eta **Holi Fest** ekitaldia, jai-egitarauari hasiera emateko festa gisa finkatu dena eta Boulevarda kolorez jantzi zuena.

Saguseko kontzertuak izan ziren jende gehien erakarri zituzten ekitaldietako bat. **OBK, Morodo, Marlon** eta 2025eko Aste Nagusiaren egitarauari amaiera eman zion **Leire Martínezen** kontzertuak nabarmendu ziren bereziki. Proposamen anitzagoak ere egon ziren, ez horren jendetsuak, **Janus Lester, JMartina + Dupla, Sexy Zebras** edo **Viccoren** kontzertuak, besteak beste.

Kursaala horren komertzialak ez diren musika-estiloak nahiago dituztenentzako topagunea izan zen beste behin: DJak, hiri-musika, jai-erromeriak, rapa eta afro musika, *food trucks* postuen eskaintza gastronomikoaz gozatzera gonbidatzen zuen giro lasaiago batean. Musika-eskaintza osatzeko, Easo plazako emanaldiak izan genituen, gauetako dantzaldiekin, eta Boulevardeko kioskoak, arratsaldetako —Musika Bandekin— zein su artifizialak amaitu ondorengo kontzertuekin, hainbat estilotako taldeekin.

Antiguo, Amara eta Gros auzoek ere izan zituzten beraien jai-espazio propioak, gastronomia, musika-emanaldiak, haurrentzako jarduerak eta kirol-jarduerak konbinatu zituztenak.

Haurrek ezin dute ulertu **Erraldoi eta Buruhandien Konpartsarik, Suzko Zezenik** edo **Bizikleta Festarik** gabeko Aste Nagusi bat, eta 2025ean ere, jendetsua eta gogotsua izan zen parte-hartzea ekitaldi horietan guztietan. Haurrentzako egitaraua osatzeko, antzerki- eta magia-ikuskitunak, beroa arintzeko uretako puzgarriak, haurrentzako jolasak eta kirol-jarduerak izan ziren.

2025ean ere, parte-hartze handia izan zuten aurretiazko inskripzioa behar zuten jarduerak, eta argi gelditu zen eskariak eskaintza gainditu zuela. Lehiaketa gastronomikoetan parte hartzeko plazak agortu egin ziren izena emateko epea ireki eta berehala; ibaian kanoa-paseoak eta bestelako proposamenak konbinatu zituzten jarduerak ere segituan bete ziren, bai eta Sagueseko kontzertuetako *backstage*-erako zozketak ere.

Herritarrentzako kirol-txapelketek eta -ekintzek ere -igeriketa zeharkaldia, hondartzako bolei jarduerak, pilota, jai-giroko ibilaldia bizikletaz eta patinez, *nordic walking* saioak, etab.- kirola eginez tarte atsegin bat igarotzeko prest zegoen jende ugari erakarri zuten. Hala ere, igeriketa zeharkaldian zorigaitzoko gertaera bat izan zen, parte-hartzaileetako bat hil egin baitzen, proba hasi eta gutxira.

Konstituzio plazako ekitaldi folklorikoek **Txistularien Alardea** eta hiriko eta inguruko dantza-taldeak konbinatu zituzten, bai eta proposamen abangoardistagoak ere, hala nola **Verdini Dantza Taldeak** eta Ibarako **Alurr Dantza Taldeak** eskainitako ikuskizunak; jendetza leiala erakarri zuten. Easo plazan, *bertso-saioak* egon ziren hiru egunetan, eguzkiak eta bero handiak ez zituen bertso-zaleak kikildu, itzalgune guztiak aprobetxatu baitzituzten bertsolariei adi-adi entzuteko.

Herri Kirolen txapelketetan ere gonbidatu desatsegina izan zen bero handia, batez ere aizkolarien **Urrezko Kopan**; bost lehiakideek bero sargoria gehitu behar izan zioten probaren berezko

gogortasunari; une batzuetan, lehiaketa epiko bihurtu zuen beroak norgehiagoka. Azkenean, **Iker Vicente** nafarra izan zen irabazlea. Harri-jasotzaileen probetan, **Uliako Harria Ainitze Zumeta**, zarautzarrak eraman zuen; berriro hautsi zuen bere errekorra, 23 altxaldirekin; **Igeldoko Harria** ere Zarautzera joan zen, **Mikel Lopetegi Gereka**, *Urrak* irabazi baitzuen, 18 altxaldi eginda.

2025eko Aste Nagusia iragartzeko kartelari dagokionez, **Mikel Antero** errealizadore eta arte-zuzendari donostiarraren lana izan zen; *hiriaren sustraiei egindako dei gisa, itsasoarekin lotutako guztiari, kaiari eta, itsasotik, kostari buruzko abisua emateaz gain, herritarrak kokatzen eta argitzen dituen itsasargiari egindako dei gisa* sortutako proposamena.

ASTE NAGUSIKO PALMARESA

Herri Kirolak

Urrezko Kopa: **Iker Vicente**

Igeldoko Harria: **Mikel Lopetegi "Urra"**

Uliako Harria: **Ainitze Zumeta**

(errekorra hautsita - 23 altxaldi)

Aste Nagusiko XVIII. Marmitako

Lehiaketa

Idurre Aristizabal & Ibai Turrillas

"Etxekoekin sukaldean" IV. Lehiaketa

Gastronomikoa

"Perrexila"

(Mikel & Itsaso Pérez)

Aste Nagusiko VIII. Legatza Saltsa

Berdean Lehiaketa

Marta Paulis & Aurelio M. Acera

Aste Nagusiko VIII. Paella Lehiaketa

Tomás Núñez & José Manuel Irigoyen

Aste Nagusiko II. Txipiroiak bere

saltsan Lehiaketa

Tomás Núñez & José Manuel Irigoyen

Su Artifizialen Nazioarteko Lehiaketa

Su Artifizialen Nazioarteko Lehiaketaren 60. edizioa jokatu zen, Estatuko lau pirotekniaren eta atzerriko hiruren parte-hartzearekin. Su artifizialen emanaldiak ikustera zenbat jende joan zen zenbatzea zaila den arren, kalkulatzen da 655.000 lagun inguru ere joan zela Su Artifizialen Nazioarteko Lehiaketaren 60. edizioko ikuskizunetakoren batera.

Oso handia izan zen parte hartu zuten piroteknia guztien maila eta, amaitzeko, ahaztezina eta oso hunkigarria izan zen **Illusion Fireworks** (Erresuma Batua) eta **Pirotecnia Martí** (Castelló) pirotekniek eskaini zuten ikuskizun piromusikala. Su artifizialen ikuskizunarekin batera, proposamen eszeniko bat eskaini zen, **Izaro** eta **Janus Lester** artisten zuzeneko musika eta laser-efektuak konbinatu zituen.

Su Artifizialen Nazioarteko Lehiaketaren 60. edizioa iragartzen zuen kartelak **Gaueko suak** izenburua zuen, eta **Maite Rosende** izan zen kartelaren egilea.



© Sonia Urreizti

SU ARTIFIZIALEN NAZIOARTEKO LEHIKETAREN 60. EDIZIOA

Abuztuaren 19tik 15ra + amaierako ikuskizun piromusikala, abuztuaren 16an

Publiko zenbatetsia: 665.000 pertsona

Parte hartu zuten pirotekniak

- Lieto Fireworks (Italia)
- IP Innovative Pyrotechnik (Alemania)
- Pirotecnia Zaragozana (Zaragoza)
- Parente Fireworks (Italia)
- Pirotecnia Peñarroja (Castelló)
- Caballer FX (Valentzia)
- Pirotecnia Valenciana (Valentzia)

Palmaresa

Urrezko Maskorra:

Pirotecnia Valenciana (Valentzia)

Zilarrezko Maskorra:

Pirotecnia Peñarroja (Castelló)

Brontzezko Maskorra:

IP Innovative Pyrotechnik (Alemania)

Epaimahai Gaztearen "Super Amara" Saria:

Pirotecnia Peñarroja (Castelló)

Herri-epaimahaiaren Saria:

Pirotecnia Peñarroja (Castelló)

Abuztuaren 31aren oroitzapenezko ekitaldiak

Abuztuaren 31n, igandea, gure hiriaugarrek suntsitu zuten 1813ko zorigaitzoko egun hura oroitu zuen **Donostiak**.

Ekitaldiak ez ziren egun horretan bakarrik izan, gertaerarekin eta garai hartako eguneroko bizitzarekin zerikusia zuten gaiei buruzko hainbat hitzaldi egin baitziren egun batzuk lehenago. Erakusketa bat ere egin zen **San Jeronimoko** hitzaldi-aretoan eta, azalpen-panelen, gutunen, agirien, mapen eta bideoen bitartez, hirian izan ziren gertakari haiei buruzko argibideak eman nahi izan ziren.

Abuztuaren 31n, goizez hasi ziren ekitaldiak oroitzapenezko mezarekin, **Santa Mariaren Basilikan**; ondoren, 12:45ean, hiria arpilatu eta suntsitu zutenean egon ziren biktimak oroitzeko lore-eskaintza egin zen **Itsasoko Atean (Portaletas)**. Aurreko urtean bezala eguraldi txarra egin zuenez, bertan behera utzi behar izan

zen **Kursaal** inguruan zeuden tropa aliatuen eta **Begiratokiko Baterian** zeuden frantsesen arteko kanoikada, baina ez programatutako gainerako ekitaldiak, nahiko normaltasunez garatu ahal izan baitziren, euri xehe baten pean.

Gauean, eta hiriko hainbat elizatan kanpaiak jo ondoren, eguneko ekitaldirik hunkigarriena egin zen: abuztuaren 31 kalean argiak itzali eta kandelak piztu ondoren, paseo zeremoniatsua egin zen zuzien argitan, **San Bizente elizako ataritik Santa Maria Basilikaraino**. Ekitaldi horretan, **Santa Zezilia, Easo** eta **Gaztelupe** abesbatzek hartu zuten parte, baita **Laida Otaduy** zuzendariaren esanetara, **Udal Txistulari Bandak, Aiert Beobide** dantzariak, **Irati Borda** errezitaztaileak ere, **Imanol Artolak** aurkeztuta.

2025eko edizioan, **Donostia 31 Kultur Taldeak Médicos Sin Fronteras Elkartearen** aintzatespena jaso zuen.

Euskal Jaiak

2025eko irailaren 3tik 14ra, eta estropadak jokatu ziren asteetan, **Donostiako Euskal Jaiak** ospatu ziren. Egun horietan, euskal kulturarekin lotutako askotariko ekitaldi ugari egin zen hirian -gehienak **Alde Zaharrean**.

2025eko **Sagardo Eguna** irailaren 6an egin zen, **Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko** 32 sagardogileren parte-hartzearekin. Aurreko urteetan bezala, jendez bete zen plaza, eskaini ziren sagardoak dastatzeko eta ekitaldiaren inguruan sortu zen giroaz gozatzeko asmoz. Edizio honetan ere omenaldia egin zitzaien sagardogileei, hain zuzen ere, **Urnietako Elutxeta Sagardotegiko Begoña Etxabe** eta **Juanjo Urruzolari, Otsuenea** familiari, eta **Andoaingo**



© Sonia Urreizti

Gaztañaga Sagardotegiko Mari Angeles Garmendia eta Jose Angel Gaztañagari.

Hurrengo egunean, igandean, irailak 7, **Dantza Suelto Txapelketa** jokatu zen, eta 9 bikotek hartu zuen parte; bi fandango, (*besoak dantzari*) eta bi arin-arin (*txapela gainean*) dantzatu behar izan zituen bikote bakoitzak. **Maren Gávezek (Lezo)** eta **Gorka Granadok (Sopela)** osatutako bikotea izan zen irabazlea.

Egun horietan zehar, beste hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera egon zen: azokak, lehiaketa gastronomikoak, kirol-jarduerak, zinema, poesia, musika, **bertso-saioak** eta beste hainbat.

2025eko kartelaren egilea ilustrazioaren sektoreko profesionalen artean hautatu zen; **Asier Iturralde** loiolatarra izan zen irabazlea, **STUDIO GASTÓN** estudiokoa. **Festarako Deiadarra** zen obraren izenburua.



© Sonia Urreizti

Donostiako estropadak

Galizia, Asturias, Kantabria eta **Euskadiko** 31 klubetako 44 traineruk hartu zuen parte 2025eko edizioan.

Irailaren 3an eta 4an, asteazkena eta osteguna, sailkapenerako estropadak jokatu ziren, **Kontxako Banderaren 2025eko** edizioari hasiera eman ziotenak.

Asteazkenean, hilak 21, emakumeen kategoriako 21 traineru lehiatu ziren **Kontxako badiako** uretan, irailaren 7ko eta 14ko (igandeak) finaleko bi estropadak jokatu ahal izateko zazpi postuetako bat lortzeko norgehiagokan. 2025ean, eta txapelketaren araudian aldaketa bat egin ondoren, **Donostia Arraun Lagunak** izan zen hiria ordezkatzeko zuen trainerua, une jakin

batean **Euskotren Ligan** zuen postua —Oinarrietan hala araututa dago— **Nortindal Donostiarra** hiriko beste traineruarena baino hobea baitzen; azken horrek sailkapen-fasea jokatu behar izan zuen.

Hurrengo egunean, gizonezkoen sailkapen-fasea jokatu zen; kasu honetan ere, 21 klub lehiatu ziren, zazpi plazetako bat lortzeko. **Naiz Homes Donostiarra** trainerua izan zen hiriaren ordezkaria.

Irailaren 7an eta 14an, igandez, 11:00etan (emakumeak) eta 12:00etan (gizonak) jokatu ziren estropadak bi egunez; jende andana joan zen norgehiagoka ikustera eta, batez ere hilaren 14an, jendetza handia bildu zen hirian.

2025ean ere, hamargarren urtez, **ADEGI** Gipuzkoako enpresarien elkarteak **ADEGI Sariak** eman zizkien bi egunetako lehiak kontuan hartuta denborarik onenak lortu zituzten Gipuzkoako traineruei. Horrela, garaikurra eta 7.500 euroko saria jaso zuen **2025eko Kontxako Bandera** irabazi zuen emakumeen **Donostia Arraun Lagunak** traineruak; gizonen kategorian, berriz, **Orio Orialki** traineruko arraunlariek jaso zuten saria; hogeita hamahirugarren bandera eskuratu zuten, azken garaipenetik zortzi urte igaro zirenean. **ADEGIk**, kasu honetan lehendabizikoz, emakume patroï onenari eta gizon patroï onenari ere eman zien saria; horrela, **Donostia Arraun Lagunak** traineruko **Joana Halsouet-ek** eta **Bermeoko, Iñigo Larrinagak** jaso zuten Adegiren aintzatespena.

Donostiako Kontxako Banderaren 2025eko Estropadetako kartel iragarlea **Joseba Larratxe Berazadi** “**Josevisky**” irundar komikigile eta ilustratzaileak egindakoa izan zen, **Itsaso Handia** izenburuarekin, arraunaren munduan gauzak zenbat aldatu diren islatzen saiatu zena -traineruak, ekipamendua, prestakuntza-, itsasoak berak izan duen aldaketa txikiaren aurrean, itzela eta gupidagabea izaten jarraitzen baitu.



© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti

XVIII. KONTXAKO BANDERA **Emakumeen kategoria**

Parte hartu zuten traineruak
21 + Donostia Arraun Lagunak

Sailkatu zirenak
Orio Orialki
Tolosaldea
Nortindal Donostiarra
Hibaika Jamones Ancín
Hondarribia Bertako Igogailuak
Astillero Eneryt Servicios
Zumaia Delteco

Irabazlea
Donostia Arraun Lagunak
(Denbora: 21:30,92)

KONTXAKO BANDERA **Gizonezkoen kategoria**

Parte hartu zuten klubak
21 + Naiz Homes Donostiarra

Sailkatu zirenak
Bermeo
Orio Orialki
Zierbena Bahías de Bizkaia
Orsa Hondarribia
Getaria
San Juan - CMO Valves
Lekittarra - Elecnor

Irabazlea
Orio Orialki
(Denbora: 38:35,36)

Gau Beltzak

Aurten lehenengo **Gau Beltzak** ospatu ziren, DKFestak atalak koordinatuta; horrela, Halloween ospakizunean inspiratuta dagoen hitzordu berri hori finkatzeko beste urrats bat egin zen. Hainbat auzo inplikatu zen ekimen horretan, eta jende guztiarentzako egitarau bereziak prestatu zituzten, jarduerak, girotzea eta proposamen parte-hartzaileak konbinatuz.

Gero eta auzo gehiagok ospatzen du jai hori, eskaintza areagotuz eta auzoen komunitate-izaera indartuz. Itxura guztien arabera, **Gau Beltzak** gure artean geldituko dira eta, aurrerantzean, Jaien Saila arduratuko da horiek koordinatzeaz eta kudeatzeaz, ospakizun antolatuak eta kalitatezkoak egin daitezzen.

Santo Tomas Azoka

2025eko **Santo Tomas** egunean oso eguraldi txarra egin zuen, eta horrek baldintzatu zuen azoka; etengabe egin zuen euria, baita ipar-haize boladak ere. Horrek zaildu egin zuen antolatutako jarduerak normaltasunez garatzea, eta lekuz aldatu behar izan ziren programatutako jardueretako batzuk. Arratsaldean, pixka bat hobera egin zuen eguraldiak, eta ez zuen etengabe euria egin. Hala eta guztiz ere, Azoka aurreikusitakoaren arabera egin zen, eta egunaren erdiko orduetan, eta batez ere 16:00etatik aurrera, jende dezente etorri zen azokara; horri esker, normaltasun handiagoz garatu ahal izan ziren arratsaldeko jarduerak, eta salmentak ere areagotu egin ziren.

Guztira, 163 postu jarri ziren azokan, askotariko produktuekin; ez zuten hutsik egin fruta, barazki, gazta, hestebete, kontserba, ezti, gozogintza eta artisau postuek, eguneko produktu nagusia dastatzeko postuez ahaztu gabe: **txistorra**, alegia.



© Sonia Urreizti

Salmentak aurreko edizioetan baino txikiagoak izan ziren arren —eguraldi hobea egin baitzuen—, balantzea positiboa izan zen, eta espero zitekeena baino hobea izan zen sentrazio orokorra. Gorabehera aipagarririk gabe garatu zen Azoka, eta inolako arazorik gabe egin ahal izan ziren egitarauan aurreikusitako jarduera guztiak, nahiz eta pilota txapelketa ez zen **Trinitate plazan** jokatu aurreikusita zegoen bezala; **Antiguoko** frontoi estalian jokatu behar izan zen. **Zuloaga** plazako haur-jolasak ere haize-bolada bortitzen eragina jasan zuten, eta eguerdira arte bakarrik gozatu ahal izan zuten umeek.

Poxpolin izan zen 2025eko Azokaren irudia, **Duroc** arrazako txerri eme hibridoak, eta **Konstituzio plazan** pasatu zuen goiz osoa eta arratsaldearen zati bat; han, jende askok ikusi zuen txerria.

Ohiko lehiaketak ere egin ziren: **txistorra, ezti, ortuari, barazki eta fruta, txorimalo** eta **gastronomia** lehiaketak. Ez ziren falta izan **herri kirol** txapelketak, **animali-erakusketak, haurrentzako tailerrak** eta **bertsolariak** ere, besteak beste; bestalde, **erromeria** egin zen **Boulevarden**, jai-egun luze bati amaiera emateko, zeinetan, berriz ere, **Santo Tomas** egunak gure hiriaren jai-egutegian ezinbesteko hitzordua izaten jarraitzen duela erakutsi baitzuten parte-hartzaileek eta, oro har, herritarrek.

Egun horretan bertan zein aurreko egunetan ospatu zuten Azoka hiriko auzoetan; hain zuzen ere, 11 auzotan antolatu ziren jarduerak.

2025EKO SANTO TOMAS AZOKAKO PALMARESA

Baserriko produktuen lehiaketa

Barazkiak: Carmen Etxeberria Irusta (Bergara)

Frutak: Maddi Iradi Peñagarikano (Hernani)

Jose Salaberria Memoriala:

Maddi Iradi Peñagarikano (Hernani)

Euskal Herriko XXIX. Txistorra Lehiaketa

Mikel Pérez Belaunzaran

Etxekoak hestebeteak (Oiartzun)

Donostialdeko Ezti Lehiaketa

Markox Pagola (Ereñozu-Hernani)

Txorimalo Lehiaketa

Jai Toki Kultur Elkarte (Furius)

Baserritar Jantzien VII. Lehiaketa -

Dotore Jantzi

Haurrak - Emakumeak: Irati Algans

Haurrak - Gizonak: Oier Salsamendi

Helduak - Emakumeak: Amane Aranbarri

Helduak - Gizonak: Xabier Sanz

Taldea: Maider Gorostegi, Ainhoa Arrillaga,

Kattalin Beobide, Martina de Campos,

Luka Gorostegi

Aizkolarien VII. Urrezko Kopa

(emakumeak)

Oihana Fernández de Barrena (Araba)

VI. Esku Pilota Txapelketa

(emakumeak)

Sorondo - Iparragirre

(Alde Zaharra KKE / Intza K.E.)

Santo Tomas Azoka

Abenduak 21

Postuak

163

Poxpolin txerri emea

≈ 380 kg



© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti



© Sonia Urreizti

Olentzero eta Mari Domingi

Olentzero eta **Mari Domingiren** etorrerarekin osatu zen gure hiriko urteko jai-egutegia, Donostiako milaka haurren nahiak betetzeko.

Olentzero eta **Mari Domingi** hirira iritsi, eta udal bulegoak dauden **Konstituzio plazako** eraikinerara joan ziren, egun berezi horretan zuten lehenengo hitzordura.

Eguraldi txarra ez zen oztopo izan haurrak Olentzerori eta Mari Domingiri harrera egitera joan zitezen; are gehiago, beraiekin batera egin zuten antzinako kotxe batean egin zuten paseo tradizionalan; bizikletaz zihoazen **galtzagorritz** eta **egurgilez** osatutako segizio txiki bat ere lagun izan zuten.

Udaletxera iritsi eta udal agintariak agurtu ondoren, 15:30ean, harrera-ekitaldia hasi zen **Osoko Bilkuren aretoan**; han, txikienak agurtu eta azkeneko eskutitzak jaso zituzten, haurren nahi eta eskaerekin. **Olentzerok** eta **Mari Domingik** umeekin hitz egin zuten, haien gurasoek une hori hilezkortzen zituzten bitartean, argazki mordoa eginez.

Ondoren, **Olentzero** eta **Mari Domingi** beraien **karrozan** sartu ziren, desfileari hasiera emateko; jende askok jarraitu zien pozarren, eta 500 bat lagunek hartu zuen parte, 16 taldetan. Desfilean, **Olentzerok** eta **Mari Domingik** 1.000 kilo **goxoki** baino gehiago jaurti zuten —zeliakoentzako egokiak— **BM Supermerkatuek** emandakoak.

Gure hiriko hainbat auzotan, askotariko jarduerak egin ziren, auzoetako talde, elkarte eta ikastetxeek antolatuta, **Olentzero** eta **Mari Domingiren** etorrera ospatzeko. 25 jarduera egin ziren guztira, gehienak abenduaren 24an, baina auzo batzuetan, **Santo Tomas Azokarekin** batera ere egin ziren.

Olentzero eta **Mari Domingi** udaletxeko terrazatik agurtu ziren hiriaz, eta gogorarazi ziguten hurrengo urtean ere etorriko direla Donostiako haurrekin duten hitzordura.

Donostiako auzoetako jaiak

30 kolektiboren baimen-eskaerak kudeatu ziren, eta gure hiriko auzoetako jaiak ospatzeko beharrezkoak diren azpiegiturak eta udal zerbitzuak koordinatu ziren.

Udan ospatu ziren jai gehienak.

Erregio Etxeak

Lau jai antolatuz zituzten gure hirian eta probintzian dauden **Erregio Etxeak**. Maiatzaren 25ean, igandea, ospatu zen urteko lehenengoa, **Erregio Etxeen XXXVIII. Eguna, Konstituzio plazan**; hainbat erregiotako produktu tipikoak dastatzeko eta hango folkloreak gozatzeko aukera egon zen. Sei erregio etxek hartu zuen parte.

Casa de La Rioja etxeak bi ospakizun egin zituen: **Errioxaren Eguna** (ekainak 15) eta **Mahats-bilketaren Jaia** (urriak 4), biak **Boulevarden**.

Centro Extremeño etxeak **Extremadurako Ogi-mamien Egunaren** beste edizio bat ospatu zuen azaroaren 9an, igandea, **Bretxa / San Juan** zonan.

Beste kolaborazio batzuk

Guzti horretaz gain, **Donostia Kultura Festak** unitateak kolektibo eta elkarte ugariarekin kolaboratu zuen, espazio publikoa erabiltzeko baimenak lortzeko laguntza emanez, bai eta haien ekitaldiak behar bezala garatzeko laguntza logistikoa eta aholkularitza ere.

Aipatzekoa da maiatzean **Euskadiko Bolo Txapelketa** jokatu zela **Arrobitxulo parkean**, **Gipuzkoako Bolo Federazioak** antolatuta.

Baita **Bilbon** egin ziren **2025eko Txekiar-Euskal Jardunaldien** barruan, **CMAS** zinbalerako txekiar musika-taldeak maiatzaren 5ean **Boulevarden** eskainitako kontzertua ere.

Senidetzeak

Beste urte batez, plaka eta trofeo trukea egin zen Japoniako **Marugame** hiriarekin; gero, sari modura erabiltzen dira plaka horiek, gure hirian —**hondartzako futbol-txapelketa**— zein **Marugame** hirian —**saskibaloia** eta **beisbola**— jokatzen diren txapelketetan.

Babesleei eskerrona

Bene-benetan nahi dizkiogu eskerrak eman hainbat erakunde eta markari, haien laguntzarik gabe ezin izango baitzitezkeen hemen aipatu diren ekitaldietako batzuk egin. Mila esker haien laguntzagatik, honako hauei: **El Diario Vasco**, **FCC**, **Eroski**, **BM Supermerkatuak**, **Insalus**, **Nestlé**, **EKP**, **Frijo**, **Super Amara**, **ADEGI**, **Garbera**, **18/70**, **Euskaltel**, **Luckia**, **Basque Culinary Center**, eta beste hainbat pertsona, enpresa eta erakunderi, gure lana posible egin dutelako.

Jaialdia Donostiako Jazzaldia

20  25





Jaialdia DONOSTIAKO JAZZALDIA

Erabateko arrakasta izan zuen **Jazzaldiak**; jaialdiaren 60. edizioa izan zen, eta berriro erakutsi zuen Europako jazz jaialdi garrantzitsu eta finkatuenetakoa dela. Eguraldiak, tarteka, asko lagundu ez zuen arren, jende andana joan zen emanaldietara, **179.180 lagun** guztira, eta maila goreneko programazioa eskaini zen, espazio enblematikoetan. Kultura-eskaintza berezia eta kalitate handikoa.

Doako 52 kontzertuek 158.700 lagun erakarri zuten; ordainpekoek, berriz, 20.480. 40 herrialde ezberdinetatik erosi ziren sarrerak: Espainia, Frantzia, Amerikako Estatu Batuak, Alemania, Herbehereak, Suitza, Portugal, Erresuma Batua, Australia, Irlanda, Hungaria... 17 kontzertutan agortu ziren sarrerak, eta zenbakitutako sarrera guztien % 99,03 saldu zen.



Trinitate Plazako lau kontzertuetan zintzilikatu zen *sold out* kartela, Kutxabank Kursaal Auditorioko bost kontzertuetatik hirutan, Škoda San Telmo Museoko bost kontzertuetatik hirutan, FCC Victoria Eugenia Antzokiko bost kontzertuetan, Chillida Lekuko Zabalaga baserrian egindako bi kontzertuetako batean, bai eta Maria Cristina Hotelean egin zen kontzertuan ere.

Bikaina izan zen 2025eko edizioko musika-kalitatea, artista bikainekin, bertako eta nazioarteko izarrekin, artista hasiberriekin, eta estilo-aniztasun handiarekin. **Jazzaldiaren** historia luzean geratuko diren une gogoangarriak izan ziren **Kurt Elling** abeslariaren ahots paregabea; **Dee Dee Bridgewater** kantariaren magnetismoa eta sentimendua; hiru kontzertu eskaini zituen **Marc Ribot** musikari bikainaren erregistro-aniztasuna gitarrarekin; **Holland** eta **Potter-en** perfekzio musikala; **Yerai Cortés-en** pasioa eta xarma berezia; **Jamie Cullum-en** freskura eta sinpatia kutsakorra; **The Beach Boys** taldearen arrakasta handien errepertorio paregabea, **Mike Love** buru zutela; **Anariren** intentsitate poetikoa; **Donostiako Jazzaldia** saria jaso zuen **Bill Bruford**

bateria-jolearen maisutasuna; **Minyo Crusaders-en** zinezkotasun dibertigarria; eta **Bulego** taldearen belaunaldi guztietako jarraitzaile andana **Keler Gunean**.

Jazzaldiak jendearen erantzuna nabarmendu zuen; izan ere, musika-gune guztietara joan ziren modu masiboan eta, gainera, jokaera eredugarria izan zuten entzuleek, inolako arazorik eragin gabe. Musikaz, jai-giroz eta ospakizunez bete zen hiria **Jazzaldian**.



Jamie Cullum © Iolo vasco



Marc Ribot © Iolo vasco



Dave Holland & Chris Potter © Iolo Vasco

Trinitate Plaza

Trinitate plazako kontzertuei hasiera emateko, m-base kontzertua eman zuten **Steve Coleman-ek & Five Elements** taldeak. Gaua ixteko, **Kurt Elling** aritu zen bere ahots bikainarekin, **The Yellowjackets** taldearekin batera, **Weather Report** taldea omentzen, edizioko kontzerturik onenetako batean.

Ostiralean, uztailak 25, **Marc Ribot Hurry Red Telephone** musikariak inprobisazioan oinarritutako gitarra-kontzertu errepikaezina eskaini zuen. **Dee Dee Bridgewater** abeslariak **Donostiako Jazzaldia** saria jaso zuen bere musika-ibilbide osoagatik, eta argi utzi zuen jazzeko ahotsik onenetakoa izaten jarraitzen duela.

Uztailaren 26an, **Brad Mehldau-k** lehenengo akordetik irabazi zuen publikoa, teknikoki perfektua, delikatu eta aparta izan zen emanaldian. Ondoren, **Dave Holland** eta **Chris Potter** musikariek beraien **Kismet** proiektua eskaini zuten; **Potter** bikain aritu zen saxoarekin, eta **Holland-ek** sekulako lana egin zuen kontrabaxuan.

Azkeneko egunean, hilak 27, **Chicuelo - Mezquida** bikoteak **Del alma** lana aurkeztu zuen, gitarra eta pianoa ezin hobeto uztartuz. Trinitate plazako kontzertuak amaitzeko, publikoak samintasunez oroitzen duen **Paco de Lucía** handiari omenaldi hungigarria egin zitzaion; festa flamenkoa, izar handien parte-hartzearekin, hala nola **Josemi Carmona**, **Chano Domínguez**, **Duquende** eta **Antonio Lizana** bikain bat.





Román Filiú © Iolo vasco

FCC Victoria Eugenia Antzokia

El FCC Victoria Eugenia Antzokiak **JazzEñeren** hamaikagarren edizioa hartu zuen, bosgarren urtez jarraian ospatu dena **Jazzaldiaren** barruan; egunero zintzilikatu behar izan zen *sold out* kartela. Kalitate handiko zortzi musika-proposamenez gozatu ahal izan zen: **J. Fox, Juanfe Pérez, Maite Akustik Quintet, Román Filiú, EME EME Project, El Cuarteto Federal, Pere Bujosa Trío** eta **Daniel Román Jazz Quintet**.

Uztailaren 27an, **Marc Ribot** konpositoreak —bere emanaldirako sarrerak ere agortu egin ziren— **Donostiako Jazzaldia** saria jaso zuen **Miguel Martínez** eskutik eta, jarraian, edizio honetako bere hirugarren eta azken kontzertua eskaini zuen, **Ceramic Dog** bere taldearekin batera.

Kutxabank Kursaal Auditorioa

Maila oso handiko bost kontzertu hartu zituen Kursaal jauregiak. Lehenengo egunean, **Jamie Cullum-ek** entzuleak bereganatu zituen, ikuskizun izugarri batekin. Uztailaren 23an, **The Beach Boys** taldeak iraganera eraman zuen publikoa, bere arrakasta handiekin. Hilaren 24an, **Yerai Cortés-ek** txundituta utzi zituen entzuleak bere gitarrarekin, eta lagun izan zituen sei txalo-jotzaile eta flamenko-kantariekin. Uztailaren 25an, **Hermeto Pascoal Bruxo-ak** bere magia egin zuen, bere talde apartarekin batera. **Nala Sinephrok** bertan behera utzi zuen uztailaren 26an eskaintzekoa zen kontzertua, osasun-arraziengatik. Amaitzeko, uztailaren 27an, **Oscar Peterson** jaio zeneko 100. urteurrena ospatzeko kontzertua egin zen.



The Beach Boys © Iolo vasco

Keler Gunea

Zurriola hondartzan, **Keler Gunea** berriro izan zen agertokirik jendetsuena, 110.000 lagunekin. Egunean bi kontzertu izan ziren han, uztailaren 23tik 26ra.

Hilaren 23an, **Jamie Cullum-ek** inauguratu zuen **Keler Gunea**, eta milaka lagun joan ziren, hasieratik amaierara arte ospakizun bezala garatu zen kontzertuaz gozatzera. Ondoren, 23:30ean, **The War and Treaty** taldearen txanda izan zen. **Tanyak** eta **Michael Trotter-ek**, musikari-talde handi batekin batera, txundituta utzi zituzten entzuleak, beraien ahots indartsuekin eta presentzia eszeniko nabarmenarekin.

Uztailaren 24an, **Anarik** erakutsi zuen gaur egungo euskal musikako kantautore onenetakoa dela. Jarraian, **EXTC** taldeak eskaini zuen kontzertua, 90eko hamarraldiko bere erreperitorio ezagunarekin.

Judith Hill kantautorearen emanaldiarekin hasi zen uztailaren 25eko egitaraua; bere ahotsagatik eta gitarrarekin egin zuen interpretazio indartsuagatik gailendu zen. Gaueko bigarren kontzertuan, **Cristal Murray** abeslariak jai-giroan jarri zuen publikoa, dantza egitera gonbidatzen zuen emanaldiarekin.

Uztailaren 26an, 32.000 lagun bildu zituen **Bulego** musika-taldeak; belaualdi arteko kontzertu batean, bere abesti ezagunak abestu eta dantzatu zituen. **Keler Guneko** programazioa ixteko, **Sidonie** talde kataluniarrak berriro aldarrikatu zuen Estatuko *indie* musikaren panoraman duen lekua.



Anari © lolo vasco

Škoda San Telmo Museoa

San Telmo Museoko klaustroan eskaini ziren goizeko bost kontzertuak musikari bikainak bakea eta lasaitasuna eskaintzen duen espazio batean ikusteko eta entzuteko aukera oso berezia izan ziren aurtengoan ere.

Lehenengo hiruak piano-kontzertuak izan ziren, hiru piano-jole bikainen eskutik: **Baptiste Trotignon**, uztailaren 23an; **Bojan Z**, 24an; eta **Pierre de Bethmann**, uztailaren 25ean. Hilaren 26an, **Marc Ribot-ek** erakutsi zuen gitarra akustikoa ere menderatzen duela, erregistro leunagoetan ere bikaina izateko gai dela. **Kirk Knuffke Quartet** laukoteak itxi zituen Škoda San Telmo Museoko kontzertuak uztailaren 27an, bere tronpetaren soinu apartarekin, tuba batez, baxu batez eta bateria batez lagunduta.



Bojan Z © lolo vasco



Jordina Millà & Barry Guy © Jokin Fernández

Frigo Gunea, Fnac Gunea, Nauticool eta Chillida Leku

Terrazak eta espazio irekiak berriro bihurtu ziren bertako zein nazioarteko artisten doako kontzertuez gozatzeko gune, eta milaka lagun egon ziren.

Milaka lagun joan zen (39.100) Frigo Guneko eta Fnac Guneko terrazetako doako kontzertuetara. Egitarau anitz batekin, bertako hainbat talde igo zen oholtzara, hala nola **Thomas Camille, Biper Swing, Ura Duo, Suite Seda, Eneko Dieguez Quartet, Alma Seben, Velasquartet, Femmm and Band, Soul Cream, La Quinta Planta, Los Diversos, Itziar Yagüe & Paul San Martín** eta **Arima Soull System**. Nazioarteko eta Estatuko izen handiak ere aritu ziren han: **Naïssam Jalal, Pete Roth Trio featuring Bill Bruford, Patax, Minyo Crusaders, The Amy Winehouse Band, Jessie Gordon Quintet, Pianoforte** eta **JazzyBit**.

Nautikoa ere, Kontxako badiaren ertzean dagoen espazio pribilegiatua, egunero bete zen han jardun zuten DJen 15 proposamenetakoren bat entzutera eta dantza egitera joandako jendez: **Arima Soul Sistem, Rosco, Beltza Weekend DJs, Roberto Tortuga** eta **Lidiuska**.

Jazzaldiak sei kontzertu egin zituen Chillida Leku museoan, ingurune berezi horretan, non musika eta artea konbinatu ziren. Aire zabalean, museoaren lorategietan, aritu zen **Bascolombia**, hemengo **Oreka TX** eta Kolonbiako **Phonoclórica** taldeek osatutakoa, **Iñaki Salvador** eta **Marco Mezquida**; gainera, **Txikijazz** ekimeneko bi kontzertu eskaini ziren. Zabalaga baserrian, beste bi kontzertu egin ziren: **Low Tabackin Quartet** eta **Jordina Millà & Barry Guy**.

Chica Tequila
Maisa Covaleda
© lolo vasco

Iñaki Salvador & Marco Mezquida © lolo vasco

Txikijazz

Txikijazz ekimenak, 13. edizio honetan, berretsi zuen ezinbesteko hitzordua dela **Jazzaldiaren** barruan; musikara familia-giroan hurbiltzen diren hurrei eskainitako sekzioa da Txikijazz. Bost kontzertu egin ziren hiru eszenatokitan, baita tailerrak ere: Kutxa Fundazioan -Tabakalera plazan-, Chillida Leku eta Fnac Gunea.

2025ean ere gainditu egin ziren antolatzaileek aurreikusitako asistentzia-espektatibak, batez ere azkeneko egunean Fnac Gunean, non **The Amy Winehouse Band** taldeak kontzertua egin eta publiko guztia dantzan jarri baitzuen, giro paregabea sortuz. **Arima Soul** taldeak, uztailearen 26an, bere *euskal soul* animatua hasi baino lehen Chillida Lekun egin zuen euria ahaztu arazi zion publikoari. Nabarmentzekoak izan ziren **Old School Funky Family** taldearen zein horren ahots bikaina duten **Irati Bilbao** eta **Claire Martin** abeslariaren emanaldiak ere. Kontzertuekin batera, **Txikijazz** sekzioaren 13. edizioak oso harrera ona izan zuten tailerrak ere eskaini zituen.

Txikijazz jaialdiaren antolatzaileek familia guztien parte-hartzea eta musikarekiko errespetua eskertu zuten. Familien kolaborazio-jarrerari esker, 2025eko edizioa egitarau nabarmenetakoa izan dela baloratu zuten antolatzaileek. Eraitza horien motibazioarekin hasi dira **Txikijazz** atalaren 14. edizioa prestatzen, 2026ko uztaileko.

Jazzaldia. Irudi bidaia

Uztailearen 11n inauguratu zen San Telmo Museoa jaialdiaren 60 edizioak ospatzeko **Jazzaldia**. **Irudi bidaia**, erakusketa, orain dela 26 urtetik **Jazzaldiaren** argazkilari ofiziala den **Lolo Vascok** komisariatutakoa. 211 argazkiz osatuta zegoen erakusketa, eta emozio eta oroitzapenetan barrena eraman zuen publikoa, irudi bidaia batean. Doakoa izan zen erakusketa, eta irailaren 28ra arte egon zen ikusgai.

61. Jazzaldia (2026)

Donostiako Jazzaldiaren hurrengo edizioa, hirurogeita batgarrena, 2026ko uztailearen 22tik 26ra ospatuko da, eta dagoeneko hasita daude antolaketa-lanak.



Claire Martin Quartet © Jokin Fernández



The Amy Winehouse Band © Iolo vasco

Sare Sozialak

Sare sozialei dagokienez, 50.145 jarraitzaile izan zituen jaialdiak.

Webgunea

www.jazzaldia.eus webguneak 57.392 erabiltzaile eta 514.329 bisita izan zituen azkeneko 30 egunetan. Azkeneko 12 hilabeteetan, berriz, 109.734 erabiltzaile eta 874.839 bisita erregistratu ziren, 159 herrialdeetakoak.

Jaialdia Glad is the Day

20  25





Peachy Joke © Josu Artola

Jaialdia GLAD IS THE DAY

Glad is the Day jaialdia abuztuaren 3an egin zen Cristina Enea parkean, hiriko udako kultura-egutegian eguneko musika-proposamen garrantzitsuenetako bat bezala finkatuz. **Donostia Kulturak** antolatzen du jaialdia, Egia Kultur Etxearen eskutik, eta **Dabadaba** eta **Le Bukowski** aretoekin lankidetzan, **Keler** enpresaren babesarekin eta **Kutxa Fundazioaren** eta **Tabakaleraren** lankidetzarekin. Musika, bizikidetzaz, egitarau anitza eta jarduera osagarriak eskaini zituen jaialdiak, jendeak sarrerarik ordaindu behar izan gabe.

Cristina Enea parkean ospatu zuen jaialdiak musika-aniztasuna, eta berriro bete zen parkea hainbat jatorritako musika-talde eta artistaz.

2025eko edizioak jaialdiak berezko duen formulari eutsi zion: etengabeko musika-emanaldiak 12:00etatik 21:00etara, zuzeneko taldeen eta proposamen elektronikoen nahasketarekin eta, eskaintza hori osatzeko, familia-jarduerak, piknikak, azoka txikia eta gaua DJ saioekin luzatzeko aukera, jaialdiarekin lotutako espazioetan.



Pinpilinpussies © Josu Artola

Zazpi talde izan genituen Agertoki Nagusian: **OEP** taldeak eman zion hasiera jaialdiari, jai-giroko energiarekin; **Peachy Joke**, energiaz betetako bere rock-proposamenarekin; **Mirua**, bere rock esperimentalarekin, Gipuzkoako talentuaren ordezkari; **Fin del mundo**, indie shoegaze estiloaren barruan nazioartean presentzia handia duen talde argentinarra; **Pinpilinpussies**, garage-pop postpunk estiloarekin; **Sistema de entretenimiento**, arcade punk estiloko proposamenarekin; eta **Hidrogenesse**, pop elektronikoa kontzeptuala egiten duen Bartzelonako duetoa, kartela ixten.





Gainera, musika elektronikoarekin, hip-hoparekin eta hiri-doinuekin lotutako zortzi emanaldi izan ziren, Ruina Sónica eszenatokira joan zirenak dantzan jarri zituztenak: **Putas amak** (live), zuzeneko energia-nahasketa bat ekarri zuen taldea; **Puñales b2b LaMia Mari** (DJ set); **Tronis** (DJ); **Infanta** (live); **Miravalles** (DJ); **Scientist** (live); **Simona** (live) eta **Linapary** (DJ).



Tronis © Josu Artola



Puñales b2b LaMia Mari © Josu Artola

Jaialdia
**Fantasiatzko eta
Beldurrezko
Zinemaren Astea**

20  25





El Gran Wyoming © Floro Azqueta

Jaialdia FANTASIAZKO ETA BELDURREZKO ZINEMAREN ASTEA

Beldurrezko Zinemaren **36. Astea** (urriak 31-azaroak 7) modu sinboliko berezian hasi zen, **Gau Beltzarekin** batera eta, lehenengo aldiz, Kursaal jauregian egin zen inaugurazio-ekitaldia, **Paul Urkijo** zuzendariaren hirugarren film luzearekin: **Gaua**. Emanaldi hori euskal zinemagile honek nazioartean izan duen oihartzunaren eta jaialdi honek egindako ibilbidearen eta ereindako hazien erakusgarria izan zen.



Gaua inaugurazioa
Paul Urkijo & Yune Nogueiras
© Floro Azqueta



Santa Zeta, Antonio Muñoz de Mesa © Floro Azqueta



Dekoraturua, Joseba Beristain, Marga Altolaquirre & Iván Miñambres © Floro Azqueta

11.845 erakarri zituen jaialdiak proiektioetara, eta 9.452 partaide izan zituztenaldi berean antolatu ziren jarduerak. Sail ofizialean, beste euskal ekoizpen batzuk ere aurkeztu ziren, hala nola **Santa Zeta** eta **Dekoraturua** animazioko filma; gainera, finkatu egin zen **EITB** saria euskal film laburren sailean.

Bigarren urtez jarraian, **Animedon** atala antolatu zen, japoniar animazioaren alderdi guztiez gozatzera eta publiko berriak erakartzera bideratuta dagoena. Hainbat hitzaldi, tailer eta film-estrealndiz gain, ekitaldi nagusia izan zen **Doraemon** marrazki bizidunen sortzaile **Fujiko Fujio** lantaldeari egin zitzaion omenaldia; arreta berezia eskaini zitzaizen telesailaren lehenengo denboraldietan bikoizketa-lanetan aritu ziren emakumeei.



Presentación Animedón, Josemi Beltrán & Harri X Fernández © Floro Azqueta

Kartel ofizialean, **El Gran Wyoming** umoristak **David Lynch** zinemagilea omendu zuen, bere **Cabeza borradora** filma birsortuta. Bestalde, erakusketek **Fernando Vicente** artistaren eta **María Jiménez** eta **Letucse** euskal irudigileen unibertsoak erakutsi zituzten, bai eta fantasiaren eta beldurraren arloak japoniar bideo-jokoetan. Halaber, **Los Mexicráneos** taldeak Ramon Labayen plaza alaitu zuen, **Albia Taldearen** eskutik.



María Jiménez & Letucse © Floro Azqueta



Fernando Vicente © Floro Azqueta

Jaialdia Giza Eskubideen Zinemaldia

20  25





Victoria Eugenia Antzokia © Floro Azqueta

218

Jaialdia

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

Giza Eskubideen Zinemaldiaren 22. edizioak, Donostia Kulturak

Giza Eskubideen sailaren laguntzarekin antolatzen duenak, apirilaren 4tik 11ra ospatu zuen sail ofiziala, nahiz eta aurreko egunetan intereseko hainbat ekitaldi antolatu zituen. Proiekzioek, eztabaidek eta erakusketek argitasuna, hausnarketarako tarte eta aktibismoa sustatu zituzten berriz ere, zinemarik onena eragile nagusi izan zuen kalitatezko kultura-eskaintzaren bitartez.



Faisaien irla inaugurazioa
© Floro Azqueta

DK
memoria



Filmoteca Humana, José Antonio Vitoria © Floro Azqueta



Empoderío © Floro Azqueta

Euskadiren eta Frantziaren arteko migrazio-larrialdiari buruzko **Faisaien irla** euskal ekoizpenak inauguratu zuen sail ofiziala. Estreinaldi horrekin batera, **Empoderío** eta **Flying Hands** dokumentalak proiektatu ziren. Eta bertako zinemaren presentzia garrantzitsua osatzeko, bakardadeari buruzko **Filmoteca Humana** ikus-entzunezko ekimena eta, lehen aldiz, euskal film laburren lehiaketa.

8.648 ikusle joan ziren Jaialdiko zinema-proiektzioetara: 4.839 lagun Victoria Eugenia eta Antzoki Zaharreko 21 emanaldietara; 3.498 ikasle Antzoki Zaharreko goizetako 9 saioetara, eta 311 lagun Tabakaleran, **Zinema eta Memoria** zikloaren barruan, programatutako hiru saioetara.



Flying Hands, Paula Iglesias & Marta Gómez © Floro Azqueta

7.661 lagunek bisitatu zituzten antolatutako hiru erakusketak: **Mauthausenetik haratago**. **Francesc Boix argazkilaria** (Okendo Kultur Etxea), **Kaliforniar ametsa** (Aiete Kultur Etxea) eta **Artea eta giza eskubideak, haur eta gazteen XIII. edizioa** (Victoria Eugenia Antzokia).

Gainerako jardueretan —mahai-inguruak, antzerkia eta **Konekta Tu** online jolasa— 697 lagunek hartu zuen parte. Guztira, 17.006 parte-hartzaile izan zituen Jaialdiak.

Helena Taberna zinemagile nafarrari emandako ohorezko sariarekin amaitu zen emakumezko errealizadoreen presentzia nabarmena izan zuen astea, hala nola **Lara Izagirre, Lidija Zelovic, Nagore Eceiza, Tamara Iglesias, Paula Iglesias** eta **Marta Gómez**. Publikoaren harrera bereziki ona izan zuten solasaldiek; gai asko jorratzeko aukera eman zuten, nola Amerikako Estatu Batuen edo Argentinaren politikak hala ingurumenaren edo *rider*-en lan-eskubideen defentsa.



Kaliforniar ametsa erakusketa © Floro Azqueta



Mauthausenetik haratago. *Francesc Boix* argazkilaria erakusketa © Floro Azqueta



Helena Taberna © Floro Azqueta

Jaialdia Literaktum

20  25





Javier Cercas © Iñaki Rubio

Jaialdia LITERAKTUM

Azaroaren 10etik 23ra ospatu zen **Literaktum** literatura-jaialdia, hainbat erakunderekin lankidetzan. 8.200 lagun inguru joan ziren hainbat espaziotan haur zein heldu literaturzaleentzako antolatutako 53 jardueretara.

Niaren oihartzunak: bakardadearen eta nortasuna aro globalean izan zen azkeneko edizioaren izenburua, galdera pertsonal eta unibertsal bat planteatuz: ¿nola definitzen dugu geure burua, bakardadea gero eta ohikoagoa den mundu global batean? Gai horren inguruan aritu ziren **Arantxa Urretabizkaia, Julen Apella, Belén Gopegui, Eider Rodriguez, Carys Davies, Samantha Schweblin, Laura Chivite, Ignacio Martínez de Pisón** eta **Lourdes Oñederra**.



Gai nagusiaz haratago, **Juan Manuel de Prada**, **Fernando Navarro**, **Juan José Millás**, **Ignacio Peyró**, **Javier Sierra**, **Javier Cercas**, **Harkaitz Cano** eta **Agatha Loth-Ignaciouk**-ek beraien lanak aurkeztu zituzten, eta **Espido Freirek Jane Austeni** buruz egindako bere hirugarren saiakeraren inguruan hitz egin zuen, britainiar idazlearen jaiotzaren 250. urteurrena zela eta.

Ekitaldi horien guztien artean, bereziki jendetsuak izan ziren **Juan Manuel de Prada**, **Juan José Millás** eta **Javier Cercas** idazleekin egindako topaketak, baita Victoria Eugenia Antzokiko Klub Aretoan **Ángel Marco** aktorearekin, eta **Iban Zaldúa** idazlearekin eta **Ibil Bedi** taldearekin eskainitako emanaldiak, eta **Iñaki Salvador** eta **Miren Gabirondoren** kontzertu eszenikoa ere.



Juan José Millás © Iñaki Rubio

Jaialdiaren egitaraua osatzeko, beste jarduera batzuk ere izan ziren: **Kutxa Fundazioa Irun Literatura Sariak**, non euskarazko eta gaztelaniazko eleberrien eta poesiaren modalitateetan eman zituzten sariak; **La doble vida de Virginia Woolf** antzezlanak; **Miren Amurizaren** bertso-saioa, **Pleibak** nobelan oinarritutakoa; **El Principito** irrati-antzerkia; errezitaldiak Intxaurren Kultur Etxean eta Loiola Kultur Etxean; ipuin kontalarien XI. Maratoia; **Virginia Woolfen La señora Dalloway** nobelan oinarritutako literaturari buruzko solasaldia eta afaria; eta **Joxan Oizen Amazurtza** nobelari buruzko paseoa eta solasaldia.



Antonio Machado 150, Ángel Marco © Iñaki Rubio

Bost erakusketa ere antolatu ziren **Literaktum** jaialdiaren barruan: **Isola**, **Nerea Urrestarazurena**, Ernest Lluch Kultur Etxean; **De las emociones a los dibujos, 72kilos** ilustratzailearena, **Homenaje a Ignacia Zabalo. Nor-Nai**, biak Aiete Kultur Etxean; eta **Liburuaren arbola** eta **Bazen behin**, Okendo Kultur Etxean.

Halaber, parte-hartze handia izan zen **Literaktum Txikian**, ipuin kontalariekin, antzezlanekin, Haurren Nazioarteko Egunaren 9. Jaiarekin, ilustrazio-tailerrekin eta **Gregorio Murok** sortutako **Iker eta Ixone** pertsonaien abenturei buruzko Ilustrazio Lehiaketarekin. 222 marrazki aurkeztu ziren, guztira, lehiaketaren bosgarren edizio honetan.

Donostia Kulturak antolatuta, **Literaktum** jaialdiaren indarguneetako bat kolaboratzaile-sarea izan zen. Jaialdian kolaboratzaile izan ziren **Kutxa Fundazioa**, **Donostia Gazteria**, Donostiako Udaleko Kultura Aniztasunaren eta Giza Eskubideen Bulegoa, **Gipuzkoa Liburudendak** elkarte, **Narodowa** liburutegia, **Euskal Irudigileak** elkarte, **Euskararen Etxea**, **Mestiza elkarte artistiko sozio-kulturala** eta **Metro Bilbao**, besteak beste.

Joaterik izan ez zutenek edo topaketak berriro bizi nahi zituztenek, **Literaktum** jaialdiaren webgunean, **DK ON!** atarian, **DK Irratian** eta podcast-plataforma nagusietan.



Isola erakusketa, Nerea Urrestarazu © Iñaki Rubio



Haurren Nazioarteko Egunaren 9. Jaia © Iñaki Rubio



Bazen Behin erakusketa

Jaialdia dFERIA

20  25





Jaialdia dFERIA

dFERIA jaialdiaren XXXI. edizioak marka historikoa lortu zuen bere adierazle nagusietan: bertaratutako publikoa, akreditatutako pertsonak eta parte hartu zuten konpainiak. Gainera, nota altuarekin gainditu zuen nazioartekotzearen kapitulua, azkeneko urteetan Europari begira egindako apustua; Suitza, Alemania eta Austria izan ziren herrialde gonbidatuak. Halaber, **dFERIA** jaialdiaren aurreko astean, **Atelier for Young Festival Managers** programa egin zen, mundu osoko eta diziplina guztietako jaialdi artistikoetako lider diren gazteak elkartu zituen gaikuntza- eta lidergo-programa.

dFERIAk sentsazio bikainekin itxi zuen XXXI. edizioa. Guztira, 17.749 lagun joan ziren antolatutako jardueretara: 10.482 ikuskizunetara, % 85eko batez besteko okupazio-mailarekin, eta 7.267 **dFERIA** jaialdiko jarduera profesionaletara eta ekitaldietara.

Proposamenei dagokienez, ikuskizunen kopuru handi bat (% 70) **dFERIAN** estreinatu ziren modu batean edo bestean: lau mundu mailan, beste bi Europa mailan, bi estreinaldi Estatuan eta 16 Euskadin. Diziplinei erreparatuz gero, egitarauaren % 41 eskaini zitzaion dantzari, % 38 antzerkiari, lau zirku-ikuskizun eskaini ziren (% 12) eta askotariko beste hiru diziplinako ikuskizunak (% 9). Atzerriko konpainiak Italia, Argentina, Errusia, Alemania, Austria, Suitza, Uruguai eta Kolonbiatik etorri ziren.

Akreditatutako pertsona kopuruak **dFERIAren** marka guztiak hautsi zituen; mugarrira ezarri eta antolatzaileei erronka bat planteatu zien, % 16tik gorako igoerarekin –2024arekiko– eta akreditatutako 700 profesional baino gehiagorekin. Horietatik, 300 inguru programatzaileak, 87

banaketa-enpresak, 175 ekoizleak edo konpainien ordezkariak, 84 erakundeak, 17 kazetariak eta kritikariak, eta 52 beste sektore batzuetako profesionalak. Aipamen berezia merezi du **dFERIAN** izan ziren nazioarteko profesionalen kopuruak, 2024arekiko % 114ko igoerarekin. Edizio honek nazioarteko 152 akreditatu izan ditu (71 akreditatu 2024an), eta horietatik 88 nazioarteko jaialdietako programatzaileak eta ordezkariak izan dira. Kontinente guztietako 40 herrialde baino gehiagotatik etorri ziren.



Ongietorria © Gorka Bravo



Aurkezpen ofiziala © Gorka Bravo

Programazio eszenikoa

Edizio honetan parte hartu duten 33 konpainiek 34 ikuskizun aurkeztu dituzte, 54 funtziotan. 21 ikuskizunetan jarri behar izan zen *Sarrerek agortuta* kartela.

Proposamenen hautaketari dagokionez, ondorengo ikuskizunak estreinatu ziren **dFERIAN**:

ESTREINALDI OROKORRAK:

- **RedNUDES** (Pikor Teatro)
- **Exquisito** (Els Marquesets)
- **Mi deuda** (Hika Teatro)
- **Triade** (Colectivo Glovo)

EUROPAR ESTREINALDIAK:

- **Feliz día** (Sutottos)
- **Filtro** (Sala Verdi + La Dramática Errante)

ESTREINALDIAK ESTATUAN:

- **Mellowing** (Dance On Ensemble)
- **Crazy Old Me** (Karin Schäfer)

ESTREINALDIAK EUSKADIN:

- **Manuela, el vuelo infinito**
(Producciones Inconstantes)
- **Luz sobre las cosas**
(El Mandaito Producciones & Wwweickert)
- **El bar nuestro de cada día** (Chipi La Canalla)
- **Twenty Toes** (Roxana Kuwën)
- **Todo este ruido** (Qabalum)
- **Seu aquí** (Colectivo Banquet)
- **Reminiscencia** (Malicho Vaca Valenzuela)
- **Dual** (Marcat Dance)
- **Burgos New York Dantz** (Cidanz Producciones)
- **Reflejos de Macondo**
(Oscar Perfer & María José de Bustos)
- **Yo soy 451** (La Teta Calva)
- **Danse Macabre** (Martín Zimmermann)
- **The Room Where It Happens** (Iker Karrera)
- **Caramel** (Les Impuxibles)



Sustrai, Zirkuss © Gorka Bravo

Zortzi agertoki izan zituen jaialdia: Victoria Eugenia Antzokia, Victoria Eugenia Kluba, Victoria Eugenia Dantza aretoa, Antzoki Zaharra-SGAE Gunea, Gazteszena (Egia), Imanol Larzabal (Lugaritz K. E.), Intxaurren K. E. eta Tabakalera.

Bestalde, **RedNUDES** (Pikor Teatro), **Sustrai** (Zirkuss) eta **Ots** (Haatik Dantza) izan ziren euskarazko ikuskizunak.



Profesionalentzako jarduerak

Prestigio handikoak izan ziren eta eskari handia izan zuten **dFERIA**n arte eszenikoen sektoreko profesionalak zuzenduta antolatutako jarduerak. 2025ean, 7.200 lagunek baino gehiagok hartu zuten parte jarduera horietan.



Negozio Foroa © Gorka Bravo

HAUSNARKETARAKO MAHAIAK

Fuenlabradako María Pagés koreografia-zentroak, **Donostia Kulturak**, Victoria Eugenia Antzokiak eta María Pagés Fundazioak 2025eko **dFERIA**ren barruan antolatutako **Miradas cruzadas. Mujeres que corren con el futuro de la belleza** topaketak arte eszenikoen munduko 15 emakume profesional elkartu zituen espazio kontzeptual bakarrean, bizi izatea egokitu zaien garaia balora zezaten, beraien giza-sentsibilitatea, sormena eta ibilbide profesionala oinarri hartuta. Bi mahaitan banatu zen topaketa: **Arte eszenikoen erronkak Trumpen garaiotan** eta **Krisia sorkuntza-bektore gisa** eta, bertan, ahizpatasunetik abiatuta, krisi garaietan sortzearen gai konplexua jorratu zuten bildutako profesionalak.

Emitza gisa, honako ondorio hauek jaso ziren manifestu batean:

- Botere politikora eta ekonomikora hurbiltzeko beharrezkoak diren kontzientzia eta ezagutza.
- Herrialdeak elkarrengana hurbiltzearen garrantzia.
- Ekiteko eta koherentzia izateko premia.
- Elkarrizketa bultzatzea, publikoaren eta pribatuaren arteko banaketa saihesteko, antzerkiaren eta dantzaren arteko banaketa saihesteko.
- Memoria, espezifikotasuna eta aniztasuna zaintzeko premia.
- Instituzioak pertsonak osatuta daudela eta gizartean arte eszenikoen eta kulturaren zentralitatea berreskuratzeko kontakizuna sortzeak duen garrantzia aitortzea.
- Arte eszenikoena argi-itzalak dituen, baina botere-espazioak konkistatzeko ahamen nabarmena ere baduen sektoretzat jotzea.
- Erantzukizuna, auto-ezagutza eta dekonstrukzioa, hurbileko errealitateekiko nor garen hausnartzeko ardatz gisa.

NEGOZIO FOROA

Elkarrizketa-erronda bat izan zen, eta artistak eta bertako, Estatu eta nazioarteko programazio-arduradunak elkartu eta kontaktu profesionalak ezarri zituzten, interesen arabera antolatutako mahaietan banatuta. 2025ean, 500 lagunek baino gehiagok hartu zuten parte Foroaren bi egunetan, Tabakalera.

AURKEZPENAK

Urtero, **dFERIA**k profesionalak haien intereseko gaiak hurbiltzeko aukera eskaintzen du. 2025ean, gai nagusia izan zen arte eszenikoen kudeaketa Alemanian, Alemaniako hainbat jaialdi eta antzokirekin egindako topaketa batean, eta interes handia piztu zuen. Gauza bera gertatu zen **IBERESCENA, REDELA** Los Angeleseko **National Latinx Theater**-ekin; erakunde ezberdinen kudeaketa-moduak, laguntzak eta diru-laguntzak azaldu ziren.

THE FESTIVAL ACADEMY

Atelier Donostia programaren 2025eko edizioak kontinente guztietako 35 herrialdeetako 47 partaide elkartu zituen, eta erronka handia izan zen **dFERIA** jaialdiaren antolatzaileentzako. Tailerrak, mahai-inguruak, jolasak, gorputz-lanketak, lan-taldeak, jardura intuitiboak, hitzaldi magistralak eta bisita kulturalak egin ziren, pentsamendua eta iritzi kritikoa estimulatzeko eta sinergiak sortzeko helburuz.

2025eko martxoaren 11tik 17ra, **Atelier for Young Festival Managers** programaren agertokia izan zen; programa hori **European Festivals Association (EFA)** elkartearen **The Festival Academy** ekimenak antolatzen du, **dFERIA** Arte Eszenikoen Azokarekin eta Victoria Eugenia Antzokiarekin lankidetzan.

Nazioartekotzea

Europa izan zen erronka eta bidea. Europa lehentasun bat izan zen, baina Azokaren nazioartekotzea europar kontinentetik haratago joan zen. 2025ean, modu esponontziazalean handitu zen atzerriko profesional akreditatuen kopurua; 152 pertsona iritsi ziren kontinente guztietatik, hein batean **The Festival Academy** ekimenari eta Atelier programari esker.

Halaber, nazioartekotze-helburuari erantzunez, proiektio handieneko ikuskizunek ingelesez izan zituzten gain tituluak, eta titulazioa ezinezkoa izan zen kasuetan, aldi bereko itzulpeneko audiogida eskaini zen.

Esker onak

Lehenik eta behin, hemengo ikus-entzuleei, egundoko erantzuna eman baitziguten emanaldietara etorritz. Baita Donostian **dFERIArekin** duten hitzordura inoiz huts egiten duten profesionaleri ere; komunikabideei, azokari ematen dioten oihartzunagatik; eta, amaitzeko, azkeneko urteotan **dFERIA** babestu duten instituzioei. Haien laguntzarik gabe, **dFERIA** ez litzateke izango gaur egun dena.

INAEM institutuaren, **Eusko Jaurlaritzaren**, **Gipuzkoako Foru Aldundiaren** eta, **Iberescena** funtsaren laguntza izan zuen, baita **Instituto Goethe** erakundearen, **Alemaniaiko Errepublika Federaleko Kanpo Harremanetarako Ministerioaren**, **Austriako Kultura Foroaren**, **Pro Helvetia - Kulturarako Suitza Fundazioaren**, **Suitzan Espainian eta Andorran duen Enbaxadaren**, **Kutxa Fundazioaren**, **SGAE Fundazioaren**, **Etxepare Euskal Institutuaren**, **Nafarroako Gobernuaren**, **COFAE** Estatuko Arte Eszenikoen Azoken koordinakundearen, **REDELAE** Arte Eszenikoen Sare Eurolatinoamerikarraren eta **María Pagés Fundazioaren** kolaborazio berezia ere.

Baina, batez ere, nabarmentzekoa da euskal antzerki eta dantza konpainien inplikazioa, oro har, eta **Eskena** Euskal Antzerki eta Dantza Enpresen Elkartearena eta **ADDE** Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkartearena, bereziki. Horiek guztiek ekarri zituzten 2025eko edizioa definitzeko beraien ideiak, ahal zuten guztian lagundu zuten, eta Feriarekin duten konpromiso ekonomikoari ere eutsi zioten.

dFERIAren XXXII. edizioa

dFERIAren hurrengo edizioa 2026ko martxoaren 15etik 19ra bitartean egingo da.



Mellowing, Dance On © Gorka Bravo



Burgos New York Dantz, Cidanz Producciones © Gorka Bravo



Sabes que las flores de plástico nunca han vivido, ¿verdad?., Tanttaka Teatroa © Gorka Bravo

Jaialdia Dkluba

20 **DK** 25
memoria





Jaialdia DKLUBA



Dkluba programa sortu zen auzoetako zein hiri osoko musika-eskaintza dinamizatzeraz bideratutako kontzertu-zirkuitu gisa, tokiko talentu hasiberriak bultzatuz eta, aldi berean, izen handiko artistak hirira erakarriz. Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzan oinarritutako ekimena da, eta zirkuiturik komertzialenetatik aldentutako proposamenen aldeko apustua egin zuen, eta balioa eman zion musikari, kolektibo, elkarte, areto eta sustatzaile ugari osatutako tokiko musika-ekosistemari. Ildo horretan, inguruneke musika-talentua garatzeko berezko erreferente gisa finkatu zen **Dkluba**.

Programazio artistikoarekin batera, Intxaurrondo Kultur Etxeak musika-sektorea sendotzeko bere zereginean sakontzen jarraitu zuen, arreta berezia eskainiz hainbat ekimeni, hala nola hiriko taldeentzako egonaldietarako espazioei. Bederatzi talde pasatu ziren, guztira, bost entsegu-aretoetatik, profesionalizaziorako bidean beraien lehen urratsak eginez: **Rumbling Lips, Krifis, Lup, Haziak, Suite Seda, OEP, La Ola Maldita, Argazki bat behelainoan** eta **Badmintones**.

Azkeneko urtean, indartu egin zen **Musikagela** programaren barruan entseatzeko zuten taldeei talde bisitariekin batera kontzertuetan parte hartzeko aukera eskaintzen zien lan-ildoak. Dinamika horrek herriko musika-sare sortzailea indartu zuen, eta Kultur Etxearen oinarri estrategiko gisa finkatu zen.

Musika-programazioa bat etorri zen Intxaurrondo Kultur Etxeak kultura-gune publiko gisa duen bokazioarekin, eta estiloei zein publikoei dagokienez eskaini zuen aniztasunagatik nabarmendu zen. 2025. urtean zehar, hogeitaz kontzertu baino gehiago antolatu zen; hasi hiri-musikako proposamenik modernoenetatik, eta Estatuko *indie* panoramako erreferente ezagunetarako, euskal musikako figura historikoak ahaztu gabe.

Batez ere gazteei zuzendutako hiri-musikako bi proposamenekin hasi zen urtea, **SAFU**, **La Furia** eta **Albina Stardust** taldeen lan berrien aurkezpenarekin. Ondoren, **Musikagela Weekend** jaialdiko eta **Izaki Gardenak** taldearen kontzertuek, besteak beste, bluesaren, rockaren eta pop euskaldun pertsonalagoaren eremura ireki zuten doinuaren aukera. Martxoak egitarau sendoago bat ekarri zigun, **El Drogas** artistaren emanaldiekin; elkarren segidako bi gauetarako salgai jarritako sarrera guztiak agortu ziren. Lorratz horri jarraituz, **The Datsuns** zeelandaberritarren hard rocka iritsi zitzaigun, **Small Jackets** italiarrekin eta **Santero y los Muchachos** valentziarren rockarekin batera; beraiek markatu zuten udaberriaren etorrera.

Apirilean, **La Otra** eta **Jhana Beat** musikariek intentsitatez eta konpromisoz betetako zuzeneko emanaldiak egin zituzten, hitz oldarkorak beatboxarekin, loop stationarekin eta afrikar eta latindar jatorriko hiri-soinuekin fusionatuz. Bestelako erregistroa ekarri zigun **Noa & the Hell Drinkers** taldearen rocka and rollak, bluesak eta ahots indartsuak, eta kontzertuak gonbidatu ugari elkartu zuen oholza gainean. **The Skatalites** taldeak eman zion amaiera 2024/2025 denboraldiari; talde mitikoa da The Skatalites, ska eta reggae musikaren erreferentea mundu mailan, sei hamarralditik gorako ibilbidea duena, eta Jamaikatik etorri zitzaiguna, taldearen Europako biraren barruan.



La Furia

Intxaurrondo Kultur Etxeko aretoan egin ez zen musika-emanaldi bakarra **Ezezez** talde bizkaitarrarena izan zen, Intxaurrondo Zaharreko jaietan. Gaur egun, Euskal Herriko talde hasiberri nabarmenenetakoa da.

2025/2026 denboraldia, berriz, udazkeneko jaialdiekin hasi zen. **Kutixik** jaialdiaren laugarren edizioa ospatu zen, **Mihise**, **Physis vs Nomos**, **Nize**, **Xak** eta **Kulata** taldeek osatutako kartelarekin; horrela, berretsi zen lan bikaina egiten duela **Balio Dute** kolektiboak lurraldeko proposamen hasiberriak detektatzen.



Bestalde, **Donostia Kluba jaialdiak** etenaldia egin zuen eta, haren ordean, **Bolo-Bolo Weekend** jaialdia estreinatu zen. **Bloody Mary** disko-dendarekin batera antolatu zen jaialdi hori, dendaren 30. urteurrenaren harira, eta Euskal Herriko talde hasiberri sorta bat aurkeztu zen —hala nola **Airu**, **Mikosis**, **Indabe** eta **Lukiek**— baita nazioartekoak ere, **Honey Glaze**, besteak beste. Lehenengo edizio hau ikusita, argi geratu zen etorkizun handiko jaialdia dela.

Azaroan, **The Limiñanas** frantziarrak iritsi ziren Intxaurren Kultur Etxera, osagai bisualak pisu nabarmena hartzen duen ikuskizun batekin. Hilabete hartan bertan eskaini zuen **Rufus T. Firefly** taldeak ere, Estatuko *indie* alternatiboaren panoramako talde ospetsuenetako batek. Azaroan egin zen **Jamrock Fest** jaialdiaren beste edizio bat ere, eta berriro elkartu zituen *dub* eta *reggae* proposamenak, nazioarteko kartel nabarmen honekin: **Eva Lazarus** (Erresuma Batua), **Treesha** (Kenya) eta **Agoteak** (Euskal Herria). Abenduan, jarduneko hiru punk talde historiko izan ziren protagonista: **Vómito**, **Distorsión** eta **Arpaviejas**. Urteari amaiera emateko, berriz, **Zea Mays** izan genuen, Santo Tomas bezperan; sarrera guztiak agortu ziren.

Programazio honen funtsezko elementuetako bat izan zen **Musikagelarekin** loturaren bat duten edo Donostialdekoak diren taldeek artista bisitariekin batera oholtzara igotzeko plataforma izatea. 2025ean, besteak beste, honako talde hauek aritu



Lup © Iñaki Rubio

ziren testuinguru horretan: **Bobbi Relac**, **Slimfit**, **Argazki bat behelainoan** eta **Aria**. Gainera, **Musikagelak** jaialdi propioa izan zuen, **Musikagela Weekend**; **Suite Seda** eta **Lup** taldeek ireki zuten gaua, **Susan Santos** artistaren emanaldiarekin amaitu zena. Guztira, hamaika kontzertu kudeatu zituen **Musikagelak**; hamabi taldek hartu zuten parte kontzertu horietan.

Musikagelak koordinatu zuen tokiko taldeen parte-hartzea hainbat jardueretan eta **Donostia Kulturaren** kontzertuetan, kasu batzuetan artista ezagunen hasierako artista gisa, beste kasu batzuetan erakundearen jaialdietan —hala nola **Musikagela Weekend** eta **Musikagela Fest**—, baita beste ekitaldi batzuetan ere —**Glad is the Day**—, edo kultura-jardueretan (kultur etxeetako erakusketak kasu), Liburuaren Egunean, **Poesialdian** edo **Literaktum** jaialdian. Orotara, hamabost jarduera antolatu ziren, eta hamasei taldek, bi duetok eta lau bakarlarik hartu zuten parte.

Intxaurren Kultur Etxean aritu ziren **Aria**, **Izaki Gardenak** taldea irekitzen; **Bobbi Relac**, **Santero y los Muchachos** taldearen hasierako artista gisa; **Nuria Culla**, **La Otra** artistaren kontzertuan; **Slimfit**, **Rufus T. Firefly** taldearenean; eta **Argazki bat behelainoan**, **Zea Mays** euskal taldearen hasierako musika-talde gisa, abenduan.

Jaialdien esparruan, **Suite Seda** eta **Lup** musikariek **Susan Santosekin** batera aritu ziren **Musikagela Weekend** jaialdiaren XV. edizioan, otsailean. Ekainean, **Musikagela Fest** jaialdian, Saguesen, honako hauek aritu ziren: **Inv3rt**, **Mark Duti**, **Sara Mansilla**, **Physis vs Nomos**, **Latitud 43**, **WTXW**, **Peter Bjor**, **Miss B. and On AI Dual** musikariarekin batera. Abuztuan, bestalde, **OEP** taldeak emanaldia egin zuen **Glad is the Day** jaialdian.

Azkenik, **Sasha Smith** abeslariak Euskadiko Kanping Elkartean 75. urteurrenaren harira antolatutako **Mendi margotuk** erakusketaren inaugurazioan parte hartu zuen, Okendo Kultur Etxean. **Ariak** kontzertu akustikoa eskaini zuen **Elena Arreseren Mila**, erakusketaren irekieran, eta martxoan, **Sara Mansilla** abeslariak ere kontzertu akustikoa egin zuen Emakumeen Astearen inaugurazioan, Intxaurren Kultur Etxean.

Jaialdia Poltsiko Antzerkia

20  25





Jaialdia POLTSIKO ANTZERKIA

Kultura etxeek **Poltsiko Antzerkia jaialdiaren** 34. edizioaren balorazio positiboa egin zuten, antolaketari zein herritarren erantzunari dagokienez. Edizio honetan, 2.332 ikuslek gozatu zuten antzerkiak, umoreaz, magia, ilusionismoaz eta musikaz, maiatzaren 8tik 25era.

Entretenezko eta harritzeko helburuz, 2025eko edizioko programazioak antzerkia, umorea, magia, ilusionismoa, bakarrizketak eta musika izan zituen osagai nagusi. Tabernetan eta ez-ohiko beste espazio batzuetan aritu ziren **Asis Hansson**, **Belén Nevado**, **Lorena Arangoa**, **Aintzane Baleztena** eta **Virginia Imaz** artistak, besteak beste. Gainera, edizio guztietan bezala, bi hizkuntza ofizialen eta gizon eta emakumeen presentzia orekatzen saiatu ziren antolatzaileak.





**POLTSIKO
ANTZERKIA**
TEATRO
DE BOLSILLO

La maja y la mona, Aroa Berrozpe & Susana Soletto © Iñaki Rubio

Guztira, 16 konpainiak beste horrenbeste ikuskizun eskaini zituzten 31 emanalditan; horietatik 8 erabat emakumez osatuta, lau gizonez osatuta eta beste lau mistoak izan ziren. Hiriko 27 espazio ezberdinetan banatu ziren ikuskizunak.

Publikoak oso harrera ona egin zien emanaldiei. **Poltsiko Antzerkia Jaialdiak** hutsik egin ez zuten jarraitzaile leialak ditu, eta ikusle asko elkartu ziren berriro, Donostiako kultura-programazioaren barruan dagoeneko finkatuta dagoen jaialdi honetan.

Kultur etxeek egunez egun egiten duten lanaren erakusgarri izan zen jaialdia; herritarrengandik hurbil dauden ekipamenduak izanik, bestelako begirada bat eman zieten hiriko kultura-programazioei.

Azkenik, jaialdiaren itxierarekin, **XVI. Poltsiko Sorkuntza lehiaketarako** deialdia jarri zen martxan; lehiaketa horren helburua da formatu txikiko antzerkiaren esparruan euskarazko eskaintza sustatzea.



Bihotz, bi hots, bi txotxi!, Garazi San Martin © Iñaki Rubio



La Maga, Dania Díaz © Iñaki Rubio



Inprofestakzioa, Garazi San Martin, Xabier Artieda, Xabier Flamarique © Iñaki Rubio

Ekoizpena

20  25





DIPC zentroaren XXV. urteurrena Victoria Eugenia Antzokian

Ekoizpena

2025. urtean, **Donostia Kulturako** Ekoizpen Unitateak 678 ekoizpen egin zituen, Victoria Eugenia Antzokian, Antzoki Zaharrean, San Telmo Museoan, Kursaal Elkargunean eta beste espazio batzuetan egindakoak batuta, baita 76 muntaketa-egun ere.

Ekoizpen horien artean daude **Donostia Kulturaren** jaialdiak, hala nola **Antzerki Azoka**, **Giza Eskubideen Zinemaldia**, **Jazzaldia** eta **Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astea**. Nabarmentzekoa izan zen, halaber, **DIPC zentroaren XXV. urteurrena** ospatzeko Victoria Eugenia Antzokian egin zen gala.

2025ean, **Pintxoaren Institutuaren** egoitza ere izan zen Ekoizpen Unitatea, Victoria Eugenia Antzokiko oholtza gainean bertan egin zen afariarekin.

Donostia Kulturaren beraren ekoizpenez gain, 2025ean, beste entitate eta erakunde batzuei ere eskaini zitzaizkien ekoizpen-zerbitzuak, tartean, honako hauei:

- **Kursaal Eszena** programako kontzertuak (musika klasikoa eta herrikoia).
- **Urrezko Danborra** eta **Hiritar Merezimenduaren Dominak** emateko ekitaldiak, Donostiako udaletxean.
- **Musika Hamabostaldia**, Kursaal jauregian, San Telmo Museoan eta Tabakalera.
- **El Diario Vascoren** Eguberrietako kontzertua, Kursaal jauregiko Auditorioan.



DIPC zentroaren XXV. urteurrena Victoria Eugenia Antzokian



DIPC zentroaren XXV. urteurrena Victoria Eugenia Antzokian



Pintxoaren Institutuaren egoitza Victoria Eugenia Antzokian



Pintxoaren Institutuaren egoitza Victoria Eugenia Antzokian



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura